

2



2



3





20

23

5

Donostia Kultura
Balantzea

15

Egitura eta balantze
ekonomikoa

19

Komunikazioa
eta irudia

25

Donostia Kultura
Bazkideak

27

San Telmo Museoa

43

Kultur Etxeak

43

Liburutegiak

137

Programazioa

- 43 Kultur Ekintza
- 59 Aiete
- 67 Casares-Tomasene /
Larratxo
- 77 Egia
- 87 Ernest Lluch
- 95 Intxaurreondo
- 105 Larrotxene
- 113 Loiola
- 119 Lugaritz
- 127 Okendo

- 153 Arte Eszenikoak
- 167 Musika
- 171 Zinema eta
ikus-entzunezkoak

175

Festak

195

Jaialdiak

239

Ekoizpena

- 195 Donostiako Jazzaldia
- 203 Glad is the Day
- 207 Fantasiatzko eta
Beldurrezko Zinemaren
Astea
- 211 Giza Eskubideen Zinemaldia
- 215 Literaktum
- 219 dFeria
- 227 Dkluba
- 231 Poltsiko Antzerkia
- 235 Argiartean

Gozatu
Disfruta
Donostia
Kultura
donostiakultura.eus

2



2

3

Donostia Kultura
Balantzea

Donostia Kultura Balantzea

Sortzaileei emandako babesak

Tokiko kulturaren industrian inoiz egin duen inbertsio handienarekin itxi zuen 2023ko ekitaldia Donostia Kulturak, 12.300.000 euroko kopurua gainditu baitzuen jardueretako gastuetan. Kopuru horren % 62, hau da, 7.700.000 euro, sortzaileei bideratu zitzairen zuzenean. Inoizko kopururik handiena.

Publikoaren erantzuna

Jazzaldiak marka berriak ezarri zituen publikoari dagokionez, 190.000 entzule baino gehiagorekin, baita ikuskizunen eta erakusketen egitarauak ere, ia 300.000 sarrera salduta. Horrela, diru-sarrerak ere emaitza onak lortu zituzten 2023an, eta pandemia aurreko mailak lortu dituzte berriro, 6.000.000 euroko muga gaindituta. Bereziki nabarmena izan zen leihatilako diru-sarreraren igoera; 2019an baino ia 500.000 euro gehiago bildu ziren.

Donostiarren parte-hartzea

Ia 9.000 lagunek baino gehiagok egin zuen kultura kultur etxeek eskaini zituzten 900 ikastaroetan, 2023ko beste errekor bat lortuz. Haurren zein helduen danborradetan ere inoiz baino jende gehiagok hartu zuen parte, 25.000 donostiarren parte-hartzearekin; baita Aste Nagusian ere. 1.200.000 donostiar eta bisitarik baino gehiagok hartu zuen parte jaietako ekitaldietan.

Donostia Kulturak marka guztiak
hautsi zituen 2023an, publikoari,
parte-hartzeari eta kulturaren
arloko inbertsioari dagokionez.



Alderdi hori izan daiteke, **herritarren parte-hartzea**, alegia, Donostia Kultura erakundea harroen sentiarazten duen lorpena. Eta 2023an gehien hazi ziren alderdietako bat.

Adibide modura, 2023an **935 ikastaro eskaini zituzten kultur etxeek**, aurreko urtean baino 59 gehiago; horri esker, 8.873 ikasle aritu ziren, kultura-diziplina eta hiriko auzo ezberdinetan banatuta. Berritasun gisa: ikasleak euskaraz matrikula zitezten egindako ahalegina, *Belarriprest* programari, eskaintza zabalagoari –eskaini ziren ikastaroen % 53 euskaraz zen– eta bi fasetan izena emateko aukerari esker.

Gainera, **897.500 bisita jaso zituzten kultur etxeek**; horietatik 270.000 bisita, sarearen hamahiru espazioetan programatutako era guztietako ia 6.000 jarduerak erakarrira egindako bisitak izan ziren. **Larrotxene Bideo** 2023an berrireki zuten Larrotxene Kultur Etxean, ikasgelak eta ikus-entzunezko materiala berritzeko lanen ostean; 950.000 euroko inbertsioa egin zen. Horixe da herritarren artean onarpen handiena duten zerbitzuetako bat; baita **Musikagela** ere, aukera ugari eskaintzen duen jarduerarekin: entseatzeko aretoak (70 proiektu 2023an), kontzertuak (32), prestakuntza (17 ikastaro) eta grabaziorako espazioen mailegu- eta lagapen-zerbitzua.

Donostiako Liburutegien Sareak, bestalde, oso ekitaldi ona izan zuen 2023koa, sarearen adierazle nagusien igoera nabarmenarekin: maileguak, bisitariak eta jarduerak. 2023an, **785.535 bisita jaso zituzten udal liburutegiek**, % 18,9 gehiago. Bisita horietan, **450.321** mailegu egin ziren, aurreko urtean baino % 10,5 gehiago. Eta, azkenik, **irakurketaren eta literaturaren inguruko 2.009 jarduera** egin ziren; datuak alderatuta, ikusten da % 37,3 gehitu dela jarduera kopurua. 42.348 lagunek hartu zuen parte jarduera horietan, aurreko urtean baino % 45,4 gehiagok.

Logikoki, parte-hartzea Donostia Festak atalaren indargune nagusienetako bat ere bada, eta goranzko joera berreskuratu zuen, pandemiako urteen ondoren.

Ezin hobeto hasi zen urtea, San Sebastian eguneko parte-hartzearekin; helduen 157 danborrada izan genituen, horietako zazpi lehendabizikoz parte

hartu zutenak, eta danborraden % 94,30 izan ziren mistoak. Guztira, **20.508 danbor-jotzailek hartu zuen parte helduen danborradetan, ia 5.000 lagunek haurren danborradetan.**

2023ko Aste Nagusia biribiltzat jo zen, kasu honetan ere parte-hartzea handia izan zelako publiko guztientzako programatutako 300 jarduera baino gehiagotan. 66.000 lagun egon zen Sagueseko kontzertuetan, 650.000 Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketan, eta zenbatesten da **1.200.000 lagunek baino gehiagok gozatu zuela Aste Nagusiko jardueraren batez.**

Hona hemen jaiekin lotutako beste zifra batzuk: 2023ko Aratusteetako 25 konpartsak; San Joan bezperako 21 suak; Euskal Jaietako 60 ekitaldiak; San Tomas azokako 170 postuak; eta Kontxako Banderako estropadetako emakumezkoen 19 traineruak eta gizonezkoen 25 traineruak. Donostiako Arraun Lagunak eta Bermeo Urdaibai izan ziren irabazleak.

Parte-hartzeari dagokionez, badago erreparatu beharreko alderdi berri bat: gero eta handiagoa da parte-hartzea Donostia Kulturak profesionalak zein zaleak hiriko kultura- eta jai-bizitzan integra daitezen eskaintzen dituen **lehiaketa, sariketa eta deialdietan. 20 deialdi baino gehiago** egin ziren 2023an eta, horiei esker, tokiko sareak hiriko kultura- eta jai-jardueran gero eta presentzia handiagoa izan dezan bermatzen da.

Hauexek dira horietako batzuk: Donostia Antzerki Sarea, Antzerkigintza berriak, Jazzaldia_Tokiko taldeak, Hamaika Entzuteko, Oihua_beldurrezko film laburrak, kartel-lehiaketak...





Jazzaldia, Arde Bogotá © Lolo Vasco

Parte-hartzeari dagokionez hutsik egiten ez duen beste adierazle bat DK Klubeko bazkide kopurua da (hau da, txartela duten pertsonak). 2023ko abenduan, dagoeneko **121.539 bazkide** zituen **Donostia Kulturak, aurreko urtean baino 4.478 txartel gehiagorekin**. Bazkide horietatik % 60 emakumeak dira, eta % 76 Donostiako biztanleak. 45 eta 64 urte artekoen adin-tartea izan zen nagusi, eta 30 eta 44 urte artekoena jarraian. Auzoen arabera, Amarak jarraitu zuen izaten kultura-zerbitzuen erabiltzaile gehien duen barrutia (% 19); Amararen atzetik daude Gros (% 12), Antiguu-Ibaeta (% 11), Intxaurren (% 11) eta Altza (% 10).

Publikoak Donostia Kulturak proposatutako programazioari **emandako erantzunak** ere datu positibo ugari utzi zituen.

Programazioari dagokionez, ikuskizunetarako 176.620 sarrera saldu zituen Donostia Kulturak 2023an (% 5,43 gehiago), eta 2.811.716 € eskuratu zituen; San Telmo Museoak, gainera, 253.468 € eskuratu zituen (% 14,95 gehiago) saldutako 113.827 sarrerekin. Guztira, ia 300.000 sarrera saldu ziren, ikuskizunak, kontzertuak eta erakusketak aintzat hartuta.

Jazzaldiaren 58. edizioak ere bere errekorra hautsi zuen; **191.000 lagun** joan ziren bost egunean zehar **16 agertokitan** egin ziren **90 kontzertuetara**.

San Telmo Museoa ere datu paregabeak lortu ziren, 154.090 bisitarekin; nabarmentzekoak dira **Margotzeko bidaiatu. Sorolla Donostian** eta **Clima ideal. Udako kartelak** erakusketak, 50.000 bisitarekin. Erakusketa gehiago: **Indésirables, Women are beautiful, Alef, 90 berriak, Dantzaz ele, Bizikletak: 150 urte, Ez du pausorik debalde ematen, Hemen dragoiak daude** eta **Garuna(k)**.

Aipatzekoa da **berritu egin zela Arte Ederren erakusketa iraunkorra**, eta indartu egin zela **Errokkak** lan-ildoak, identifikazio propio batekin. Sorkuntza garaikideak eta tokikoak ere izan zuten presentzia, batez ere erakusketen eta Museo Bikoitza eta Arte Abian programen eskutik, **Hinrich Sachs** eta **Mikel Otxoteko** artistekin, hurrenez hurren.

255 objektu eta artelan eskuratu ziren 2023an, eta 11.116 pieza izatera iritsi zen herritarrentzako ikusgai dauden museoaren bildumetako katalogoa.

Azkenik, 80.000 bisitari izan zituen **Urgullen** egin zen **Donostiari begira** erakusketak, % 90 turistak.

Programazio eszenikoari dagokionez:

Arte Eszenikoen esparruan, **100.000 ikuslek baino gehiagok gozatu zuen 2023an antzerkiaz eta dantzaz**. Udan bakarrik, 21 ikuskizun programatu ziren, 95 emanaldirekin eta 28.000 ikusle baino gehiagorekin, Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko agertokietan. **Carles Sansen *Por fin solo*, Pilar Castor eta Candela Peñaren *Contracciones* eta *Peter Pan, el musical*** izan ziren proposamenetako batzuk.



Peter pan, el musical © Lilo Filmmaker

Urtean zehar, formatu guztietako ikuskizunak igaro ziren Donostia Kulturaren bost espazio eszenikoetatik: ***Prima facie, La infamia, Forever, Las aves, El proceso, La celestina, El rey que se fue, Diptych, Eterno, Shine, Dance me / Leonard Cohen, El Guardaespaldas, Ez naiz inoiz Dublín egon, Hobe ixilik, Lehendakari gaia, Nekatutak, Alfonso X, la última antiga, El ramper, Hernani, Déjà vu, Sustrai, Miña, Itsas behera...*** izan ziren ikuskizunetako batzuk.

Urtero ospatu ohi diren Arte Eszenikoen Egunaz eta Dantzaren Galaz gain, **Iturritik** jaialdi berriaren bigarren edizioa egin zen. **Nova Galega de Danza, Kresala eta Antonio Ruiz, Kukai Dantza, La Pharmaco** eta **Marcos Morauk** hartu zuten parte, besteak beste, 2023ko edizioan. Eta formatu txikiko antzerkiak 2.700 jarraitzaile erakarri zituen hiriko taberna eta lokaletara, **Poltsiko Antzerkia** jaialdiari esker.

Nolanahi ere, aipagarriena da Donostia Kulturak berak ekoiztutako lanak edo erakundea partaide izan zen **koprodukzioak** etengabe gehitu zirela. 2023an, ondorengo ikuskizunak koproduzitu zituen Victoria Eugenia Antzokiak: **Noé, Malandain Ballet Biarritz** taldearena, **Kukai Dantza taldearen Yarin, Kulunka Teatroa** konpainiaren **Forever, ¿Quién nos disparó después del 22?** Alexandru Stanciurena eta **Miña, Artedrama** plataformarena.



Kultur txeeek, bestalde, **egoitzan** hartu zituzten ondorengo konpainiak edo lanak: **Zirkuss, Lasala eta Caminate** konpainiak, **Plañideras, Shine** eta **Cielo Raso** lanak.

Zinemari dagokionez, Frantziako zinema beltzari buruzkoa izan zen **Nosferatu** asteroko zikloa, eta bi argitalpenekin osatu zen. 2.817 lagunek hartu zuen parte Tabakaleran egin ohi den programa horretan eta, zinema jaialdietara -Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea eta Giza Eskubideen Zinemaldia- joan zirenak kontuan hartuta, **23.181 zinemazale joan ziren, guztira, Donostia Kulturaren aretoetara**. Zinema-programa kolaboratzaileez gozatu zuten 13.949 lagunak batu behar zaizkie horiei -Dock of The Bay, Bang Bang, Itsaspeko Zinema Zikloa eta Donoskino-, bai eta Tinko elkarteak haurrentzako antolatzen dituen emanaldietara eta beste batzuetara joan zirenak ere (Menditour, Zinegoak, Emakumeen Etxearen zikloa, Bideoaldia, Begiradak, etab.). Gainera, **18.000 bisitari izan zituzten zinema-programazioarekin lotutako erakusketek**.



Zea Mays, Adarra Saria © Foku / Jon Urbe



Victoria Eugenia Antzokiko musika-programazioari dagokionez, **18.000 bat entzule batu** zituzten hiru bloke handitan programatutako 65 ikuskizunek: Tokiko musikarien hainbat kontzertu egin zen, batetik; hala nola **Eñaut Elorrieta, Gure Ahotsak (Olatz Salvador, La Bien Querida, Maite Larburu, Neomak), X5 kolektiboa, Judith Jaúregui, Zea Mays, Diego Vasallo, Mikel Erentxun, Olatz Zugasti** eta **Joserra Senperena** musikariak aritu ziren; aipamen berezia merezi du **Discos Mon Oncle** podcastak antolatutako Gabonetako Kontzertuak. Nazioarteko musikaren atalean, **Tindersticks, The Musical Box, Interpol, Yoshida Brothers, Teenage Fanclub, Sofiane Pamar** eta **Stick Men, Eddie Henderson, Rachel Eckroth, Chris Potter** eta **Myra Melford** musikarien emanaldiak izan genituen, besteak beste. Azkenik, musika klasikoak ere bere lekua izan zuen Donostia Musikaren programazioaren eskutik, **Schubert** konpositoreari eskainitako zikloarekin eta **Sasibill** elkartearen **Zarzuolarekin**. **Kultur etxeetan ere 83 kontzertu** eskaini ziren DKluba eta Musikagela programen eta Glad is The Day hitzorduaren barruan (2023an, murriztu egin zen jaialdi horren egitaraua, eguraldi txarraren eraginez), **15.000 entzulerekin**.

Jaialdi garrantzitsuenen errepasso laburra:

JAZZALDIA

Publikoari dagokionez, markak hautsi zituen edizioa izan zen, 191.000 entzulerekin; bost egunetan 90 kontzertu eskaini zituen **Jazzaldiaren 58. Edizioak**. 18.882 sarrera erosi zituzten zaleek 40 herrialdeetatik, eta *sarrerak agortuta* kartela zintzilikatu behar izan zen salgai jarri ziren 21 kontzertuetatik 15etan. Doako kontzertuetara, berriz, 172.000 lagun joan ziren. Hona hemen entzun ahal izan genituen musikarietako batzuk: **Julian Lage, Norah Jones, Joss Stone, Ben Harper, Ezra Collective, Yosuke Yamahita...**

dFERIA

X. edizio honen berritasuna izan zen **Azokaren nazioartekotze-ildoak indartu** izana, Europara gehiago begiratuz. 14.000 bat lagunek hartu zuen parte programatutako jardueretan, horietako 8.500ek ikuskizunetan. Halaber, azpimarratzekoa da nolabaiteko estreinaldiak izan zirela proposamenen % 64, eta 15, *premierrak* Euskadin. Bestalde, **errekorra hautsi zen akreditatutako pertsona kopuruari dagokionez; 540 profesional akreditatu ziren**, gehienak programatzaileak, eta % 10 izan ziren nazioarteko profesionalak.

Izenburuetako batzuk: *Ihir, La celda sin noche, Howto_just another Bolero, Diptych, Surrealismo, Rna, Los perros, Strip-tease...*



Norah Jones, Jazzaldia © Lolo Vasco

FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA

Bruixes-Brujas-Sorginak izan ziren 2023ko *leitmotiva*, eta lehendabiziko aldiz, beste jaialdi batekin antolatua izan zen hainbat jarduerara, Molins de Reiko TerrorMolins jaialdiarekin, hain zuzen ere. Erantzun bikaina eman zion publikoak hitzorduari; horrela, **10.000 lagun inguru joan zen emanaldietara**, eta beste horrenbeste erakusketa eta gainerako jardueretara.

Carlota Pereda zuzendariaren *La ermita* koprodukzio euskal-kataluniarra izan zen ikusmin handiena piztu zutenetako bat. 2023ko edizioan lehen aldiz programatu zen euskal film laburren maratokia, eta handitu egin zen euskarazko azpiztituluen presentzia. *Fantasiarazko zinema japoniarren ikonoak, Akelarre ilustratua* eta *Sorgin seinalea* izan ziren azkeneko edizioko erakusketak.

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

Mundu osoko 27 film luze hartu zuen parte Jaialdiaren azkeneko edizio honetan, eta **Carmen Castillo** txiletar dokumentalista izan zen protagonista; ohorezko saria jaso zuen, eta berari eskainitako erakusketa egin zen. **20.000 especies de abejas** euskal ekoizpenak inauguratu zuen Zinemaldia; **ia 10.000 ikusle erakarri zituen emanaldietara** jaialdiak, eta **7.995 bisitari izan zituzten erakusketek**.



Eneko Goia & Carmen Castillo © Floro Azqueta



TMATNB + Desilence, Argiartean © Iñaki Rubio

ARGIARTEAN

6.000 lagun inguru egon zen Loiolako Erriberetako Memoriaren Lorategian eta Iesu Elizan lan esperimentalen erakustaldiak sustatzeko Argiartean plataformaren argi-jaialdiaz gozatzen.

Diziplina anitzetako artistak adin guztietako ikusleengana heldu ziren, **light-art instalazioekin, proiektio monumentalekin** eta **zuzeneko emanaldiekin**.

Programazio guzti hau aztertuta, ondoriozta daiteke **Donostia Kulturak hiriak bizi duen /loop kulturala bermatu eta bultzatu** zuela. Hori egiaztatuta geratzen da kontuan hartzen badugu 2023an ere Gipuzkoa izan dela EAEn kultura-ekitaldien ratio handiena izan duen lurraldea, Kulturaren Euskal Behatokiak haren hiruhileko txostenetan jaso duenez.

LITERAKTUM

Hazten jarraitzen du hiriko literatura jaialdiak. 2023ko edizioan, 6.100 lagunek baino gehiagok hartu zuen parte programatutako 54 ekitaldietan. *Maitasunaren geografiak* izan zen 18. edizioko leloa, eta hainbat idazle izan genuen hirian, hala nola **Antonio Muñoz Molina, Ray Loriga, Marta Jimenes, Blanca Llum, Castillo Suárez, Jacobo Bergareche, Nerea Balda, Alejandro Gándara, Ramón Andrés, Giaconda Belli, Patxi Zubizarreta** eta **Antje Rávic Strubel**. **Mikel Laboa** hil zeneko 15. urteurrena gogoratu zen, eta **Munduari bira 80 egunetan** argitaratu zeneko 150. urteurrena. Aurrez, **Jhumpa Lahiri** eta **Olga Tokarczuk** Literaturako Nobel sariduna izan genituen Literaktum Topaketetan.



Marta Jiménez, Literaktum © Iñaki Rubio

Tokiko sorkuntzari eta industriari emandako laguntza

Tokiko kulturaren industrian inoiz egin duen inbertsio handienarekin itxi zuen 2023ko ekitaldia Donostia Kulturak, **12.300.000 euroko kopurua gainditu baitzuen jardueretako gastuetan. Kopuru horren % 62, hau da, 7.700.000 euro, sortzaileei bideratu zitzaizen zuzenean.**

Diru-sarrerek ere emaitza onak lortu zituzten 2023an, eta pandemia aurreko mailak lortu dituzte berriro, 6.000.000 euroko muga gaindituta. Bereziki nabarmena izan zen leihatilako diru-sarreren igoera; 2019an baino ia 500.000 euro gehiago bildu ziren.

Diru-laguntzei dagokienez, 723.295 euro banatu ziren 2023an, zuzeneko dirulaguntzetan eta/edo hitzartutakoetan, lehia askeko diru laguntzetan, jaiak antolatzeakoetan eta jai-erakundeei emandakoetan.

Kapitulu honetan, aipagarria da bide garrantzitsua egin dela 2023an **Donostia Kulturaren enplegua egonkortzeko**. 45 deialdi baino gehiago egin ziren 100 lanpostu egonkortzeko, eta dagoeneko ebatzi dira gehienak.

Azkenik, EHUren Udako ikastaroen barruan, kirol-diplomaziari buruzko ikastaroa antolatu zuen, eta arrakasta izan zuen parte-hartzeari dagokionez.

Komunikazioa eta marketina

Victoria Eugenia Antzokiaren zein Literaktum literatura jaialdiaren webguneak eraberritu zituen Donostia Kulturak 2023an, bai eta Liburu Dantza bloga ere. Horrela, besteak beste kanal digitalen bitartez kultura herritarrei hurbiltzeko duen konpromisoari eusten dio.

670.130 erabiltzaile izan zituen webguneak 2023an, 1.620.450 saio ireki eta **6,5 milioi web-orri kontsultatu** ziren (% 16ko eta % 8,5eko igoerekin, hurrenez hurren).

Horrez gain, **% 7ko igoerarekin, dagoeneko 40.769 bazkide daude erregistratuta** webgunearen bitartez. Herritar horiek abantaila handienak dituzte Donostia Kulturaren zerbitzuetan eta programazioan.

Azkenik, azpimarratzekoa da 20.000 lagunek jaso zutela astero agenda; zifra hori % 80 igo zen aurreko egoerarekin alderatuta.

Sare sozialetako presentziari dagokionez, **190.015 jarraitzaile** izan zituzten Donostia Kulturaren kanalek: 81.174 X-ek, Facebookek 59.902, Instagramek 46.127, eta Linkedinek 2.812. Datu horiek aztertuta, ikusten dugu 9.312 jarraitzaile berri lortu dituela erakundeak 2023an. Amaitzeko, 2.240 jarraitzaile izan zituen Donostia Kulturak YouTubean.

*Otsail amaieran webgunean egongo da balantzea, xehetasun handiagoz, eta sailen eta diziplinen arabera antolatuta.

670.130
webgunearen
erabiltzaileak 2023an



2



2

3

Egitura eta balantze
ekonomikoa

Egitura eta balantze ekonomikoa

Administrazio-kontseilua

Lehendakaria
Eneko Goia Laso

Lehendakariordea
Jon Insausti Maisterrena

Kontseilariak

EAJ-PNV

Kerman Orbegozo Uribe
Nekane Mendarte

EH BILDU

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
Jon Markel Ormazabal Gaztañaga

PSE EE

Iñaki Gabarain Gaztelumendi
Cristina Lagé Manich

ELKARREKIN DONOSTIA

Arantza Gonzalez Garcia

PP

Borja Corominas Fisas

Zuzendaritza-taldea

Zuzendari-gerentea:

Jaime Otamendi

Zuzendariaren teknikari laguntzailea:

Imanol Galdos

Administrazioa eta Baliabideak: **Rebeka Gallastegi**

Komunikazioa eta Irudia: **Jaione Askasibar**

Ekonomia eta Finantzak: **David Feijo**

Liburutegiak: **Arantza Urkia**

Kultur etxeak: **Jon Aizpurua**

Zinema: **Josemi Beltrán**

Jaiak: **María Jesús Torres**

San Telmo Museoa: **Susana Soto**

Musika: **Miguel Martín**

Antzerkia eta Dantza: **Norka Chiapusso**

Ekoizpena: **José Ignacio Abanda**

2023ko aurrekontua



Gastuak guztira:

31.179.049€



Diru-sarrerak guztira:

5.549.049€



Udalaren diru-ekarpena:

25.630.000€



Donostia Kulturaren zeharkako planak:

Euskara Erabiltzeko Plana

Euskaraz lan egiteko konpromisoarekin jarraitu dugu aurten ere. Hauexek dira gertaera garrantzitsuenetako batzuk: *Euskarazko atalak* deritzenak sortzen hasi gara, baita kontratazio-lizitazioetan txertatutako euskara-klausulen jarraipena egiten ere.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana

Sexu-jazarpenera eta sexuagatiko jazarpenera prebenitzeko eta egoera horien aurrean jarduteko protokoloa berritu dugu, eta gure instalazioetako gune kritikoak analizatzeko proiektu bat jarri dugu abian. Poliki-poliki, aurrera goaz.

Enplegua Donostia Kulturatan

2023a urte garrantzitsua izan da Donostia Kulturatan enplegua egonkortzeko bidean. 45 deialdi baino gehiago jarri dira martxan, 100 lanpostu baino gehiago egonkortzeko. Lan horren heren bat amaitu da 2023an, eta 2024an jarraituko dugu osatzen.

Nazioarteratzea

2023ko ekainean, Uda Ikastaroen barne, Kirol Diplomaziaren Mundu mailako Batzarra burutu zen, nazioartearen ikuspegitik urteko ekitaldirik nagusiena. Tourra eta bestelako nazioarteko kirol ekitaldien kariaz, kirol diplomaziaren esparruan egungo mundu mailako aditurik garrantzitsuenak bertaratu ziren Donostiara. Munduko bazter guztietako berrehun ikasletik gora jarraitu zuten Kongresua. Nazioarteko komunikabidetan Kongresuak lortu zuen arrakasta eta jarraipena nabarmentzekoak dira, Donostia kirol diplomaziaren mundu mailako erreferentzia bihurtu delarik. Etorkizuneko sare asko sortu eta egituratu dira Kongresuaren testuinguruan, Kulturaren agenda berrien inguruan mundu mailan bidean diren gogoetarako gune garrantzitsua bilakatu da ekaineko Kongresua.

Nazioarteko sareak nabarmenki indartu dira aurtengoan. Horen ondotik, hainbat gonbidapen jaso dira han eta hemen burutu diren Kongresutan esku hartzeko. Galeseko gobernuaren eskutik Cardiffen izandako Kongresu batean esku hartzeaz gain, Gales eta Cardiffeko gobernu arduradunekin hainbat egitasmo aurrera eramateko lanean dihardugu. Bestalde, Irailean Eslovakiako Banska Bystrika hirian **Global Cultures. Engaging Diasporas around world in diverse contexts** izenburupean izandako Mundu Mailako Kongresuan esku hartu genuen. Abenduan Dublinen **Culture. Future. Goal. We act to bring local visions to global tablets** izenburupean izandako kongresuan ere esku hartu dugu. Horien guztietan hitzaldiak emateaz gain, nazioarteko argitalpenetan artikuluak argitaratu dira. Donostia Kulturaren izena gero eta nabarmenagoa da nazioarteko sareetan.

Horrez gain, eta urtez urtez joera nabarmenki indartuz doa, munduko hiri eta unibertsitate ugarietatik jasotako aholku eskaerei erantzun zaie. Deustuko Unibertsitatera etorritako atzerritar ikasleei Donostia Kulturaren berri ere eman zaie. Nazioarteko banakako eskaera ugari ere erantzun da urtean zehar.



2



2

3

Komunikazioa
eta irudia

Komunikazioa eta irudia

Donostia Kulturaren web generiko edo nagusia estreinatu berritan, 2023. urtean **Victoria Eugenia Antzokiaren zein Literaktum literatura-jaialdiaren webguneak berritu** ziren; biak dira goitik behera eguneratzen ari den erakundearen ekosistema digitalaren parte (10 webgune baino gehiagorekin); horrela, autonomia eta ikusgaitasun digital handiagoa hartzen dute Donostia Kulturaren markek. Proiektu bietan lortu zen erabilera-esperientzia gozagarriagoa, funtsezkoa dena, programazioaren berri jasotzeko bide hori erabiltzen baita kasuen % 60an; gainera, bilaketa-motor berriak txertatu ziren, azkarragoak eta seguruagoak.

Berria da **Liburu Dantza Blogaren** kanala ere. Donostiako Liburutegien sareak kudeatzen du, eta liburuak gomendatzeko kanala da.



ERRONKAK DESAFÍOS

STM
San Telmo Museoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

DK

donostia
kultura

Ekitaldi honetan, aipatzekoa da **bi irudi korporatibo berri** garatu direla ere. Alde batetik, San Telmo Museoaren **Erronkak** hausnarketa- eta eztabaida-ildo estrategikoa nortasun propioarekin indartu dute, Diego Zarrabeitia diseinatzailearen eskutik. Eta, bestetik, baita Jaien sailaren irudi instituzionala ere, TGA estudioak sortu duen logotipo berriarekin.

670.130 erabiltzaile izan zituen **webguneak 2023an**. Gainera, 1.620.450 web-saio ireki ziren, aurreko urtean baino % 16 gehiago. Eta **6,5 milioi web-orrialde kontsultatu ziren, % 8,5 gehiago**.

DK donostiafestak

Horrez gain, % **7ko igoerarekin, dagoeneko 40.769 lagun daude erregistratuta webgunearen bitartez**. Herritar horiek abantaila handienak dituzte Donostia Kulturaren zerbitzuetan eta programazioan. Pertsona horiek eta asteko agenda jasotzen duten 2.975 herritarrek osatzen dute erakundearengandik hurbileneko biztanle-multzoa.

Sare sozialetako presentziari dagokionez, 2023. urte amaieran **190.015** jarraitzaile zituzten Donostia Kulturak kanal ezberdinetan dituen ia 30 kontuek: X-en 81.174, Facebooken 59.902, Instagramen 46.127, Linkedinen 2.812. Datu horiek aztertuta, ikusten dugu 9.313 jarraitzaile gehiago lortu dituela erakundeak 2023an.

Azkenik, DK-k 2.240 harpidetzak gainditu zituen YouTuben eta, 2023an DK ON!-ek online bidez eskainitako edukien artean, San Telmo Museoaren **Erronkak** programako hitzaldiak eta eztabaidak eta Jazzaldiko kontzertuak nabarmendu ziren.



DK OFFLINE

Gainerako komunikazio-bide, promozio eta marketin-ekintzei dagokienez, 125 prentsaurreko egin zituen Donostia Kulturak 2023an (aurreko urtean baino % 16 gehiago), eta 116 literatura-aurkezpen. Hona hemen beste zenbait datu: 340 iragarki prentsa idatzian (% 11 gehiago), 226 txosten tematiko ireki, 124 newsletter bidali zituen (% 248 gehiago) eta 180 eskuliburu edo programa sortu (% 72 gehiago).



LARROTXENE BIDEO

2023an eraldatu egin da Larrotxene Bideo, ikasgelak zein ikus-entzunezko materiala eraberrituta. Horrela ospatu du **35. urteurrena** prestakuntza-gune honek. Larrotxenen hasi zituzten haien ibilbideak zinemagile eta ekoizle garrantzitsu ugari: **Moriartik, Michel Gaztambidek, Leire Apellanizek** eta **Pablo Malok**, esaterako. 2023an, **Oihua!** proiektuaren laugarren edizioa egin zen, bai eta **Bideoaldiaren** hamabosgarrena ere; urteko zinema-uzta ikusi ahal izan zen han. Prestakuntzari dagokionez, 70 ikaslek hartu zuen parte zineman espezializatutako egile-ikastaroetako batzuetan. Nabarmentzekoak dira, bestalde, **Learning by Doing** metodologia erabiltzen duen kontakizun digitalen **Medialab** proiektua, eta aholkularitza-zerbitzua; laguntza teknikoa eskatzeko 300 kontsulta jaso zituen zerbitzu horrek 2023an.

DONOSTIA KULTURA IRRATIA

Erakundearen irratia da Donostia Kultura Irratia, eta Casares Kultur Etxearen arima. Casares-Tomasene Kultur Etxetik emititzen du, FM 107.4 sintonian eta *streaming* bidez. 16 irratsaio ekoiztu ziren 2023an Donostia Kultura Irratian, eta beste 5 irratsaio ere eskaini ziren, kanpoan ekoiztutakoak. 44 podcast ere igo ziren (% 24 gehiago).

Hamaika Entzuteko! Irrati-piezen IX. Lehiaketan 9 proposamen jaso ziren, eta **Maider Uriarteren Kirikoketa** proposamenak irabazi zuen.



2023an, gainera, Donostiako Liburutegien sareak lan handia egin zuen Liburutegien Egunari begira, eduki-sortzaile gisa betetzen duten eginkizuna nabarmenduz. Eta, adibide bezala, lehen aipatu dugun **Liburu Dantza Bloga**.

Argitalpeni dagokienez, **Jabier Iraolak** idatzitako **Igeldoko historia eta istorioak** lana bultzatu zuen Donostia Kulturak, baita **Postal bat desertuan** poema-bilduma ere, **Julen Apella** berriztarrarena, Donostia Kulturaren VI. Poesia Sariaren irabazlea. Nosferatu bildumaren barruan, gainera, Euskadiko Filmategiarekin batera, **El polar francés 1931-1982** eman zuen argitara, **Antonio José Navarrok** koordinatuta.



DK TXARTELA

Komunikazio-aktibo garrantzitsua da. Komunikazio eta Marketin sailak kudeatzen du Donostia Kulturako bazkideen kluba, eta 2023an dagoeneko **121.539 lagunek zuten DK txartela**, aurreko urtean baino 4.478 gehiagok. Kolektibo horren leialtasuna eta erabiltzaileen gogobetetasuna, oro har, funtsezko alderdiak dira erakunderako; horrenbestez, Donostia Kulturak berak kudeatzen du sarreren aurrez aurreko salmentarako hiriko gune iraunkor bakarra. **Victoria Eugenia Antzokiko txartel-leihatila**, hain zuzen ere.

Horri dagokienez, 2023an mantendu egin ziren txartelak eskaintzen dituen abantailak, beste eragile batzuen hiriko kultura-eskaintzan ere deskontuak aplikatuz: **Zinemaldia, Dock of The Bay, Aquarium, BCC Basque Culinary Center**, etab.




2



2

3

DK
Bazkideak



Hastiera / Bazkideak / DK bazkide txartela

DK bazkide txartela

Aprobetxatu DK txartelaren abantailak eta hasi gozatzten!

Egin zanez bazkide



Abantailak

% 10eko deskontua sarreren erosketan eta dendan



Deskontuak ikusi

Deskontuak DK-k antolatutako ikastaroetan



Ikusi abantailak

- Doako mallegua Liburutegi sarean (Liburuak, filmak, CDak...).
- Bazkideentzako sarrera bikiltzen zozketa Donostia Kulturak antolatutako ekitaldietan.
- Deskontuak Donostia Zinemaldian (SSIF). Ikusi baldintzak.
- Deskontuak Basque Culinary Clubeko eta EHUko Udako ikastaroetan.
- % 10eko deskontuak Tabakalerako LABe jatetxean.
- Deskontuak museoetan: San Telmo Museoa, Aquariuma eta Chillida Leku.
- WiFi doan udal sare osoan.
- Jaialdietako jarduera eskusiboetarako gonbidapenak eta lehentasunezko sarbidea.
- Buletinak eta informazio pertsonalizatua zure e-mailean.

Egin zanez bazkide

DK Bazkideak

2023. urte amaieran, **121.539** bazkide zituen Donostia Kulturak, aurreko urtean baino **4.478 txartel** gehiagorekin. Bazkide horietatik % 60 emakumeak dira, eta % 76 Donostiako biztanleak. 45 eta 64 urte artekoen adin-tartea da nagusi, eta 30 eta 44 urte artekoena jarraian. Auzoen arabera, Amarak jarraitzen du izaten kultura-zerbitzuen erabiltzaile gehien duen barrutia (% 19); Amararen atzetik daude Gros (% 13), Antiguu-Ibaeta (% 11), Intxaurren (% 11) eta Altza (% 10).

Hau da Gipuzkoako klub handiena eta, bazkide-txartelaren bitartez, Donostia Kulturak herritar guztiei kulturaz gozatzeko aukera emateko duen nahia bideratzen da. Horren adierazgarri onenak dira udal liburutegien sareak duen erabilera handia (liburuak maileguan hartzeko erabiltzailea identifikatzeko balio du, besteak beste) eta programazio artistikoaren kasuan zaleen leialtasuna lortzeko ekintzak, hala nola zozketak, prezio murriztuak eta bestelako promozioak. Izan ere, **San Telmo Museoa, Victoria Eugenia Antzokiak, Antzoki Zaharrak, Imanol Larzabal aretoa, Intxaurren, Larratzok eta Gazteszenak** DK txartelaren bitartez kudeatzen dituzte publiko ezberdinengana hurbiltzeko haien estrategiak.

Bazkideen online atalean daude ikusgai abantaila guztiak. 2023an, dagoeneko **40.769 lagun zeuden erregistratuta**. Haiek dira erakundearen ekimenak ondoen ezagutzen eta bultzatzen dituztenak.



Izan ere, ikuskizunez gozatzeko abantailak izateaz gain, bazkideek gutxienez % 10eko deskontua dute ikastaroetan, argitalpenetan eta Donostia Kulturak sortzen dituen zerbitzu eta produktu guztietan. Txartelarekin, deskontu horretaz balia daitezke bazkideak **Tabakalerako Basque Culinary Center & LABe jatetxean, Zinemaldian, Musika Hamabostaldian, Chillida Lekun, Jazzaldian, Aquiriumean, San Telmo Museoan, Dock of the Bay jaialdian, Udako Ikastaroetan**, etab.



Bestalde, **San Telmo Museoak** ere abantaila gehiago eskaintzen ditu **STM&DK** txartel mistoarekin, hala nola museora doan sartzeko aukera eskaintzen du, inaugurazioetarako gonbidapenak eman, zozketak antolatu eta deskontuak aplikatu. Horiexek dira Donostiako museoari *laguntzeko* arrazoietakoa batzuk, orain inoiz baino gehiago.

Hona hemen Donostia Kulturako bazkideen gaur egungo mapa:



DK Bazkideak
121.539

Webgunean
erregistratutako
erabiltzaileak
39.294

Buletinak

Izena emandakoak

Agendak

Hileko agenda	39.759
Asteko agenda (bazkideak)	19.641
Asteko agenda (ez bazkideak)	2.918

Gaikako buletinak

Musika	16.645
Antzerkia	15.553
Dantza	9.587
Zinema	15.800
Literatura	9.704
Artea / Erakusketak	10.238
Festak	9.782
Haurrak	6.227
Pentsamendua eta gogoeta (2023 amaieran sortutakoa)	336




Donostia Kultura Bazkideak: Donostiarrak


Donostiarrak: **92.782 (%76,34)**

Ez donostiarrak: **28.757 (%23,66)**

Bazkide donostiarrak auzoka



Bazkideak adin-tartearen arabera




Bazkideak sexuaren arabera



72.740
EMAKUMEAK




48.799
GIZONAK



Bazkideen garapena 2014-2023

Urtero izena emandako bazkide berriak



Bazkide kopuruaren garapena azken hamar urteotan

2



2

3

San Telmo
Museoa

SAN TELMO

Museoa

Benetan positiboa da **San Telmo Museoa**ren 2023ko irakurketa. Bisitari kopuru handia izan zuen urte osoan zehar, eta oso nabarmena izan zen erakusketek izan zuten arrakasta, udakoek batez ere, bi erakusketa hauekin: ***Clima ideal***, ***Udako kartelak*** eta ***Margotzeko bidaiatu. Sorolla Donostian***. 50.000 bisita inguru izan zuen bakoitzak.

Gainera, arte historikoaren aretoaren birmoldaketarekin, berriro egin zen erakusketa iraunkorraren zati bat. Museoak jarraitu du genero-ikuspegia eta garaikidetasuna txertatzen, bai erakusketa iraunkorrean, bai museoaren lan-ildo guztietan, Erronkak atalean batez ere. Atal hau, bestalde, indarberriro egin zen, berariazko identifikazio bat sortuta.

Askotariko gaiak jorratu ziren 2023an, eta museoak denetarik publikoentzako jarduerak eskaintzen jarraitu zuen, dagoeneko oso finkatuta dauden ildoekin, hala nola +55 kultura-gidarien bisitekin –beste bi pertsona sartu dira lantaldean–, familia-tailerrekin eta Musikagileak zikloko kontzertuekin, baita artista-liburuaren inguruko topaketekin eta argazki-liburuaren programazioarekin eta zabalkundearekin ere, **Gabriela Cendoyaren bildumari esker**.

Sorkuntza garaikideak ere izan zuen bere lekua 2023an, batez ere erakusketen eta **Museo Bikoitza** eta **Artea abian** programen bitartez; **Hinrich Sachsek** eta **Mikel Otxotekok** hartu zuten parte programa horietan, eta dagoeneko ondorengo parte-hartzaileei pasa zieten lekukoa.



Clima ideal. Udako kartelak erakusketa



Arte historikoaren aretoaren birmoldaketa

Ondarea: bildumak eta dokumentazioa

Euskal kulturarekin eta gizartearekin lotura duten 255 objektu eta artelan eskuratu ziren 2023an, erosketa edo dohaintza bidez.

Tartean daude **Mari Paz Jiménez**en 44 margolan eta, besteak beste, **Estibalitz Álvarez**, **Juan Pérez Agirregoikoa**, **Esther Ferrer**, **June Crespo**, **Jesus Mari Lazkano**, **Miren Arenzana**, **Nestor Basterretxea**, **Jorde Oteiza** eta **Andrés Nagel** artisten lanak.

Urtean zehar, bildumako 24 pieza irten ziren museotik mailegu gisa, hainbat erakundek antolatutako aldi baterako 16 erakusketetara. San Telmo Museoa ekoiztutako edo museoan egindako aldi baterako erakusketetan parte hartu zuten piezak gehitu behar zaizkie aurrez aipatutakoei. 80 akuarela, marrazki eta argazki jarri ziren ikusgai **Amable Arias banbalinetan** erakusketan; eta 63 pieza -batez ere kartelak, zirriborroak eta liburuxkak- **Clima ideal. Udako kartelak** izenburuko erakusketan; **90 berriak** erakusketan, berriz, hainbat egileren 17 lan ikusi ahal izan genituen, eta hiru margolan, **Margotzeko bidaiatu. Sorolla Donostian** erakusketan.

Gordailuan, bestalde, ohiko lanez gain -hau da, erregistro-lanak egin, eskuratutako bildumak egokitu, bildumei argazkiak egin, aurrez aurreko kontsultak erantzun eta mailegu bidez lagatako

bildumak edo museoko erakusketa iraunkorrerako lagatakoak mugitu-, **Koch Arruti** Funtsaren 2.350 diapositiba eta **Antton Elizegi** Funtsaren 5.890 argazki erregistratu ziren.

Bestetik, EMSIME sistemaren webgune publikoko museoaren bildumen katalogoan handitu egin zen herritarrentzako ikusgai dauden erregistroen kopurua; 11.116 daude ikusgai orain.

Kanpo-kontsultako zerbitzuari dagokionez, dokumentazioa sortu zuten 90 kontsultari baino gehiagori erantzun zitzaion, eta irudiak erreproduzitzeko 50 eskabideri baino gehiagori. Museoaren beraren funtsak jasotzen zituzten eta **San Telmon** bertan egin ziren erakusketen behar dokumentalei erantzuterako orduan, bereziki zorrotzak izan ziren dokumentazioko barne-kontsulta eta -zerbitzua; horixe izan zen **Amable Arias banbalinetan, 90 berriak** eta **Margotzeko bidaiatu. Sorolla Donostian** erakusketen kasua. Eta, batez ere, erakusketa iraunkorraren eta **Clima ideal. Udako kartelak** erakusketaren behar dokumentalei eta arte historikoaren aretoen aldaketa kudeatzeko beharrei erantzuterako orduan; erakusketa horretan, **San Telmo Museoa** beraren 90 pieza zeuden, bildumako piezen eta liburutegiaren material dokumentalaren artean, eta beste erakunde eta partikular batzuei maileguan eskatutako 200 pieza baino gehiago.



Mari Paz Jiménez margolanak eskuratzea



Asier Pérez eskuratzea © Oskar Moreno

Ondarea: kontserbazioa eta zaharberitzea

Kontserbazioari dagokionez, museoan bertan zein Gordailuan egiten diren prebentziozko ohiko kontserbazio-lanez gain, ondorengo proiektuak burutu ziren 2023an:

Alde batetik, Ondare atalak hartu zuen bere gain **Clima Ideal** kartelen udako erakusketa kudeatzeko ardura; horretarako, kontserbaziorako eta zaharberritzerako sailak kudeatu zuen 270 kartel eta liburuxkak Gordailuan kontzentratzearekin, eta haien prebentziozko kontserbazioarekin, zaharberritzearekin eta markotan ipintzearekin zerikusia zuen gutzia.

Bestalde, erakusketa iraunkorraren arte historikoaren aretoa eraberritzeko egitasmoan, sail hori arduratu zen piezak behin-behinekoz **San Telmo Museo** barruko beste espazio klimatizatu batera eramatea kudeatzeaz, baita piezak enbalatzeaz eta lekualdatzeaz ere, Gordailuaren biltegietan zeuden beste batzuek trukatzeko, eta gaur egun ikusgai dauden 101 piezen kontserbazio-baldintza egokiak ezartzeaz.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da berezia izan zela **Ortiz Echagueren Fiesta de la Cofradía de Atzara** margolanaren Gordailutik San Telmorako lekualdaketa; 268 x 436 x 7 cm-ko pieza da, eta **San Telmoko** edozein bao baino handiagoa izanik, beharrezkoa izan zen operatibo berezi bat antolatzea. Desmuntatu eta biribilkatu egin behar izan zen mihisea espazio berrira eramateko, eta berriro muntatu eta, *in situ*, berriro markoa ipini.

Aldi berean, eta **Ignacio Zuloagaren** bi obra handi Alemaniako **Mythos Spanien** erakusketarako laga zirenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak lagatako **Elcano** obra jarri zen aldi baterako, eta kontserbaziorako eta zaharberritzerako saila arduratu zen hiru margolan handi horien enbalatze-, lekualdaketa- eta muntaketa-lanak gainbegiratzeaz.

Halaber, **Ibon Aranbarriren Itzal Marra** lana Reina Sofia Museora eramateko eta muntatzeko lanak gainbegiratzeaz eta prozesu horretan laguntzeaz ere arduratu zen saila.



Zaharberitzea

Kontserbazio eta segurtasun arrazoiak tarteko, **Cristina Brunetti** Mandasko Dukeren margolana Cristina Enea Fundazioaren Interpretazio Zentrotik Udal Liburutegira eraman zen, Mandasko Dukearen aretora, hain zuzen ere.

Zaharberritze-lanei dagokienez, **Clima Ideal** erakusketako eta Arte Historikoaren Aretoko obrak prest jartzeaz eta zaharberritzeaz gain, behin betikoz eraman zen Gordailura **Pablo Urangaren El entierro de Elgeta/Elgetako ehorzketa** margolana, Euskal Herriko Unibertsitateak zaharberritu duena, erakunde bien artean sinatutako lankidetzak-hitzarmenari esker.

Eraberritu egin zen gaur egungo Udal Liburutegian dagoen igogailua, 1927koa, **Jose Pagaldayren** lana; zoru berria jarri behar izan zitzaion, lehengoa berreskuratu ezineko baldintzetan baitzegoen.

XIX. mendeko kalesa bat, **Henri Achille Zo** artistaren **Bravo Toro** margolana -Kordobako zezenketa museora eraman zen- eta P-000747 erretratu militarra ere eraberritu ziren, besteak beste.



Margotzeko bidaiatu. Sorolla Donostian erakusketa

Aldi baterako erakusketak

Dagoeneko abian zeuden hainbat erakusketekin hasi zen urtea; horrela, urtarril amaierara arte bisitatu ahal izan ziren **Indésirables. Bonbardaketatik esparrura. Erbesteratzearen ibilbideak; Women are beautiful; eta Alef. Amable Arias banbalinetan** izan zen 2023an inauguratu zen lehenengo erakusketa; Laborategian aurkeztu zen, **Maru Rizok** museoari dohaintzan emandako Antzoki Zaharra saileko akuarelen aukeraketa batekin. 10.000 lagun inguruk bisitatu zuen erakusketa eta, horrela, espazio horretan orain arte bisitari gehien jaso dutenetako bat izan da.



Alef erakusketa © Gorka Estrada

90 berriak erakusketa, berriz, martxo hasieran inauguratu zen, eta 80ko hamarraldiaren amaieran, 90eko hamarraldian eta milurteko berriaren hasieran lan egin zuten hainbat kolektibo artistikotara hurbildu gintuen. Kultura-ekosistema hura babesten eta transmititzen lagundu zuen erakusketak, 146 sortzaile eta kolektiboren parte-hartzearekin.

Euskal dantzetako jantziak izan ziren protagonista **Dantzaz ele** erakusketan; kolorez bete zuen Museoko klaustroa Aste Santuko oporraldian, Ipar Euskal Herriko lau festa ezagunetako tradizioak berreskuratuz.

Udan aurkeztutako hiru erakusketek izan zuten arrakasta nabarmena, bisitarien kopuruari dagokionez. **Joaquín Sorolla** hil zeneko mendeurrena gogoratzeko ekintzen barruan, **Margotzeko bidaiatu. Sorolla Donostian** erakusketa iritsi zen Museora; *argiaren pintoreak* udan Donostian egiten zituen egonaldietan egindako obrak ezagutu ahal izan ziren. 50.000 bisita inguru jaso zuen erakusketak.

Bizikletak. 150 urte izan zen beste erakusketa nabarmen bat. Frantziako Tourra Euskaditik abiatzen zela eta, museora ez-ohiko publikoa joan zedin lagundu zuen erakusketa horrek. Hilabete eta erdian, 25.000 bisita inguru izan zuen.

Baina, zalantzarik gabe, **Clima ideal. Udako kartelak** izan zen 2023ko erakusketa arrakastatsuena, 50.000 bisita baino gehiagorekin eta balorazio oso onekin. Ilustrazioaren eskutik, Donostia, Gipuzkoa eta udako ekitaldi ugari ezagutzera emateko zegoen gaitasun grafikoa aztertzen zuen erakusketak.

Museo Bikoitza programak, bestalde, **Iratxe Jaio** eta **Klaas van Gorkum** bikote artistikoaren **Paperezko inperio baten atlasa** instalazioa, eta **Hinrich Sachs** artistaren **Ez du pausorik debalde ematen** lana ekarri zizkigun. Erakusketa iraunkorrean aurkezten da azken hori, 2024ra arte.

Laborategira eraman zuen **Mikel Otxotekok** ere bere proposamena, **Hemen dragoiak daude**. Artista horrek **Artea abian** programaren 2023ko edizioan parte hartu zuen. Kutxa Fundazioarekin lankidetzan garatzen den egitasmoaren laugarren edizioa izan zen dagoeneko.

Urtea amaitzeko, **Garuna(k)** esposizioa inauguratu zen. Gorputzeko organo liluragarri horri buruzko artista garaikideen artelanak eta proiektu zientifikoak batu zituen erakusketak, eta 2024ko apirilera arte dago ikusgai.



90 berriak erakusketa © Oskar Moreno



Bizikletak. 150 años erakusketa



Clima ideal. Udako kartelak erakusketa



Hemen dragoiak daude erakusketa



Dantzaz ele erakusketa © Iker Azurmendi

Jarduerak

Artistekin, komisarioekin eta ikertzaileekin egindako topaketek aldi baterako erakusketen dimentsioa zabaldu zuten, begiradak ikuspegi ezberdinetatik osatuz. Erakusketen egitarauaren aniztasun tematikoa zela eta, gai artistikoak **-90 berriak, Banbalinen artean, Clima ideal-** eta gai historiko edo sozialak **- Indésirables, Dantzaz Ele-** konbinatu ziren.

Ondarearen inguruko jarduerak izan ziren museoaren bildumak ezagutzera emateko programazioaren oinarrietako bat, bai eta ondarea sakonago ezagutzera bideratutako diziplinak ere. Urtero bezala, Aranzadi Zientzia Elkartearen Arkeologia eta Etnografia Jardunaldietan kolaboratu zuen museoak, eta sentsibilizazio-kanpainetan ere hartu zuen parte, ohi bezala, hala nola *Ondarearen Europako Jardunaldietan* eta *Errota Egunean*. Izan zuen oihartzunagatik, guztion ondarea den Euskararekin lotuta azkenaldian egin diren aurkikuntza garrantzitsuenetako batek izan zuen zabalkundea nabarmendu behar dugu: **Irulegiko eskua**. Xumeagoak, baina garrantzitsuak ere izan ziren merkataritza tradizionalaren, euskarazko musika-sorkuntzaren eta emakumeek industriari izan duten migrazio historikoaren inguruan egin ziren jarduerak.

Sorkuntza garaikidea eta, garaikidetasunetik, ondarearen berrirakurketa sortzailea bultzatzeko proiektuak dagoeneko finkatuta dauden lan-ildoak dira, eta aurrez aipatutako sentsibilizazio- eta zabalkunde-lanaren osagarri izan ziren. Programa horietako batzuek, kontzeptuari eta formatuari dagokionez diziplina ezberdinen artean zebiltzan diskurtso berriak planteatu zituzten; begirada berri harrigarriak eta gizarteko askotariko sentsibilitate eta interesetara hurbiltzeko aukera eman zuten formatuak.

Nabarmentzekoak dira, besteak beste, Bitamine Faktoriarekin lankidetzan antolatutako **Hau**. **Euskal Herriko objektu tradizionalen diseinu-lehiaketan** proposatutako sehaska tradizionalaren berrinterpretazioa, eta **Remigio Mendibururen** Txalaparta piezaren berrirakurketa musikala, **Musikagileak Musika Garaikidearen Zirkuituaren** 2023ko edizioaren barruan proposatutakoa. Interesgarria izan zen **Egiletza, gorputza eta generoa sorkuntza artistikoan** gaiari buruzko zikloa ere,



Musikagileak



Zinemaldia



HAU Euskal Herriko objektu tradizionalen diseinu-lehiaketa

Euskal Herriko Unibertsitateko ikerkuntzako lantalde batekin lankidetzan antolatutakoa, eta hainbat arte-diziplina jorratu zituen, irakurketak eta konexioak sortuz.

Museoak ikaskuntza ez formalerako eta kultura-aisialdirako baliabide gisa dituen aukerak esploratzen jarraitu zuen. Adibidez, familian eta modu ludiko eta intuitibo batean sormena lantzeko hainbat proposamen. Harrera bikaina izan zuten. Hor dugu **San Telmo Gaua** ekimena ere, museora ez-ohiko testuinguru batean hurbiltzeko aukera eman zuena, eta hiriko kultura-eskaintzaren barruko jardura erakargarria suertatu zena.

Museoak bere ingurunean duen errotzeari dagokionez, hiriko jaialdiekin lotura izaten jarraitu zuen **-Musika Hamabostaldia, Jazzaldia, Zinemaldia...** eta, 2023an, baita **dFeria** eta **Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astearekin** ere-, eta beste erakunde batzuekin lankidetzan jardun zuen, hala nola **Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolarekin** eta **Francisco Escudero Kontserbatorioarekin**.

Ez ziren falta izan behar bereziak dituzten kolektiboek zuzendutako ekimenak ere; hain ezagunak ez diren arren, funtsezkoak izan ziren **San Telmok** herritarren zerbitzura duen eginkizun sozialean. Museoko sail ezberdinak arduratzen dira eginkizun horretaz.



Musika Hamabostaldia



Jazzaldia

ERRONKAK DESAFÍOS

Erronkak

2023an indartu egin zen **Erronkak** lan-ildoan, museoaren jardueren artean identifikatzeko irudi bat sortuta, erakusketa iraunkorrera ere hedatu zena. Beste erakunde batzuekiko lankidetzara ere ezagutarazi nahi izan zen; euskal gizarteari interesatzen zaizkion gaiari buruzko kalitatezko programak prestatu zituen museoak erakunde horiek.

Ohikoa den bezala, museoaren **Erronkak** programaren programazio-ildoan, gai garrantzitsuei buruzko eztabaidak egin ziren, hala nola klimalarritasunaren gaia landu zen Donostiako Udalarekin eta Cristina Enea Fundazioarekin lankidetzan antolatutako **Agora K2050** zikloaren barruan, baita giza eskubideen inguruko alderdiak, emakumeak Afganistanen eta adierazpen-askatasuna ere, Euskal Herriko Unibertsitatearekin egindako Giza Eskubideei buruzko Ikastaroaren barruan.

Globernance institutuarekin lankidetzan antolatu ohi den **European Dialogues** zikloaren barruan, Ukrainako gerraren gaiari heldu zitzaion, ikuspegi militar eta geopolitikotik. Feminismoari dagokionez, eta Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan, hainbat arlotan sortu ziren feminismoaren aurkako erresistentziak aztertu ziren urtean zehar egindako zenbait saiotan.

Jakiunderekin batera antolatutako zikloan, immigrazioari, kultura-aniztasunari eta hezkuntzari buruzko gaiak eztabaidatu ziren, eta antropologia,



Erronkak

psikoanalisi eta literatura bezalako gai ezberdinek eta erakusketekin lotutako jarduerak osatu zuten interes handikoa suertatu zen programa. 2023an, gainera, jarraitutasuna eman zitzaion aurreko urtean, DIPC zentroarekin batera, hasitako neuroteknologiei eta horiek medikuntzan izan ditzaketen aplikazioei buruzko zikloari; eztabaidamahi batekin eman zitzaion amaiera, gaia diziplina ezberdinetatik aztertuz.

Azkenik, **Erronkak** programaren barruan, eta urrian migrazioei buruz egin zen zikloarekin batera, **Gari Garaialde** argazkilariaren **Eta bidean... Irun** erakusketa egin zen, espazio gastro-kulturaletik gertu.

Hezkuntza

Hezkuntzaren arloan, irakasleei, aisialdi-taldeei, talde sozialei, turistei eta beste kolektibo batzuei zuzendutako bisita gidatuak egin ziren.

2023an, 9.357 lagunek hartu zuen parte museoan egin ziren bisita gidatuetakoren batean, 2022an baino gutxiagok.

Askotariko bisitariak izan zituen museoak, baina ikasle-taldeak izan ziren Museora etorritakoen gehienak. Neurri txikiagoan bada ere, talde sozialak edo gizarteratze-ekimenetako kolektiboak, turismo-enpresak, erakundeak eta haien kabuz etorritako taldeak ere izan ziren.

Urtean zehar, hiru kanpaina egin ziren hezkuntza-buletinaren bitartez, urtarrilean, maiatzean eta urrian, hain zuzen ere, hezkuntza-eskaintza, aldi baterako erakusketak, jarduerak eta gazteentzako eskaintza ezagutzera emateko helburuz.

Indésirables eta **90 Berriak** erakusketen kasuan, hitzaldiak eskaini ziren, eta modu aktiboan hartu zuten parte ikasleek. Erakusketa iraunkorrean ere eskaini ziren era horretako bisitak, **Zatoz Zugana**. **Bisita solasaldia** ibilbidean.

Udan, lehen hezkuntzako ikasleak egon ziren **Clima Ideal** erakusketan, aisialdi-taldeekin.

Koloreen Artistek gozatu egin zuten erakusketaz. Halaber, erakusketa hori izan zen Antiguu Luberri ikastetxeko batxilergoko ikasleen proiektuaren gai nagusia.



Eskolako bisita gidatuak



Azpimarratzekoa da ikasleek (unibertsitateko eta eskola espezializatuak) **ALEF** Laborategira eta **Lola Garrido** bildumako **Women are beautiful** erakusketara egin zuten bisita ere. 126 lagun joan ziren guztira.

Aurreko urteetan bezala, ikasturte honetan ere hezkuntza-proposamenaren 10 ibilbide nabarmendu ziren, irakasleei hautaketa-lana errazteko. Hezkuntza-programa horiek euskal gizartearen garapena eta historia hurbiltzen dute, bi ikerkuntza-arloren eskutik: artea eta historia.

Museoaren hezkuntza sailak, gainera, Talde Sozialak egindako lana nabarmendu zuen, bisita gidatuko eta prestakuntzako espazioak eskainiz (SOS Arrazakeria).

San Telmo Museoaren liburutegia eta Dokumentazio-zentroa

2023an nabarmen gehitu zen **San Telmo Museoaren** liburutegia erabiltzeko interesa azaldu zuen pertsona kopurua. Funts bibliografikoak kontsultatzeko zein argazki-liburuen bildumaz gozatzeko, % 35 erabiltzaile gehiago izan zuen zentroak. 3.000 lagunek baino gehiagok bisitatu zuten; aurreko urtean, berriz, 2.055 lagunek.

In situ kontsultez gain, partikularrei zuzendutako zein liburutegien arteko mailegu-zerbitzua ditu liburutegiak. Maileguei dagokienez ere, aurreko urtean baino zifra hobekak lortu ziren kasu bietan.

Argazki-liburuen Euskadiko erreferentziatzko zentroa den aldetik -publikoa eta doakoa-, **Gabriela Cendoyaren** bilduma jendartean ezagutzera emateko helburuarekin jarraitu zuen. 3.200 ale inguru ditu dagoeneko, eta katalogatuta egoteari esker, Euskadiko Irakurketa Publikoaren sareko katalogoan eman ahal izan ziren ezagutzera. Helburu horrekin, argazkilariek haien lanak erakusteko erabiltzen duten formatu horren inguruko programazio egonkor bati eutsi zitzaion, eta artistak gonbidatu genituen, haien argazki-liburuak erakustera etor zitezen eta haien proiektuaren jatorriari, zalantzei, diseinuaren inguruko erabakiei, enkoadernatzeari eta argazkiak orrian jartzeari buruz hitz egin ziezaguten. Honako artista hauek izan genituen liburutegian: **Daniel Blaufuks, Camilla de Maffei, Vicente Paredes, Mariela Sancari, David Salcedo, Maritxel Ahicart, Eneka Fernández, Ainhoa Resano, Julieta Averbuj** eta **Joan Fontcuberta**.

Aurreko urteetako zifrekin alderatuta, nabarmen handitu zen argazki-liburuekiko interesarekin etorri zen pertsona kopurua. Bildumara egin ziren bisita indibidualez gain, aurten Museoko argazki-liburuak ezagutzera etorri ziren Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko fakultateko ikasleak, eta berariaz Museoko bildumaz gozatzera ere etorri ziren, Bartzelonako El observatori ikastegitik, Diseinuko Kunsthal (Bilbo) Black Kamera (Bilbo) eskoletatik ere, besteak beste. Orduz berezian ireki zitzaizen guztiei liburutegia, haien eskoletarako agertoki modura erabil zezaten, lan horiez inguratuta.

Halaber, liburutegia izan zen elkartzeko gunea Donostiako PhotoBook Klubaren 2023ko hainbat saiotan; sarri bisitatzen dute museoaren bilduma klubeko kideek.

Argazki-liburuen bildumaren zati batek bidaiatzeko aukera ere izan zuen, hainbatek eskatu baitzuten maileguan, hala nola Azkoitiko Dinamo Sormen Guneak; tailer batzuetan ikasleek zuzenean erabiltzeko ere eskatu zizkiguten ale batzuk.

Bestalde, liburutegiak koordinatu zituen **Artista Liburuei buruzko VIII. Topaketak**; hirugarren urtez jarraian egin ziren elizan; arrakasta izan zuten publikoari dagokionez, eta pozik azaldu ziren antolatzaileak zein erakusketariak. 1.000 bisitari inguru etorri ziren erakusketa ikustera eta programatutako jardueraren batean parte hartzera. 2023ko edizioan, **Ricardo Ugarte** eskultorea eta **Julia Otxoa** idazlea izan ziren artista gonbidatuak; biek sortu zituzten artista-liburuak, espresuki museoan erakusteko.

Bestalde, dokumentazio-zentroak museoaren bildumei eta erakusketei bibliografiari eta dokumentazioari dagokionez laguntzeko eginkizunarekin jarraitu zuen. Adibidez, liburutegian gordetzen diren hamar bat liburuxka erabili ziren **Clima ideal** erakusketan, eta beste hainbat **Margotzeko bidaiatu. Sorolla Donostian** erakusketan. Beste lan-ildoetako bat



izan zen batez ere Donostiako arte-galerietako (Echeberría eta Dieciseis galeriak) eta artisten edo artearen munduan inplikaturako pertsonen (Maya Aguiriano, Mari Paz Jiménez) dokumentazioa biltzea. Kasu horietan guztietan, dohaintza modura iritsi ziren agiriak Museora, eta denak katalogatu ziren, ikertzaileen eskura jartzeko.

Museoan egindako erakusketa guztiek izan zuten zegokien gida bibliografikoa liburutegian, gaian sakondu nahi zutenen eskura.

Hiriko ehun urtetik gorako saltokietan bideoak grabatzeko orain dela 10 urte hasitako proiektua ere eman zen ezagutzera. **Historiadun komertzioak** jardueraren harira, editatutako hamarren bat bideo jarri ziren museoaren Youtubeko kanalean; bideo horietan, hirian merkataritzak eta kontsumoak izan duten bilakaera ere islatzen da.



Artista-liburuari buruzko topaketa

Argitalpenak

Papereko bost argitalpen egin zituen museoak 2023an, guztiak ere aldi baterako erakusketekin edo museoaren bildumekin lotutakoak. **Amable Arias banbalinetan**; **Alef**, **Kimia Kamvarirena** eta **Hemen dragoiak daude**, **Mikel Otxotekorena** -biak ere **Artea abian** programaren barruan-, **Clima ideal** eta **90 berriak**. Halaber, **Sorollaren** katalogoari eranskin bat prestatu zion museoak, euskarazko testuekin. Azkenik, Miaka ikerkuntza-koadernoaren ale berri bat ere argitaratu zen. Formatu digitalean dago, eta webgunean dago hura jaisteko aukera.



Urgull

Urgull Mendiko monumentu-multzoak Donostiako ondarea eta historia ezagutzeko aukera eman zuen. Mendiko ondare-elementuak hiriaren iraganaren lekuko dira. Monumentu-multzoa, gainera, leku pribilegiatuan dago, eta egungo hiriaren ikusmira bikaina eskaintzen du. **Donostiari begira** erakusketak osatu zuen eskaintza -De la Mota Gazteluko garai bateko koarteletan egin zen-, hiriaren historiari egindako erreparosarekin, modu hurbilean eta atseginean kontatuta.

2023an, murriztu egin zen museoa irekita egon zen egun kopurua, eta aldaketak egin ziren, bisitaren kalitatea hobetzeko helburuz; besteak beste, terrazara sartzeko ordutegiak eta txandak ezarri zituzten. Ondorioz, murriztu egin zen erakusketatik igaro zen pertsona kopurua ere; 80.000 bisitari inguru egon ziren.



© Oskar Moreno



© Oskar Moreno



© Oskar Moreno



Komunikazioa

2023. urtean, komunikazio sailak publikoarekiko harremanetarako eta, prentsa-oharren, publizitatearen eta promozio-ekintzen bitartez, museoaren proiektuak eta jarduerak ezagutzera emateko kanalak irekita mantentzeko lanean jarraitu zuen.

Aipatzekoa da aurten irudi bereizgarria sortu dela **Erronkak** lan-ildorako; horrela, 12 urtetako ibilbidea indartu eta museoaren alderdi guztietan begirada garaikidea ikusgarriago egin nahi izan da.

Urte osoan zehar garatu zen beste lan bat izan zen webgunea analizatzea eta birplanteatzea, laster hura eraberrituko baita.

Museoko hitzaldi gehienen eduki digitalen eskaintzari ere eutsi zitzaion. Horrela, askotariko gaiet buruzko hitzaldi-gordailu interesgarria sortzen joan zen museoa, publikoaren eskura dagoena.

Urtean zehar, 21 prentsaurreko eskaini zituen museoak (aipatzekoa da intereseko gaiekin eta proiektuekin lotutako beste aurkezpen batzuk ere egin zirela, beste erakunde batzuen eskutik), eta 20 prentsa-ohar bidali zituen.

192.000 bat lagunek erabili zuen webgunea, eta handitzen joan zen sare sozialetako jarraitzaileen kopurua; 24.000 jarraitzaile baino gehiago ditu museoak gaur egun.

Bestalde, 7.500 lagunek baino gehiagok jaso zituzten museoak bere programazioari, bazkideentzako abantailei, hezkuntza-proposamenei eta familientzako jardueretarako buruzko informazioa emateko bidalitako buletin elektronikoak.

Publizitateari dagokionez, publizitate-iragarkiak eta spotak sartu zituen museoak komunikabideetan, batez ere museoaren babesle edo enpresa ongile diren komunikabideekin egindako lankidetzak-hitzarmenen bitartez -EITB, El Diario Vasco, Berria, Noticias de Gipuzkoa, Gara, Naiz, Hamaika Telebista, Argia- eta, batik bat, aldi baterako erakusketetarako eta bazkide-kanpainen zabalkundea emateko. Halaber, komunikabide espezializatu eta orokorretarako publizitate-plan bat egin zuen, ikus-entzule potentzialen artean bere jardueraren zabalkundea areagotzeko.



Buletin elektronikoa

2



2

3

Kultur
Etxeak

Kultur Etxeak

Kultur etheen sarea herritarren topalekua eta auzoen eta hiriaren agendetan erreferentzia da. Udal zerbitzuen eskaintza zabala kudeatzen dute, kultura-diziplina ugari programatzen dute, eta askotariko festetan parte hartzen dute. Herritarrengandik hurbil daudenez, tokiko ekimenak eta sorkuntza eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak bultzatzen duten lehenengoak dira.

Hainbat urtetako pandemiaren ondoren, berriro finkatzeko eta normaltasunera itzultzeko urtea izan zen 2023a. 2019koen antzerako kopuruetara itzuli ziren, eta bertan behera edo oso mugatuta gelditutako egitarauak eta ekitaldiak berreskuratzeko beharrezko baldintzak eman ziren.

Loiola eta Ernest Lluch Kultur Etxeek koordinatzen duten **Argiarlean** ekimenak, esaterako, jendez bete zituen memoriaren parkea eta lesu eliza, udako asteburu batean ospatu ziren argilanei eta kontzertuei esker. **Donosti Apainek**, Intxaurren Kultur Etxeak antolatuta, kolorez bete zuen Bidebieta auzoa, auzoko lekurik enblematikoenetan egindako lau horma-irudi berriei esker. Egia Kultur Etxeak koordinatzen duen **Glad is the day** jaialdiak ere aurrera egin zuen, euriak baldintzatuta, eta, Dabadaba eta Le Bukowski aretoekin jaialdia berrantolatu ondoren, entzulez bete ziren bi aretoak. **Poltsiko Antzerkiak** berriro izan zuen harrera oso ona, tabernetan herritarrak entretenitzeko eta harritzeko helburuz. **Literaktum** literatura-jaialdia ere itzuli zen, **Maitasunaren geografiak** leloarekin, eta inoizko jende-kopuru handiena erakarri zuen.



Musikagela Weekend, Rumbling Lips



Waves, David Alcorta © Iñaki Rubio

Kultur etxeetako ikastaroei dagokienez, zerbitzurik arrakastatsuenak eta eskatuenak dira, eta orain arteko zifrarik onenak lortu zituzten 2023an. 930 ikastaro eskaini ziren, guztira, eta 8.927 lagunek egin zituzten ikastaroak urte osoan zehar.

2023a oso urte berezia izan zen Larrotxene Kultur Etxerako. Larrotxene Bideoko ikus-entzunezko materiala eta ikasgelak eraberritu ondoren, ikasleentzako zein irakasleentzako etapa berri bati ekin zitzaion, bederatzi hilabetez itxita egon ondoren. Larrotxene Bideoko ekipoak eta instalazioak eraberritzeaz gain, irisgarritasun-baldintzak ere hobetu ziren: igogailu berria jarri zen, oztopo arkitektonikoak kendu eta komunak egokitu.

Altza auzoan, Casares-Tomasene Kultur Etxeko **DK Irratiak** erabiltzaile eta entzule gehiago lortzen jarraitu zuen, podcasten formula orokortzeari esker; **Ispilu Beltza** kultura-magazinak jarraitu zuen Donostia Kulturaren irratiko irratsaio arrakastatsuen izaten.

Arte eszenikoek berriro bete zituzten kultur etxeetako aretoak. Horrela, musikari dagokionez, **Dklubaren** zirkuituko gune nagusia den Intxaurrendoko Kultur Etxea kontzertuen eta jaialdien ohiko programazioarekin itzuli zen eta, ohi bezala, tokiko taldeen aldeko apustua eta musikari ezagunen emanaldiak konbinatu zituen. Lugaritz Kultur Etxeak erritmo eta folklore ezberdinen aldeko apustua berreskuratu zuen, eta Larratxoko Kultur Etxea Heavy Metal jaialdien eskaintzarik onenarekin itzuli zen.

Zirkoarekin batera, dantza-zirkuituak izan ziren Gasteszenako emankizunik erakargarrienak, Egiako Kultur Etxearen eskutik.

Ernest Lluch eta Okendo Kultur Etxeek - hirigunetik hurbilen daudenak- hitzaldi eta erakusketa bikainak eskaini zituzten berriro ere; hainbat gai jorratu zituzten urte osoan zehar.

Aieteko Kultur Etxeak ere proposamen interesgarriak egin zituen, ilustrazio erakusketak, esaterako, Ilustratzaileen Txokoan, eta Loiolako Kultur Etxeak arte-terapiako erakusketa hunkigarria aurkeztu zuen, Martuteneko espetxean preso dauden emakumeen lankidetzarekin.

Gizartearen unean uneko errealitatera eta baldintzetara egokitzeko gaitasuna izan zen kultur etxe hauen eguneroko lanaren adibiderik onena; uneoro herritarrekin kontaktuan dauden ekipamenduak dira, eta bestelako begirada bat eskaini zieten hiriko kultura-programazioei.

2023an, 897.500 bisita jaso zituzten kultur etxeek, ia 6.000 jarduera antolatu ziren, eta 270.000 lagunek hartu zuen parte jarduera horietan.

Ikastaroak

Kultur Ekintzaren programazioaren barruan, kultur etheen prestakuntza-eskaintza da urtez urte onarpen handiena duten programetako bat. 2023ko aldian (2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetan)

Donostia Kulturak

antolatutako 935 ikastaro

eskaini ziren, aurreko urtean baino **59 gehiago**, formatu ezberdinekoak iraupenari, gaiei eta publikoei dagokienez. Garrantzi berezia eman zitzaion euskarazko ikastaroak sustatzeari. **8.873 lagunek** egin zituzten ikastaroak 2023an, eta aipagarria da horietako **% 75 emakumeak** izan zirela.

2023-2024 ikasturterako matrikulazio-kanpainari dagokionez, hauexek izan ziren berritasun garrantzitsuenak:

Matrikulazioa bi fasetan:

euskarazko ikastaroetako matrikulazioa irailaren 4tik 14ra, eta espainierako ikastaroetarako matrikulazioa, berriz, irailaren 18tik urriaren 1era.

Belarriprest eredia aplikatu zen hainbat ikastarotan; eredu horretan, euskaraz hitz egin dezaten gonbidatzen dira ikasleak, nahiz eta euskara-maila xumea izan, betiere lankidetzagiro batean.

SGAE Fundazioaren

kolaborazioa **Musikagela zerbitzuarekin** zerikusia zuten ikastaro batzuetan, fundazioaren **Musikatik At** prestakuntza-programaren barruan.

Bi fase dituen kanpaina berri horretan, **matrikulazio-errekor berria** ezarri zen: **6.300 lagunek eman zuten izena**. Azkeneko urteetako datuen arabera, 2019-2020 ikasturtera jo behar dugu azkeneko errekorra aurkitzeko; 5.544 matrikulazio izan genituen orduan, eta soberan gaingitu da aurten zifra hori.

Nabarmentzekoa da euskaraz izan zirela eskainitako ikastaroen % 53,

eta espainieraz % 47. Euskarazko ikastaro gehiago eskaini izanak libre utzi zituen espainierazko ikastaroetako hainbat plaza, eta ikasle berri gehiago egon zen guztira. Beraz, bikoitza izan zen kanpaina-eredu berriari esker lortutako onura.

Generoari dagokionez, emakumeak izan ziren matrikulatutako pertsonen % 75, 2022. urtean bezala.

Kultur etxeetako KZguneek, bestalde, 384 ikastaro eskaini zituzten, eta ia 2.000 lagunek hartu zuen parte ikastaro horietan. KZguneetan beste erakunde batzuek eman zituzten ikastaroek ere harrera ona izan zuten,, 2.795 lagunen parte-hartzearekin. Aipatzekoa da kasu bietan emakumeak izan zirela erabiltzaileen bi heren baino gehiago.

Azken batean, programazio zabala, bizia eta askotarikoa da, hiriaren egungo beharrei erantzuteaz gain, modu aktiboan entzuten duena eta, urtez urte, eskatutako diziplinak gehitzen dituen eta proposamen berriak egiten dituen.

**IKAS
TARO
AK
CURSOS**

Poltsiko Antzerkia

Kultur etxeek **Poltsiko Antzerkia** jaialdiaren 32. edizioaren balorazio positiboa egin zuten, antolaketari zein herritarren erantzunari dagokienez.

Maiatzaren 4tik 21era ospatu zen, eta **2.700 ikusle inguru** izan ziren formatu txikiko antzezlanaz gozatzen.

Entretenezko eta harritzeko helburuz, 2023ko edizioako programazioak antzerkia, umorea, magia, bentrilokia, mentalismoa, monologoak eta musika ekarri zizkigun. Edizio guztietan bezala, gainera, bi hizkuntza ofizialen eta gizon eta emakumeen presentzia parekoak izan zitezten saiatu ziren antolatzaileak.

Guztira, 15 ikuskizun eskaini zituzten 15 konpainiak; 33 emanaldi egin ziren, 17 euskaraz eta 16 espainieraz. 15 konpainia horietatik sei emakumez osatutakoak ziren, beste sei gizonez osatutakoak, eta hiru konpainia misto ere egon ziren. Hiriko 25 espazio ezberdinetan eskaini zituzten emankizunak.

Konpainiek eskerrak eman zizkieten Donostia Kulturari eta publikoari. Donostia Kulturari, gaur egungo koiunturan sektorearen eta jaialdiaren aldeko apustua egiten jarraitzeagatik; eta publikoari, ikuskizunetara ilusioz joaten jarraitzeagatik. **Poltsiko Antzerkiak** publiko leiala du, edizioz edizio Donostiako kultura-programazioan dagoeneko klasiko bat bihurtu den jaialdi honetan berriro topo egiten duena.



Ez dok ero (desentxufatua), Tartean Teatroa © Iñaki Rubio

Literaktum

Literaktum Letren Jaialdia azaroaren 13tik 26ra egin zen 2023an, hainbat erakunderekin lankidetzan jardutearen ondorioz sortu diren proposamen berriekin. Jende ugari hartu zuen parte adin guztietako zaleentzako antolatutako 54 jardunaldietan. Guztira, 6.100 lagunek hartu zuen parte **Literaktum** jaialdiko jardueretan.

Maitasunaren geografiak

izan zen aurtengo edizioko gai nagusia, eta horrekin lotuta, hainbat idazlek hartu zuen parte jaialdian, hala nola **Antonio Muñoz Molina**, **Ray Loriga** eta **Marta Jiménezek**, **Blanca Llum** eta **Castillo Suárez** poetek, **Jacobo Bergarechek**, **Nerea Baldak**, **Alejandro Gándarak** eta **Ramón Andrések**.

Literaturako lan berriek ere izan zuten euren espazioa literaturaren jaialdian, kasu honetan **Gioconda Belliren**, **Patxi Zubizarretaren** eta **Antje Rávic Strubel** idazle alemaniarren eskutik.

Arrakasta handiarekin abiatu zen edizio honetako egitaraua Ernest Lluch Kultur Etxean, **Gioconda Belliren** parte-hartzearekin, eta **Antonio Muñoz Molinarekin** Antzoki Zaharrean izandako solasaldia izan zen jendetsuena.

Egileekin izandako solasaldiez gain, ipuinak berridaztearen inguruko polemikari buruzko mahai-ingurua ere egin zen



Ramón Andrés © Iñaki Rubio

Literaktum jaialdiaren barruan, **Literatura infantil, ¿cambiamos el cuento?** izenburuarekin, eta **Patri Urkizu lagunartean** omenaldia egin zitzaion **Patri Urkizu** idazleari.

2023an ospatu diren hainbat urteurren ekarri ziren gogora **Literaktum** jaialdian egindako lau erakusketetako hirutan. Horrela, **Mikel Laboa** hil zeneko 15. urteurrenaren harira, **Mikel Laboa... izan liteke konstelazio, izan gabe izar** erakusketa egin zen; bestalde, **Munduari bira 80 egunetan** argitaratu zenetik 150 urte igaro dela eta, izen bereko erakusketa antolatu zen, eta Euskadiko Irudigileen Elkarte Profesionalaren 20.

urtebetetzea ospatu zen, **Euskal Irudigileak 20 urte** erakusketarekin. **Surflaria** komikian oinarritutako izen bereko erakusketa izan zen laugarrena.

Antzerkiak, dantzak, Irun Hiria Kutxa Sarien banaketa-ekitaldiak, bideoforumak, irrati-nobela batek, film laburren emanaldiak eta literatura-solasaldiak eta ondoren **Julio Vernereren** lanean inspiratuta egin zen afariak osatu zuten helduentzako egitaraua.

Parte-hartze handia izan zuen hurrei zuzendutako **Literaktum Txikiak** ere. Egitarau zabala antolatu zen:

ipuin kontalariak, antzezlanak, Haurren Egun Unibertsalaren 7. jaia eta **Maitasuna erakusleihoan** jarduera; azken horretan, Martuteneko Arantzazuko Ama Ikastolako ikasleek maitasunari buruzko idazkiekin apaindu zituzten auzoko erakusleihoak. Aparteko aipamena merezi du Literaktum Txikia Ilustrazio Lehiaketaren hirugarren edizioak; **Oninen abenturak** izan zen gaia, eta 301 ilustraziok hartu zuen parte.

Jaialdiak www.literaktum.eus webgune berria estreinatu zuen, jendeari antolatu zenaren eta gertatutakoaren berri eman diona. Oso harrera ona izan zuen webgune berriak, 16.700 bisitarekin, modu askoz intuitiboagoan kontsulta baitaitezke edukiak eta parte-hartzaileei buruzko informazioa. Publikoaren esanetan, gainera, diseinu aproposa du.

Sare sozialek ere eragin handia izan dute jendearengan, ondorengo datuekin: X (Twitter) 34.200 aldiz ikusi ziren txioak, eta Facebooki dagokionez, 2.100 lagun heldu zen webgunera, egin ziren argitalpenei esker.

Donostia Kulturak antolatzen duen **Literaktum** jaialdiaren indarguneetako bat da duen kolaboratzaile-sare handia; honako hauek hartu zuten parte hirugarren edizioan: Kutxa Fundazioak; Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol departamentuak; Donostiako

Udaleko Sustapen eta Hezkuntza departamentuak; Etxepare Euskal Institutuak; Goethe Institut erakundeak; Gipuzkoako Liburudenden Elkarteak; Euskal Herriko Unibertsitateak; Mikel Laboa Katedrak eta Euskadiko Irudigileen Elkarte Profesionalak, besteak beste.

Jaialdia amaituta ere, **egileek esan zutena entzuteko aukera egon zen, Literaktum** jaialdiaren webgunean, **Donostia Kultura Irratian, DK ON!** eta podcast plataforma nagusietan zintzilikatu ziren **solasaldietako audioei** esker.

Jaialdiaren egunetatik aparte, **Literaktum Topaketen** bi hitzordu antolatu ziren urtean zehar, Okendo Kultur Etxean: apirilaren 26an izan zen lehenengoa, **Jhumpa Lahiri** idazle estatubatuar ezagunarekin, eta irailaren 29an bigarrena, 2018an Literaturako Nobel Saria irabazi zuen **Olga Tokarczuk** idazlearekin.



Jacobo Bergareche © Iñaki Rubio

Dkluba

Dkluba programa musika-emanaldien zirkuitua da, auzoetako eta hiriko musika-eskaintza dinamizatzea, hasten ari diren tokiko taldeak ezagutzera ematea eta, gainera, izen handiko artistak etor daitezen bultzatzea helburu duena. Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren bitartez, horren komertzialak ez diren proposamen alternatiboak programatzen dira eta balioa ematen zaio musikari, kolektibo, elkarte, klub eta sustatzaileen tokiko sareari. Azken batean, tokiko musika-talentuaren berezko erreferentea da **Dkluba**.

Argi-ilunak izan zituen 2023ak. Aurreikuspen meteorologikoez baldintzatu zuten **Glad is the day** jaialdia, aldatu egin behar izan zen parkeko programazioa, eta Dabadaba eta Le Bukowski aretoetara eraman. Bestalde, aretoen egoerak hobera egin zuen, eta pandemia aurreko edizioetako zifretara hurbildu ziren.

Dkluba zirkuituak -kultur etxeetako gainerako programek bezala (Musikagela, Larratxo Kultur Etxeko metal kontzertuak edo Lugaritz Kultur Etxeko askotariko musika-emanaldiak)-, bete egin zituen kontzertu-aretoak, izen handiekin; aldi berean, baina, tokiko artisten aldeko apustua egiten jarraitu zuen.

2023. urtean zehar, dagoeneko haien izena duten tokiko artisten emanaldiak programatu zituen Lugaritz Kultur Etxeak, hala nola **Don Inorrez, Sara Azurza, Esti Markez, Sonakay** eta **Iker Lauroba** izan ziren Lugaritzen, eta ez zuten hutsik egin.

Intxaurrondo Kultur Etxeari dagokionez -horixe da **Dkluba** zirkuituaren eszenatoki nagusia-, **XIII. Musikagela Weekend** jaialdiarekin hasi zen urtea, rock doinu amerikarrenekin, **La Perra Blanco, Ramada Inn** eta **Rumbling Lips** taldeen eskutik.

Udaberrian, berriz, erritmo latino eta tropikalez gozatzeko aukera egon zen, **Goxua`n salsa** eta **Quitapenas colectiva** taldeekin. Apirilean eta amaitzean, ostera, **Su ta Gar, Corizonas + Los Premodernos** eta **Ibil Bedi** taldeak izan genituen.

Uda-giroa iritsi zenean, ekainean, **IV. Musikagela Fest** jaialdia, tokiko taldeen aire zabaleko jaialdi ibiltaria, Tomas Alba Plazara (Sagues) itzuli zen, eta Musikaren Eguneko jaiarekin bat egin zuen (ekainaren 21ean). Musikagelako zortzi talde aritu ziren (**Convöi3zur, Monday Lup, Ane Leux, Cosmicar, Muare, Tritones, Tony Montana & Pavlyuchenko**), baita talde gonbidatua ere, **Travellin´ Brothers** ezagunak.

Abuztuan itzuli zen **Glad is the day** jaialdia zazpigarren edizioarekin eta, beti bezala, Cristina-enea parkean egiteko asmoa zegoen arren, euriaren



Musikagela Fest

eraginez, programazioa egokitu egin behar izan zen, eta Dabadaba eta Le Bukowski aretoetara eraman behar izan ziren emanaldi gehienak.

Irailean berriro iritsi zen musika Intxaurrendora, **El Columpio Asesino** talde nafarrarekin; agurreko birako kontzertuetako bat izan zen, eta haien pop-rock estiloko abestirik enblematikoenak eskaini zituzten. Erantzun paregabea eman zuen jendeak; bete egin zen aretoa. Martxotik zeuden agortuta sarrera guztiak.

Ginmusica eta **Donostia Kulturaren** eskutik, publiko gazteenarekin ekin zitzaion

urriko egitarauari. Doinurik urbanoenez gozatu ahal izan zuten musikazale gazteenek, **Donostiakluba Festibalaren** hemezortzigarren edizioan. Artista gazteak izan genituen, hala nola **Orslok, Haizeatxo eta Tximu, Khaled eta Tinez**. Hilabete amaieran, reggaerik onena ere itzuli zen Intxaurrendora, **Revolutionary Brothersek** antolatutako 2023ko **Revolution JamRock** jaialdiarekin; gaueko jaialdi bikaina ekarri zuten, **The Titanians, Revolutionary Brothers, Ines Pardo, OBF feat, Charlie P & Sr Wilson** taldeekin.

Kutixik jaialdiarekin iritsi zitzaigun azaroa; tokiko

musika-taldez osatutako **Balio dute** kolektiboak antolatzen duen ekimena da Kutixik. Haien lanari balioa emateko eta euskarazko zirkuitu alternatiboa promozionatzeko osatu zuten kolektibo hori. **Haira, Ginger, Nakar, Pelax** eta **Toc** taldeek osatu zuten kartela.

2023ari amaiera ezin hobea emateko, **Trinchera pop** disko berria aurkeztu zigun **Iván Ferreirok**, eta Intxaurrendoko aretoa jendez gainezka zela agurtu zuen urtea.

Musikagela

19 urteko ibilbidearekin, herri-musikaren jarraitzaileen eta musikarien artean Donostia Kulturaren zerbitzu ezagunenetako gisa indarra hartzen jarraitu zuen 2023an.

Hasierako izpirituari eutsi zion: tokiko musika-jarduera bultzatzea eta sustatzea, komunitatea sortuz, erabiltzaileei entseatzeko aretoak, prestakuntza espezializatua, aholkularitza eta kontzertuak eskainita eta zuzeneko emanaldietarako eta grabaketetarako ekipoak lagata.

Egia eta Intxaurrendoko Kultur Etxeetan aritu zen batez ere zerbitzua, baina gainerako kultur etxeetara ere hedatu zen kolaborazioa.

ENTSEATZEKO ARETOAK: 2023an, **70** proiektu igaro zen Egia Kultur Etxeko errotazio-aretoetatik, **40** prestakuntzako hileko batez bestekoari eutsiz, **162** erabiltzaileekin.

Intxaurrendoko Kultur Etxeko entseatzeko aretoak etorkizun profesionaleko egoitzako taldeei zuzenduta daude, eta sei taldek

erabili zituzten (19 erabiltzailek): **Rumbling Lips, Muare, Pelax, Los Premodernos, Convoi** eta **La Ola Maldita**.

2023. urtean, material fonografikoa editatu zuten **Muare, Pelax** eta **Los Premodernos** taldeek.

KONTZERTUAK: **Musikagela** kontzertuen jarduera haziz doa urtetik urtera, Donostia Kulturaren barruan.

Aurten, zerbitzuaren **Musikagela Weekend** (otsailean) eta **Musikagela Fest** (ekainean)



Musikagela Fest



jaialdietan, eta kultur etxeetan antolatu ziren jarduera edo programetan, honako ekintzak programatu ziren: kontzertuak tabernetan, erakusketen inaugurazioak, liburuen aurkezpenak, Euskararen Eguna, Literaktum, Glad is Aperitif eta beste batzuk, Donostia Kulturako beste zerbitzu batzuekin batera (hala nola poesia-errezitaldia, Plus 55 programarekin)

2023. urtean, **32 kontzertu** egin ziren hiriko hainbat auzotan (Altzan, Grosen, Egian eta Intxaurren); **23 musika-taldek** hartu zuen parte, **La Perra Blanco** eta **Travellin´ Brothers** talde gonbidatuak, eta tokiko 21 taldek: **3 zur, Ane Leux, Big Bob Rairoad, Cónvoi, Cosmicar, Dani Iglesias, Gardena, Hirukote, Ines DJ, Iñaki Miguel, La Ola Maldita, Tony Montana & Pavlyuchenko, Los Premodernos, Luca Grassi,**

Monday Lup, Muare, Physis vs Nomos, Puy Barral, Ramada Inn, Rumblin´ Lips, Tritones.

PRESTAKUNTZA:

Aurten ere handitu egin da prestakuntza-eskaintza; ikastaro gehiago eskaini zen astegunetan, eta luzatu egin zen hainbat ikasgairan iraupena. Emaitzek gainditu egin zituzten 2022ko datuak.

Urtean zehar, **17 prestakuntza-ekintza** antolatu zen (horietako 11 Egia Kultur Etxean, eta sei Intxaurren): ahotsa lantzeko ikastaroak, konposizioa, grabazio-programak, bateria, musika-tresnen mantenua, DJ izateko hastapeneko eta ekoizpeneko tailerrak.

MAILEGU-ZERBITZUA:

Kontzertuak edo grabaketak egiteko materiala laga zaie

Musikagelan entseatzen duten talde batzuei (**Dead Flowers, Watxuwei, Dos, Rivendel, Badmintones, Motelas, Los Premodernos, Rumbling Lips, I.T.T.**).

BIDEOAK EDO MAKETAK GRABATZEKO ESPAZIOEN LAGAPENAREN KUDEAKETA:

Musikagelako taldeen artean bideoak edo maketak grabatzeko espazio handiagoak lagatzeko aukera kudeatzen eta sustatzen jarraitu zen; horixe da **Dos** eta **Rivendel** (Egia Kultur Etxea) eta **No Soy Paris** (Intxaurren Kultur Etxea) taldeen kasua.

Musikagelak etengabe jarraitu du tokiko taldeen beharrei erantzuteko berritzen eta eboluzionatzen, baliabideak optimizatuz eta jarduera berriak sortuz.

Glad is the Day

2022ko edizioan, 12.000 bisitarirekin, jaialdiak izan zuen arrakastaren ondoren, 2023an, jaialdia Cristina-Enea parkean egin behar zen arren, **Dabadaba** eta **Le Bukowski** aretoetan egin behar izan zen azkenean, aurreikuspen meteorologikoen ondorioz.

Jaialdia parkean ospatu ez zen arren, eta merkatua, piknika eta haurrentzako jarduerak bertan behera utzi behar izan ziren arren, Donostia Kulturak zazpigarren edizioa ospatu zuen. Horrela, larunbateko eta igandeko musika-egitarauko emanaldi gehienei eutsi zitzaion.

12 taldek eta artistak hartu zuten parte edizio honetan. Larunbatean hasi ziren musika-ekitaldiak, **Glad is Aperitif** aperitiboarekin, **Muare** eta **Ines DJ** taldeekin, Tabakaleran.

Igande arratsaldean jarraitu zuen programazioak Dabadaban; **Nakar, Las Ligas Menores, Tito Ramírez, Yxeb 3000 DJ, Yugen Kala DJ** eta **Gazzi DJ** aritu ziren han. Le Bukowsky aretoan, berriz, **Euskoprincess, Kievra y Denso, Mutiko & Tatta (DMT)** eta **Tao DJ** artisten emanaldiez gozatu ahal izan genuen.

Europako Kultura Hiriburutzaren testuinguruan sortu zen ekimen hori 2016an, eta urte gutxi hauetan erreferentziazko ekitaldia bihurtu da Donostiako uda-giroan. Kultur etxeek antolatzen dute, eta **Egiako Kultur Etxeak** eta **Dabadaba** eta **Le Bukowsky** aretoek koordinatzen dute; VII. edizio honetan, gainera, **Keler** etxeak babestu du, eta **Kutxa Kultur** eta **Tabakaleraren** kolaborazioa izan du.



Tito Ramírez, Dabadaba © Iñaki Rubio

ArgiarTEAN

Kultur etxeen sareak sortutako **ArgiarTEAN** argi-jaialdiaren hirugarren edizioak berriro elkartu zuen jende andana, iazko zifrak gaindituz eta 6.000 bisitara iritsiz.

2019an sortu zen Donostia Kulturaren **ArgiarTEAN** plataforma **Olatu Talka** jaialdiaren barruan, hainbat diziplina eta profiletako artistek argi-artearen arloan lan esperimentalak sortzeko eta erakusteko.

Loiolako Erriberetako Memoriaren Parkeko

eta **Iesu Elizako** gaueko erakustaldiak harrিতuta utzi zituen berriro ikusleak, *light-art* instalazioekin, proiektzio monumentalekin eta zuzeneko emanaldiekin. Oso positiboa izan da hirugarren edizio honen balantzea ere, erakutsi diren proposamenen aniztasunari zein herritarren erantzunari dagokienez. Udazkenekoa baino udakoa zirudien eguraldiaren laguntzarekin, herritarrek izaera esperimentaleko instalazio, proiektzio monumental eta zuzeneko emanaldi eskaintza zabalaz gozatu ahal izan zuten urriko bi gauetan.

Hiriko zein inguruko diziplina anitzeko artistek adin guztietako ikusle ezberdinengana iristea lortu zuten. Haurrek primeran pasa zuten hainbat instalazioren argi-jokoekin, **Gheada** estudioaren *Reflections*



Álvaro Turrión + Jaime de los Ríos © Iñaki Rubio

emanaldiarekin kasu, bai eta **Carlos Solanoren** *Objeto Especular* lanaren interaktibitatearekin ere. Ikusle helduek, berriz, proposamen intimo eta exijenteagoez gozatu zuten, *Sala de Salas* lanaz, esaterako, proiektzio-ingurune zenitala aparteko espazio batean, **Sinergys** eta **Zine-laben** eskutik. Guztiek gozatu zuten musika proposamenez eta *foodtruck* ibilgailuz betetako terraza handiaz; bi gau arrakastatsu haiek luzatzeko gonbita egiten zuten eskaintza horiek.

Ostiralean hasi zen jaialdia, 20:00etan, ilunabarrarekin batera, **Alvaro Turrión** musikagilearen kontzertuarekin eta **Jaime De Los Ríos** artistaren lanarekin; irudi abstraktuak islatzen zituzten elizaren fatxadan, pianoaren melodiaren erritmora.

Gauarekin jarraitzeko, **Laponite XLG** artistaren drag performancea izan genuen eta, amaitzeko, musika elektronikoko esperimentala, **Sabiwa + Nathan L.** musikarien eskutik.

Lumi taldearen proposamenarekin hasi zen larunbateko egitaraua; **Nagore Legarretaren** argazkiekin batera egin zuten emanaldia, eta melankolia bereziko soinu elektronikoeekin nahastuta. Jarraitzeko, **TMATMB** talde kataluniarraren kontzertua eta **Desilence** konpainiaren proiektzio hipnotikoak izan genituen. **Pablo Casares** artista eta sortzaile polifazetikoak eman zion amaiera jaialdiari, lan bikain bat aurkeztuz.

Donostia Apain

Donostia Apain egitasmoak berriro koloreztatu zituen kaleak, 2023an egin ziren lau horma-irudiekin. Oraingo honetan, Bidebietako bizilagunak izan ziren auzoko lau leku enblematikotan egindako lanez gozatu ahal izan zuten; kiroldegian, frontoian, saskibaloijokalekuan eta Kontadores eraikinean egin ziren 2023ko horma-irudiak.

Hiri-inguruetan horma-irudiak egiteko proiektua da Donostia Apain, kultur etheen sareak bultzatzen duena eta herritarren parte-hartzea bultzatzeko Olatu Talka jaialdiaren hamargarren eta azken edizioaren barruan sortu zena. Urte hauetan guztietan Martutenen, Altzan eta Loiolan egin diren esku-hartzeak berretsi egin dute horma-irudigintzak arreta behar zuten hiri-espazioak biziberritzeko eta espazio horiei balioa emateko duen gaitasuna.

Tokiko komunitateek emandako erantzun beroak bultzatu egin zuen egitasmoaren bilakaera eta esperientzia aberasgarri hori hiriko beste eremu batzuetara hedatzeko asmoa, baita **Mugikortasun Sailarekin** eta **Eskola Bidea** ekimenarekin adostutako lankidetzaren ere.

Intxaurren Kultur Etxea arduratu zen esku-hartzeak eta lanen antolaketa koordinatzeaz, eta **Zaldi Urdina** arte eskolaren aholkularitza artistikoa izan zuen artistak hautatzeko.

Zésar Bahamonte artista sevillarra arduratu zen Kontadores eraikina biziberritzeaz, hiru hormatan egindako lanarekin.

Sandra Garayoa talentu handiko euskal irudigile eta diseinatzaile grafikoak, berriz, kiroldegira eraman zuen bere sormen eta ikuspegi artistikoa.

Xoana Almar eta **Miguel Peralta** artistek frontoian egin zuten ilustrazioa emakumearen eta euskal pilotaren lekuko zirraragarria da. Eta, azkenik, Kontadores eraikineko **Zebrak** kolektiboak bere arrastoa utzi zuen auzoko saskibaloijokaleku batean, hiri-ingurunera arte plastikoa eta poesia daramatzan ikuspegi batekin.

Halaber, **Eskola Bidea - Apain** proiektua estreinatu zuen Donostia Apain ekimenak Orixe Ikastolan. Ikastolako ikasleek egunero egiten duten eskolarako bidea atseginagoa eta ikusgarriagoa izan dadin lortu nahi duen ekimen berria. Horretarako, esku hartu zuten eragile guztien (ikasleak, merkataria, garraiolariak...) zati txiki bat erakutsi nahi duen horma-irudia jarri zen Orixe Ikastolako hesian, era horretan bizikidetzaren atsegina, erantzunkidetasuna eta elkarrenganako begirunea ospatuz. Horregatik, San Joan eta Abuztuaren 31ko kalean jarritako seinaleek adierazten dute bi kale horiek eskola-bide horretan daudela.



Zésar Bahamonte, Kontadores © Iñaki Rubio

DK Irratia

DK Irratiak 24 orduz emititzen du **107.4 FM-n** eta **irratia.donostiakultura.eus** helbidean. 2023. urtean **21** irratsaiorekin osatutako programazioa eskaini zen.

Ispilu Beltza programako lantaldeak astean 10 orduko emisioa ekoitzi zuen, astelehenetik ostiralera, egunero 2 orduko irratsaioa produzituz eta editatuz. Asier Erratik hartu zuen pasa den irailetik saioaren gidaritzza berria.

DK Irratiko estudioetan egiten den irratitailerrean **16** irratsaio ekoiztu ziren 2023an, iaz baino 5 gehiago. Eta hainbat eragilerekin egindako hitzarmenei esker, kanpo-ekoizpena izan zuten beste **5** irratsaio ere emititu ziren DK Irratian.

DK Nobedadeak musika-zerrenda ere aktibo mantendu zen 2023an, irratiko programazioan hiriko talde eta bakarlarien espazioa bermatzeko.

Estudioen erabilerari dagokionez, aurreko urteko gorakada nabarmenaren ostean, erabilerak apur bat behera egin zuen 2023an, nahiz eta datuek positiboak izaten jarraitu zuten.

DK Podcastek harrera ona izaten jarraitu zuten 2023an. **44** podcast igo dira (2022an baino % 24 gehiago) eta entzunaldi kopuruak ere gora egin zuen **5.186** entzule kopuru izatera lortu arte.

DK irratiak bere guztizko entzule kopurua mantendu eta apur bat igo zuen. Sare sozialetan irratiak lehendik zuen presentzia mantentzen jarraitu zuen, eta apurka-apurka irratiaren X kontua jarraitzaileak irabazten ari da.

Trebakuntzari dagokionez, 2023an ondorengo ikastaroak aurrera eraman ziren: **Telmo Trenorren Podcast Tailerra** eta **Inko Martinen Irrati Hastapenak**.

Hamaika entzuteko! Irrati-piezen lehiaketaren IX. edizioa ere antolatu zen 2023an.

18 pieza jaso ziren 2023ko edizioan, eta saritutako lanen berri emateko **Ispilu Beltza** irratsaio berezi bat emititu zen saridunen eta epaimahaikideen parte-hartzearekin. 2023ko irabazlea **Maidar Uriarte Doiz** kazetaria izan zen **Kirikoketa** lanarekin eta bigarren saria **Ruben Martinez Rosasentzat** izan zen, **Arbizu Enea** piezarengatik.

Honez gain, azpimarragarria da 2023an **Basilika Podcast** ekimenarekin hasitako elkarlana, Irratiaren Nazioarteko Egunaren harira Ispilu Beltza saioko kideek Tomasene K.E.-tik zuzenean emititutako saioa edota gabon zahar gauean **Década Infame** saioko kideek egindako saio berezia.



Irratiaren Eguna, Ispilu Beltza zuzenean

JARDUERAK

197

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 28.665

127

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 5.354

1.326

**Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak**
Erabiltzaileak: 33.032

727

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 10.601

37

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 7.397

214

**Hitzaldiak eta
mahai-inguruak**
Erabiltzaileak: 12.576

1.289

**Liburutegiko
jarduerak**
Erabiltzaileak: 19.157

807

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 15.413

83

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 15.222

171

Erakusketak
Erabiltzaileak: 107.421

601

Plus 55
Erabiltzaileak: 12.252

160

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 1.475

Guztira
5.739
jarduera

268.565
erabiltzaile

61

ZERBITZUAK

470.633

bisitaldi
Liburutegia

13.770

bisitaldi
Haurtxokoa

52.475

bisitaldi
Altzako bilduma web

1.891

bisitaldi
Bideo tailerra

2.534

bisitaldi
Ikasgela

26.024

bisitaldi
**KZgunea
(Nabigazioak)**

5.361

bisitaldi
DK Irratia web

6.226

bisitaldi
Musikagela

16.090

bisitaldi
Gaztelekua

301

bisitaldi
Altzako bilduma

7.269

bisitaldi
**Ispilu beltza
magazine-podcasts**

4.516

bisitaldi
Musika Eskola

Guztira
611.900
BISITALDI

4.810

bisitaldi
Plus 55

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintzaOsatutako
ikastaroak

Erabiltzaileak

Emakumeak

Gizonak

GUZTIRA	1.953	1.379	13.636	9.597	4.039
2022-2023 IKASTAROAK	412	231	3.916	2.794	1.122
Ikasturte osokoak (2022ko urria - 2023ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	3	1	7	3	4
Gaztelaniaz	12	9	612	163	449
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	154	49	643	568	75
Gaztelaniaz	159	118	1.839	1.535	304
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2023ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	6	3	38	20	18
Gaztelaniaz	12	11	184	103	81
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	34	12	162	111	51
Gaztelaniaz	32	28	431	291	140
2023-2024 IKASTAROAK	474	228	3.942	3.036	906
Ikasturte osokoak (2023ko urria-2024ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	4	0	0	0	0
Gaztelaniaz	34	2	23	16	7
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	175	60	822	695	127
Gaztelaniaz	164	117	2.367	1.862	505
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2023ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	7	2	15	7	8
Gaztelaniaz	7	7	76	26	50
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	62	22	299	182	117
Gaztelaniaz	21	18	340	248	92
IKASTARO PUNTUALAK	49	46	1.082	708	374
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	34	32	876	587	289
Gaztelaniaz	15	14	206	121	85
KZgunearen IKASTAROAK	384	337	1.901	1.246	655
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	634	537	2.795	1.813	982

KULTUR ETXEETARA egindako bisitak
Guztira 897.554

2



2

3

AIETE
Kultur Etxea

AIETE Kultur Etxea



Malala ikasle
ausarta

2023an, hiriko jarduerak eta hazten eta eraldatzen ari den auzo gazte bati dagozkion dinamikak izan ziren protagonista Aieten. Horrela, bada, **Lantxabe** auzoko elkarteak gero eta arrakasta handiagoa lortzen ari den hileroko hitzordua antolatzen jarraitu zuen, eta egile-zinema, literatura eta arte-zikloak ekarri zituen kultur etxera. Era berean, auzoko Erretiratuen Elkarteak -parkeko Topalekuan du egoitza- gero eta aktiboagoa da, eta aurrera doa kultur etxearekin duen hartu-eman; **Euskara Batzordearekin** ere jarduten du lankidetzan.

Kultur etxeko erakusketak bat datoz kultura-eskubideekin, genero-berdintasunarekin eta emakume eta neskatoen ahalduentzarekin lotuta dauden 2030 Agendako garapen jasangarriko helburuekin. Halaber, herrialdeen arteko desparekotasunari, hiri eta gizarte bidezko, baketsu eta inklusiboei, kontsumo- eta ekoizpen-eredu jasangarriari eta naturarekin harmonian dauden bizitza-estiloari buruzko gaiak ere lantzen dira.

Hiri-ikuspegi batetik, Donostiako beste sail eta jaialdi batzuekin ere egin ziren ekoizpenak. Horrela, **Hurrengo zu / En la diana** aurkeztu

zen. Gipuzkoako Udalak Baketik erakundearen laguntzarekin antolatutako erakusketa horretan, jazarpen-indarkeriaren inguruko hausnarketa egin zen Giza Eskubideen ikuspuntutik, eta 1975etik 2011ra arte indarkeria hori jasan zuten biktimen memorian sakondu zen.

Giza Eskubideen Zinemaldiaren testuinguruan, **Malala ikasle ausarta** erakusketa aurkeztu zuen Donostia Kulturak Aiete Kultur Etxean. **Malala Yousafzai** Bakearen Nobel saridunaren bizitza eta lan humanarioa ezagutzeko aukera eman zien auzotarrei erakusketak. Neskatoen hezkuntzaren eta emakumeen berdintasunaren aldeko aktibista da Malala.

Giza Eskubideen Zinemaldiak eta Aiete Kultur Etxeak ekoiztu zuten erakusketa, eta **Asier Iturralde Gastón** donostiarra arduratu zen ilustrazioez. Marrazkien bitartez, pakistandar aktibistaren bizitzako hainbat pasarte kontatzen ditu Iturraldek. 2012an atentatua jasan zuenetik, Erresuma Batuan bizi da Yousafzai. Erakusketako materialarekin, gainera, *booktrailer* bat egin zen -Interneten egon zen ikusgai-, eta haurrentzako tailerrak eta proiektzioak programatu ziren jaialdiak iraun zuten bitartean.



Euskal irudigileen elkartearen 20. urteurrenaren erakusketa kolektiboa

Malen Agirre gipuzkoar artista gaztearen obrari eskaini zitzaion udako erakusketa. Mundu digitalaren eta artisau-lanaren artean dabil artista oiartuarra; ohituta dago estanzazioko diseinatzaile lana aldizkatzen, eta koloretatik abiatutako lanak sortu zituen Aieterako, hizkuntza estetiko baten haren etengabeko bilaketan.

Literaktum literatura-jaialdia ospatzen zela eta, **Euskal Irudigileak Elkarte Profesionalaren 20. urteurrenaren harira**, erakusketa-proiektu bat aurkeztu zen; 175 artistak hartu zuten parte.

Urtea amaitzeko, **Gregorio Ordóñez. Bizitza posiblea** erakusketa egin zen. Alderdi Popularraren izenean euskal legebiltzarkidea eta Donostiako alkateordea izan zenaren bizitza labor eta bete-betean bizitakoa ekarri zigun gogora erakusketak, eta haren hilketak -36 urte besterik ez zituen- gizartean eragin zuen hunkipena.

Hainbat artista izan ziren protagonista **Ilustratzailearen Txokoan** euskal irudigintzaren sormen-unibertsoari balioa emateko Aieten sortutako espazioan, hala nola **Iban Illarramendi, Leire Salaberria, Ivan Mata, Arkaitz Barriola** eta **Maitane Bautista**.



Malen Agirre



Ilustratzailearen Txokoa, Leire Salaberria

Programatzeko erabiltzen den beste espazio bat Txoko Urdina da; beste eragile sozial eta herritar batzuekin lankidetzan egiten diren erakusketak jartzen dira espazio horretan. Horrela, 2023an, hainbat kolaborazio egin zen; besteak beste, **MKE kooperatibarekin** batera, Saharako emakumeen borrokari eta erresistentziari buruzko erakusketa egin zen, **Desertuko emakumeen bidaia;** eta, Aieteko **Axular Lizeoarekin** ere elkarlanean aritu zen kultur etxea, **Aiete-Land** auzoari buruzko proiektuekin.

Txoko Urdinean argazki-erakusketak ere egin ziren 2023an. Besteak beste, **Iris** erakusketa, CEAR batzordeko errefuxiatuek egindako argazkiekin, Gipuzkoako begiradarik pertsonalenak erakusten dituen; **Amore eman barik**, Egoaizia garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak, CIPCA erakundeak eta Garapenerako Euskal Agentziak prestatutakoa, Peruko landa-inguruneke emakumeek egiten duten lanari balioa emateko helburua duena; eta emigrazio irregularrari buruzko beste bat, Mugarik Gabeko Etorkinak elkartearena.

Bestalde, auzoko eragileekin ere kolaboratu zuen kultur etxeak, adibidez Gero Axular Dantza Taldearekin; **DravetZari** erakusketako jantzi tradizionalak jarri zituzten ikusgai, Dotore Jantziren eskutik. DBUS udal enpresaren Eguberrietako marrazki-lehiaketako saridunen ohiko hautaketarekin amaitu zen urtea.

Betidanik jarraitzaile leialak izan dituen **Musika Parkean** jarduera berreskuratu zen Aieten 2023an. Ekainean itzuli zen Aieteko lorategietara, eta donostiarrek zuzeneko musikaz gozatzeko aukera

izan zuten, **Nerea Bengoetxearen, Julenen, Siglas taldearen** eta **Alex del Toro** disko-jartzailearen eskutik. **Bertso jira** ere berreskuratu zen 2023an, auzoko jaietan, Aieteko bizilagunek eskatuta. **Beñat Gaztelumendi** eta **Alaia Martin** egon ziren auzoan.

Aieteko mezu sekretuaren bila proiektua gauzatu zen Cristina-Enea Fundazioarekin lankidetzan, herritarren eskari bati erantzuten lagundu zuena: Aieteko parkea hobeto ezagutzea. **Aitziber Alonso** ilustratzailearen mimoari eta sormenari esker, parkearen mapa artistiko eta ludikoa sortu zen; hainbat proba eta pistaren bitartez, Aieteko parkearen historia eta izaera ezagutzeko aukera ematen zuen mapa horrek. Parkean bizi diren pertsonaiak, animaliak, landareak eta **galtzagorriak** agertzen dira mapan eta, pista-jolas baten bitartez, mezu sekretu bat deszifratu behar zen eta, aldi berean, donostiarrek gehien maite dituzten txokoak ezagut zitezkeen.



Aieteko mezu sekretuaren bila



Desertuko emakumeen bidaia



Musika parkean Aieten



Musiklasik-Suhar korua

Arte eszenikoei dagokienez, bertako musikarien **Musiklasik** programak **Lauburu Sax Quartet** saxo-laukotearekin ekin zion urteko programazioari; **Raúl Pérezek**, **Laurie Curutchetek**, **Claudia Llauradók** eta **Andrea Castañok** osatzen dute taldea. **Sokaire biolinistak** bikotearen txanda izan zen ondoren, eta musikan zeharreko ibilbide historikoa egin zuen, gaur egunera artekoa. **Marifé Nogales** mezzosoprano andoaindarrak eta **Amaia Zipitria** piano-jotzaileak, berriz, entzuleak benetan hunkitu zituen kontzertua eskaini zuten. **Esteban Urtzelaik** zuzentzen duen **Suhar korua** Tolosako Abesbatza Lehiaketan lortutako arrakasta baino lehenxeago egon ziren Donostian. **Trío Sostenuto** hirukoteak eman zion amaiera urteari; **Ana Sagastizabal** sopranoak, **Pedro Andina** piano-jotzaileak eta **Aitor Aburto** klarinete-jotzaileak osatzen du hirukote hori.

Familiei zuzendutako eskaintzari dagokionez, programazio zabala izan zuen Aietek; nabarmentzekoak dira **haurrentzako**, euskaraz eta espainieraz, asteburuetan eta opor-aldietan eskaini ziren **72 zinema-proiekzioak**. Mila lagun baino gehiago joan zen emankizun horietara.



Musiklasik-Trío Sostenuto



Grimm anaien parkea, Erre produkzioak

Diziplina-aniztasuna lortzea zen haurrentzako antzezlanean hileko programazioen helburua. Horrela, bada, askotariko ekitaldiak antolatu ziren, hala nola **Kidam** eta **Eriz magoen** ikuskizunak; **Kiki eta Moko** eta **Porrotx eta Marimotots** pailazoan emanaldiak; jaietan **Zirko loretsua** kaleko zirko-ikuskizuna; **Txotxongilo taldea**, eta literatura-obra, besteak beste, Erre produkzioen **Grimm anaien parkea** Liburuaren Egunean, eta Glu, Glu konpainiaren **Erbia eta dordoka**, Literaktum literatura-jaialdiaren barruan. **Txaloka antzerki taldearen** eta **Ameztu produkzioen** kaleko antzezlanean ere girotu zuten Munto plaza.

Aieteko **liburutegiak** erabiltzaile kopurua handitzen jarraitu zuen, eta pandemia baino lehenagoko kopuruetara iritsi zen. Komunitatea sortzeko eta mantentzeko lanarekin jarraitu zuen, eta erantzun oso positiboa jaso zuen erabiltzaileen aldetik. Haurrentzako astero jarduerak antolatzen jarraitu zuen liburutegiak, hala nola **Liburu Baby Kluba**, **Zeu irakurle gu kontalari**, **Ipuinaren ordua** eta inguruneko ikastetxeen bisitak. Gainera, modu aktiboan hartu zuen parte **Onin** liburuei eskainitako ilustrazio lehiaketa antolatzen; **Literaktum Txikia** ekimenaren barruan egin zen lehiaketa hori, udal liburutegien sare osoan.

Ikastaroei dagokienez, pandero eta joskintza ikastaroak, "konpondu zure bizikleta" eta yoga ikastaroa nabarmendu ziren, bai eta hainbat gairen inguruko egile-ikastaroak ere. Historiari

buruzko ikastaroa eman zuten **Maria José Noainek** eta **Mikel Alberdik**, geografiari buruzkoa **Asier Hilariok**, haur-psikologiaren ingurukoa **Nerea Mendizabalek**, eta baso-bainuak egin ziren Aieteko parkean, Cristina-Enea Fundazioarekin lankidetzan.

Poltsiko Antzerkiaren Jaialdiak harrera oso ona izan zuen. **Jon Zabal** mentalistak Mamistegin egin zuen emanaldia, eta harrিতuta utzi zuen publikoa; **Ion Martínez Txiki** ere aritu zen, eta benetan gozarazi zion publikoari.

2023an zehar, kultur etxearekin kolaboratzen jarraitu zuen **Haurtxokoak** hainbat programatan, hala nola Literaktum Txikian eta Giza Eskubideekin lotutako **Malala** erakusketan, ilustrazioko tailerrekin eta beste jarduera batzuekin. **Gaztelekuaren** kasuan, auzoko gazte askok erabili zuen, eta udan Udaleko Euskara Sailaren udalekuetarako laga zen espazioa.

Aiete Kultur Etxean, hurbiltasun fisikoak mesede egin zion interakzio sozialari eta pertsonen arteko harremanari; horrenbestez, kohesio sozialeko eta identitate kolektiboko tresna bat da, Aieteko komunitatea eraikitzeke baliagarria. Horregatik, lehenetsuna eman zitzaion auzoko kultura-eragileekin etengabeko harremana izateari, lurraldea eta herritarrak izan baitziren eguneroko lanaren ardatza.



Erbia eta dordoka, Glu, glu konpainia



Poltsiko Antzerkia- Euskaldunen jatorria, historia ta irria. Ion Martínez Txiki

JARDUERAK

12

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.135

0

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

7

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 768

73

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.672

22

Hitzaldiak eta mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 1.121

19

Erakusketak
Erabiltzaileak: 10.110

170

Bilerak eta elkarten ekitaldiak
Erabiltzaileak: 8.270

99

Liburutegiko jarduerak
Erabiltzaileak: 1.605

0

Plus 55
Erabiltzaileak: 0

77

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 1.185

200

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 3.775

0

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 0

Guztira
679
jarduera

29.641
erabiltzaile

ZERBITZUAK

48.878

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

1.185

bisitaldi
Gaztelekua

3.775

bisitaldi
Haurtxokoa

0

bisitaldi
KZgunea (Nabigazioak)

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Ispilu beltza magazine-podcasts

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Musikagela

0

bisitaldi
Musika Eskola

0

bisitaldi
Plus 55

Guztira
53.838
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	97	46	685	532	153
2022-2023 IKASTAROAK	46	16	222	156	66
Ikasturte osokoak (2022ko urria - 2023ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	21	0	0	0	0
Gaztelaniaz	19	12	160	124	36
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2023ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	2	2	36	20	16
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	2	0	0	0	0
Gaztelaniaz	2	2	26	12	14
2023-2024 IKASTAROAK	51	30	463	376	87
Ikasturte osokoak (2023ko urria-2024ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	17	8	103	87	16
Gaztelaniaz	20	13	194	167	27
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2023ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	9	4	52	38	14
Gaztelaniaz	5	5	114	84	30
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 85.920

2



2

3

CASARES / TOMASENE
LARRATXO Kultur Etxeak

CASARES / TOMASENE

Kultur Etxea

2023an, kultur etxeak antolatutako jarduera eta ikastaro guztietan parte hartzeko gogoia eta energia, eta elkarteekin batera antolatutako jaiak eta kultura-egitaraua izan ziren nagusi.

Auzoko eragileek proposatutako jarduera gehiago antolatu zen eta handitu egin zen jarduera horietako parte-hartze aktiboa eta, gainera, erreferente bihurtu ziren auzoan zein hiri osoan. Urte osoan zehar antolatutako proiektuek Altza auzoaren berezitasuna nabarmendu zuten, eta balioa eman zieten herritarrei eta haiek kulturarekiko eta parte hartzeko duten interesari; horren guztiaren adibide dira auzoko jaiak, Bertso Aroa, Emakumeen Astea, Gau Beltza, Santo Tomas eta Eguberriak.

Irratia, Casaresen arima

Donostia Kultura Irratiak Casares-Tomasene Kultur Etxetik emititzen du, **FM 107.4** sintoniaren bitartez eta **streaming** bidez.

2023an, 16 irratsaio ekoiztu ziren, aurreko urtean baino hiru gehiago. Kanpo-ekoizpeneko beste sei irratsaio ere eman ziren.

Harrera ona izaten jarraitu zuten **DK Podcastek**; **44** podcast egin ziren, aurreko urtean baino % 24 gehiago. Nabarmen handitu zen deskarga edo entzute kopurua, eta **5.186 entzule** lortu zituzten guztira. Irratiak, entzule kopuruari eutsi ez ezik, kopuru hori pixka bat handitzea lortu zuen 2023an. Irratia sare sozialetan eskaintzen jarraitu zen eta, pixkanaka, gero eta jarraitzaile gehiago lortu zuen X-eko kontuak.

Ikastaroen eskaintza, bestalde, berritu egin zen, **Telmo Trenorren** podcast tailerrarekin eta **Inko Martinen** hastapeneko tailerrarekin. Aipatzekoa da, gainera, Irratiaren eguna ospatu zela otsailaren 13an; zuzeneko saioa egin zen kultur etxetik, eta auzoko zein auzotik kanpoko hainbat kultura-eragile gonbidatu zituzten. Irrati-piezen **Hamaika Entzuteko!** IX. Lehiaketan,

azpimarragarria izan zen parte hartu zuen pieza kopurua -18, hain justu- eta pieza guztien maila bikaina.

Donostia Kulturaren webgunean daude gordeta emititutako irratsaio guztiak eta **Donostia Kulturaren ekitaldi ugariren grabazioak**. Edozein erabiltzailearen eskura daude, podcast formatuan.



Irratiaren eguna - Ispilu beltza zuzenean

Altzako bilduma

Altzako Tokiko Bilduma **dokumentazio-zerbitzu** bat da, **Donostia Kulturak** eta **Altzako Historia Mintegiak** Altzako dokumentu-ondarea biltzeko, kontserbatzeko eta ezagutarazteko helburuz sortutakoa. Urtea amaitzerako, **22.218 agiri** baino gehiago zuen Tokiko Bildumak; 1.013 agiri berri eskuratu, digitalizatu eta katalogatu ziren 2023an. Hainbat garai historiko (Gerra Zibila, esaterako) eta euskarri grafikotan, lurraldeko dokumentazioetan, ikus-entzunezko irudi eta testigantzetan eta beste bilatzen dira agiriak. Katalogatuta daude agiri horiek, eta altza.info webgunean eskura daitezke.

Urtez urte zabalkunde handiago du bildumak, eta gero eta ezagunagoa da eskaintzen duen zerbitzua. Bisitari digitalei dagokienez, **52.475** lagunek bisitatu zuen webgunearen bitartez. Bestalde, kontsulta-zerbitzuak hainbat ikertzaileekin kolaboratu zuen, eta bederatzik artikulu argitaratu zituzten ikertzaileok **Estiba**us blogean.

Plus 55 programak adineko pertsonentzako hainbat kultura- eta hezkuntza-jarduera eskaini zuen urtean zehar, adineko pertsonen kolektiboaren eskariei erantzunez eta parte hartzeko motibazioa eta gogoia zuten guztientzako aholkularitza- eta laguntza-zerbitzua eskainiz. Nabarmentzekoak dira mugikorrei

buruzko ikastaroak, bideoforuma, amateur antzeztan eta Altzan zeharreko paseoak, besteak beste. Aurten, gainera, azpimarratzekoa da parkean taichi saioetan jende askok parte hartu zuela eta berriro antolatu zirela ostiraletako dantza-saioak eta harrera oso ona izan zutela.

Prestakuntza-eskaintzari dagokionez, iraupen ezberdineko ikastaroak antolatu ziren. Eskaintza horren bitartez, askotariko diziplinak hurbiltzen zaizkie herritarrei eta elkartzeko eta parte hartzeko espazioak eskaini. Parte-hartze handia lortu zen ikastaroetan, zeramika-ikastaroetan batez ere, eta sukaldaritza-ikastaro berriak antolatu ziren Gurea elkarte gastronomikoan. Nabarmen handitu zen eskaintza bi kultur etxeetan.



Altzako Naturaldia - Liburu aurkezpena



+55 Giza Liburutegia

Altzako hainbat elkarte eta erakunderekin lankidetzan, zenbait jarduera-ziklo antolatu zen, interes sozialeko gai garrantzitsuen inguruan, hala nola ingurumena, genero-berdintasuna eta hezkuntza. Adibide batzuk aipatzearen, **Emakumeen Astean** jende askok hartu zuen parte auzoko emakumeen elkarteekin batera antolatu ziren kultura-jardueretan, eta **Altzako Naturaldiaren** barruan, auzoarekin eta naturarekin lotutako bisita gidatuak eta kultura-egitaraua antolatu ziren. Aipatzekoa da **Gau Beltza** ere, auzoko ekimen bati esker sortu zena eta urtez urte parte-hartze handiagoa duena.



Liburutegiaren eguna - Eriz Magoa



Poltsiko Antzerkia - Txiki - El Nido



DKluba - El Nido - Gardena

Hiriko auzo guztiak hartzen dituzten programetako ekintzak ere egin ziren auzoko hainbat espaziotan, tabernetan eta Altzako elizan, besteak beste; **Poltsiko Antzerkiaz**, **Literaktum** literatura-jaialdiaz, **Dklubaz** eta **Abesbatzen Asteaz** ari gara. Horrela, hainbat lekutara eraman zen kultura, jende guztiak goza zezan eta eskaintza integratzaileagoa eta parte-hartzaileagoa izan zedin.

Tomasene liburutegiak eutsi egin zion maileguzerbitzu onari, eta irakurzaletasuna eta jarduera parte-hartzaileak sustatzearen aldeko apustua egiten jarraitu zuen; ildo horretan, haurrei zuzendutako **Liburu Baby kluba** eta **Zeu irakurle, gu kontalari** ekimenak berreskuratu zituen. Izan zuen erabiltzaile kopuru handiak erakusten du erreferente izaten jarraitzen duela auzoaren bizitzan eta dinamikan.

Amaitzeko, garrantzitsua da programazioa garatzen inplikaturik egon diren erakunde eta elkarte guztiei gure instalazioak erabiltzeko erakutsi duten konfiantzagatik eta jarduerak antolatzen jarraitzeagatik eta inplikatzegatik eskerrak ematea, kultur etxeak auzoko kultura-dinamizazioaren ardatz izaten jarrai dezan laguntzen baitute.

JARDUERAK

11

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 3.030

0

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

5

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 417

1

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 29

10

Hitzaldiak eta mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 326

2

Erakusketak
Erabiltzaileak: 2.980

271

Bilerak eta elkarten ekitaldiak
Erabiltzaileak: 5.114

202

Liburutegiko jarduerak
Erabiltzaileak: 2.378

52

Plus 55
Erabiltzaileak: 977

0

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 0

0

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 0

0

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 0

Guztira
554
jarduera

15.251
erabiltzaile

ZERBITZUAK

53.470

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

0

bisitaldi
Gaztelekua

0

bisitaldi
Haurtxokoa

0

bisitaldi
KZgunea (Nabigazioak)

301

bisitaldi
Altzako bilduma

52.475

bisitaldi
Altzako bilduma web

5.361

bisitaldi
DK Irratia web

7.269

bisitaldi
Ispilu beltza magazine-podcasta

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Musikagela

2.346

bisitaldi
Musika Eskola

853

bisitaldi
Plus 55

Guztira
122.075
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	416	272	1.785	1.239	546
2022-2023 IKASTAROAK	63	20	255	212	43
Ikasturte osokoak (2022ko urria - 2023ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	3	1	7	3	4
Gaztelaniaz	4	1	9	5	4
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	28	5	55	50	5
Gaztelaniaz	28	13	184	154	30
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2023ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
2023-2024 IKASTAROAK	83	29	385	300	85
Ikasturte osokoak (2023ko urria-2024ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	3	0	0	0	0
Gaztelaniaz	4	2	23	16	7
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	39	7	78	68	10
Gaztelaniaz	33	18	257	205	52
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2023ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	4	2	27	11	16
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
IKASTARO PUNTUALAK	22	22	345	209	136
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	22	22	345	209	136
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	38	26	99	65	34
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	210	175	701	453	248

KULTUR ETXEETARA egindako bisitak, guztira 89.181
CASARES K. E.: 33.332 / TOMASENE K. E.: 55.849

LARRATXO

Kultur Etxea

Larratxoko espazio eszenikoa danborradako eta inauterietako entseguetarako, erakustaldietarako, eta betiere ikastetxeei eta auzoko beste kolektibo batzuei zuzendutako era guztietako jardueretarako eta hainbat diziplinatako ikastaroak egiteko laga zen 2023an. Kultur etxeak antzerki-egonaldiak bultzatu nahi ditu, aurten **Zirkuss** kultura-kolektiboarekin haren proiektua garatzeko egin dena bezalakoak, haiei ikuskizuna entseatzeko, ekoizteko eta erakusteko espazioa emanez.

Haurrentzako antzezlanen eskaintza nabarmendu zen urte osoan zehar; adin guztiei zuzendutako emanaldiek izan zuten arrakasta parte-hartzeari dagokionez, bai kultur etxean bertan eskaini zirenek zein auzoko jaietako kale-antzerkiek. Azpimarratzekoa da maila handiko antzerki-taldeen parte-hartzea ere, hala nola **Kantu kolore**, **Tomaxen abenturak**, **Eidabe**, **Ganso & Co**, **Potx eta Lotx**... Deigarria da emanaldi guztietan familien parte-hartze maila handia.

Larratxoko liburutegian, irakurzaletasuna eta jarduera parte-hartzaileak sustatzearen aldeko apustua egiten jarraitu zen, mailegu-zerbitzuari

entsiz eta hurrei zuzendutako programazioa berriro abian jarritz: **Ipuinaren Ordua** eta **Liburu Baby Kluba**, esaterako.

Emakumeen Astearen 38. edizioan, jende ugari hartu zuen parte jardueretan: antzerki-emanaldietan eta hitzaldietan, besteak beste. Balioa eman zitzaion emakumeen elkarteek auzoan egiten duten lanari, eta **Ausartak** Altza auzoko antzerki-talde amateurraren parte-hartzea nabarmendu behar da; **Virginia Imaz** ere egon zen **Pronoia** antzezlanarekin, eta hitzaldia egin zuen **Txaro Arteagak**.



Emakumeen astea - Viginia Imaz - Pronoia





+55 Ostiralak dantzan



DKluba - Bikutz - Hirukote



Sevillana jaialdia



XXI. Heavy jaia - Serious Black

Musikaren arloan, **Heavy Jaiaren** XXI. edizioa ospatu zen, **Serius Black**, **Lethargus** eta **Blast Wave** taldeen kontzertuarekin. Urte hauetan guztietan izan duen xarmari eta nortasunari eutsi zion jaialdiak talde hauen emanaldiekin. **Gabonak in Hell** jaialdian, **Dúnedaín**, **Hirónika**, **Wurdalak** eta **Mandrágora Negra** taldeak aritu ziren. **Euskal Metal Fest**, berriz, **Brainstorm**, **Delion**, **Evil Hunter** eta **Guadaña** taldeen kontzertuarekin ospatu zen, eta **Metal Norte Musik Festival** jaialdian, berriz, **Saratoga**, **Infamia**, **Daeria** eta **Leyenda** taldeen kontzertuez gozatzeko aukera izan genuen; Aretoa ia bete egin zuten heavy musikaren zaleek. **Festival Zombie** jaialdiarekin, berriz, lepo bete zen aretoa, **Barón Rojo**, **Öxido**, **Guru** eta **Kilwolf** taldeen kontzertuak ikus eta entzuteko.

XXIII. Bertso Aroak indar berezia izan zuen; bertsoa protagonista izan zuten hainbat ekitaldi antolatu zen urte osoan zehar, haurrei zein helduei zuzenduta. Batzuk aipatzearren, **Oihana Iguaran** eta **Amaior Luluagaren Amaraun** ikuskizuna, **Bertso Jaialdia -Nerea Ibarzabal, Sustrai Colina, Uxue Alberdi** eta **Julio Soto** bertsolariekin- eta **Anonamy Popular Igor Elortzaren** kontzertua nabarmentzen dira, jende ugari erakarri zuena, bertsoari balioa emanez Altza auzoan.

Azpimarratzekoa da parte-hartzea handia izan zela Altza auzoan egin ziren kultura-jardueretan, eta auzotarrek elkartasun eta inplikazio handia erakutsi zutelako kolektibo guztiei mesede egiteko moduko proposamenak planteatzerako orduan.

JARDUERAK

12

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 2.052

5

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.115

6

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 1.335

1

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 150

3

Hitzaldiak eta mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 297

0

Erakusketak
Erabiltzaileak: 0

90

Bilerak eta elkarten ekitaldiak
Erabiltzaileak: 1.736

56

Liburutegiko jarduerak
Erabiltzaileak: 1.058

5

Plus 55
Erabiltzaileak: 484

0

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 0

0

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 0

0

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 0

Guztira
178
jarduera
8.227
erabiltzaile

ZERBITZUAK

13.544

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

0

bisitaldi
Gaztelekua

0

bisitaldi
Haurtxokoa

0

bisitaldi
KZgunea (Nabigazioak)

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Ispilu beltza magazine-podcasts

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Musikagela

0

bisitaldi
Musika Eskola

0

bisitaldi
Plus 55

Guztira
13.544
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	31	8	103	97	6
2022-2023 IKASTAROAK	14	4	48	45	3
Ikasturte osokoak (2022ko urria - 2023ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	7	1	7	7	0
Gaztelaniaz	7	3	41	38	3
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2023ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
2023-2024 IKASTAROAK	15	4	55	52	3
Ikasturte osokoak (2023ko urria-2024ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	7	1	10	9	1
Gaztelaniaz	8	3	45	43	2
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2023ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
IKASTARO PUNTUALAK	2	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	2	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 14.494

2



2

3

EGIA
Kultur Etxea

EGIA Kultur Etxea

2023an, **25 urte** bete ziren 1998ko maiatzean Egia Kultur Etxearen **Gazteszena** espazio eszenikoa inauguratu zenetik. 25 urte bete-beteak izan dira. Antzerkia, dantza eta musika izan dira protagonista, eta programazio anitza, ausarta eta erakargarria osatzea izan da helburua. Publikoaren babesarekin eta konpainia, talde eta kultura- eta arte-eragileen konplizitatearekin, **Gazteszena** elkartzeko eta ondo pasatzeko gun e bilaka dadin lortu da.

Ikastaroen eskaintza arrakastatsua izan zen parte-hartzaile zein ikastaro kopuruari dagokionez. Askotariko diziplinak joratu ziren ikastaroetan, euskaraz zein espainieraz: dantza garaikideak, funkyak, jumpingak, joskintzak, marrazketak eta pinturak, argazkilaritzak, DJ ikastaroak eta altzariak eraberritzen ikasteko eskaintzak adin guztietako herritarrek erakarri zituzten.



Liburutegia

Haurrentzako zein helduentzako jarduera-programa zabalarekin jarraitu zuen liburutegiak: **Liburu Baby Kluba**, **Zeu irakurle gu kontalari**, **Ipuinaren Ordua**, **Literatur Solasaldiak**, **Zifiegia**... Baita, **Atzegi** elkartearekin lankidetzan, Irakurketa Erraza taldea ere, eta Plus 55 Irakurketa Kluba, harrera oso ona izan zuena, 70 eta 90 urte bitarteko 25 lagunren parte-hartzearekin. Hilero zeinuen hizkuntzan egiten den ipuin-kontakteta saioekin ere jarraitu zuen liburutegiak. 2023an ere arrakasta handiz ospatu zen **Frikiegia**, **Harrotasun Frikiaren** hilabetea; auzoko gazteek japoniar mangarekin, komikiekin eta, oro har, zinemarekin zerikusia duten jokoez gozatu ahal izan zuten, zozketa, sari eta guzti.

Jarduera bereziak ere antolatu ziren, hala nola **Giza Liburutegia**, **Plus 55** eta **Berrizturekin** lankidetzan, hainbat gairen inguruko aurreiritziak desegiteko espazioa (suizidioa, buruko gaixotasunak, bakardadea, droga-mendekotasuna, pobrezia, immigrazioa, etab.). Giza Liburutegia proiektuaren baitan, pertsonak ezagutzak eta bizipenak trukatzeko dituzte, elkarriketaren bitartez. **Egiako Gaztelekuarekin** eta **Plus 55** zerbitzuarekin lankidetzan, belaunaldi arteko tailerrak egin ziren. **Gau Beltza** ospatu zen, esaterako, eta gazteek elementu beldurgarriekin apaindu zuten liburutegia, ipuin beldurgarrien kontaketa gozatu zuten (kontalari beteranoenen ahotik: **Teo Santamaría**, **Mila Mendia** eta **Conchi Barredo**), eta Transilvaniako

konde batentzako moduko askaria prestatu eta jan zuten. Halaber, Egia auzoko **Ebla** liburu-dendarekin lankidetzan, eta Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astearen egitarauaren barruan, bi rol-saio egin ziren, parte-hartze handiarekin.

Gure ingurune hurbileko idazleek ere izan zuten lekua liburutegian, eta tonu eta gai askotako liburuaren aurkezpenak egin zituzten. Horrela, **Eneko Bidegain** izan genuen bere **Brichta Éder** eleberriaz hitz egiten, eta **Raúl Pérez**, **Tropel amaigabea** liburuaren aurkezpena egiten.



Giza Liburutegia



Puy Barral, Plus 55



Un Elogio sobre la vejez, Ondoko

Plus 55

Beste urte batez, **Plus 55** zerbitzuaren Irakurketa Klubaren ikasturte amaiera ospatzeko, Egiako Liburutegia, **Musikagela** eta **Plus 55** zerbitzua elkartu, eta **Puy Barral** poetak zuzendutako irakurketa antzetzua eskaini zuten, **Manu Gaignek** gitarrak lagunduta, irakurketa-tailerrean parte hartu zutenek idatzitako edo hautatutako testuekin. Muntaia hunkigarria izan zen, eta taldea literaturaren inguruko esperientzia berriak bizi izatera animatu zuena, beste arte batzuk txertatuta, kantua eta musika, esaterako.

Plus 55 funtsezko zerbitzu bihurtu da urte hauetan, eskari handia duena. Nabarmentzekoa da 2023an **belaualdi arteko jarduera gehiago** antolatu zirela auzoko hainbat zerbitzu eta baliabiderek. **María Reina ikastetxearekin** batera, digitalizatzeari buruzko tailerra egin zen, **Berritzu Elkartearekin**, berriz, hainbat gairi buruzko hamar saio, tartean bi Giza Liburutegi. Gaztelekuarekin eta liburutegiarekin, **Harrotasun Frikiaren hilabetea** eta **Gau Beltza** antolatu ziren.

Egia Kultur Etxearen beste zerbitzu batzuekin ere hainbat jarduera antolatu zen, hala nola (*Re*) *descubre la música clásica* ikastaroa, Musikagelarekin batera, eta irakurketa-tailerra Liburutegiarekin; eskari handia izan zuten bi jarduera horiek, eta balorazio oso positiboa egin zuten parte-hartzaileek. 2023an ere **Mafalda Saloiok** ematen duen **Ondoko** antzerki-eta dantza-tailerrak eta **Igor Calonge** koreografoak ematen duen dantza garaikideko ikastaroak plaza gehiago eskaini behar izan zituzten eskari guztiei erantzuteko.

Donostia Kulturak antolatzen duen **dFERIA** jaialdiaren XXIX. edizioaren barruan, **Un Elogio sobre la vejez** performancean parte hartu zuen **Ondoko** taldeak **Euskadiko Gazte Orkestrako (EGO)** musikariekin lankidetzan eta harrera bikaina izan zuen lan horrek kritikaren eta publikoaren aldetik.

Un elogio sobre la vejez ez-ohiko ikuskizuna da, 72 eta 94 urte bitarteko protagonistak dituen, eta zahartzarora, hauskortasuna eta indarra goretsi nahi dituen. Bidaia sensoriala eta emozionala proposatzen du, geure buruari arteak gaur egun zahartzeak esan nahi duenaren inguruan dauden ikuspegi estereotipatuak eta ereduak nola eraiki, betikotu eta desafiatu ditzakeen planteatzera eramango gaituena.

Mafalda Saloi aktore eta sortzaileak zuzendutako ikuskizuna da, eta Donostiako Egia auzoko adineko pertsonekin eta **Euskadiko Gazte Orkestrako (EGO)** musikarien partaidetzarekin egindako sorkuntza kolektiboko prozesu baten emaitza izan zen. Gorputzen, ahotsen, musikaren eta emozioen bitartez, adinari buruzko aurreiritzirik gabeko ikuspegi bat landu nahi du. **Ondoko** taldeak 2018an ekin zion bere ibilbideari, Egia Kultur Etxeak eta **Donostia Lagunkoia** ekimenak bultzatuta. Helburua zen artearen bitartez adineko pertsonen eta auzoaren artean elkartzeko eta zaintzeko sareak sortzea. dFERIAk duen garrantzia eta ezaugarriak kontuan hartuta, era horretako jaialdi batean parte hartzeak motibazio handia sortu zion taldeari. Gero eta jende gehiago ari da sartzen taldean, eta dagoeneko proiektu berriak lantzen hasteko asmoa dute.

Moor Krad, Ertza



Dantza

Aurreko urteetako lanarekin jarraitu zuen Egia Kultur Etxeak dantza-konpainiei babesa emanez, haien proposamenak eta proiektuak baldintzarik onenetan sortzeko eta garatzeko espazioa eskainita. Emanaldiak, sorkuntza eta sentsibilizazioa izan ziren funtsezko helburuak.

Egonaldien proiektua erreferente bihurtu da dantzaren munduan, eta hainbat euskal konpainiak hartu zuen parte; lanerako aretoak utzi zitzaizkien, eta lagundu egin zitzairen sorkuntza-prozesuan, alderdi teknikoetan eta haien proposamenen estreinaldietan. **Lasalak** hamargarren urteurrena ospatu zuen **Lasala 10 urte** ikuskizunarekin; lan horretan, errepaso koreografiko bikaina egiten zaio hamar urteko sorkuntza-ibilbideari. **Ertza** konpainiak berriro eragin zuen harridura, **Moor Krad** proposamenarekin. **Daniel Abreuk** lan pertsonala eta ederra egin zuen **El Arco** ikuskizunean, **Dácil González** dantzari zoragarriarekin eta **Elisa Tejedor** biolontxelo-jotzailearekin batera. **Cielo Raso** konpainiak berriro aurkeztu zuen **Hâmaiká** bere koreografia-lan indartsua, eta **Née** estreinatu zuen, **Igor Calongek** antzeztu eta sortutako bakarkako lana. **Camínate Proiektuaren** bultzatzaile **Oihana Varela Plañideras** lanarekin itzuli zen Gazteszenara, tragedia bat produktu bihurtzeari buruzko istorioa, arranguraren eta heriotzaren presentziarekin. Proiektu interesgarria, profesionalak ez diren zazpi emakumerekin, negar-kantariekin, tailer bat burutu zuena; emakume horiek lagun izan zituen dantza-eta komunitate-lan interesgarri honetako artista-zerrendak. **Runa** ikuskizun ederra eskaini zuen **Lali Ayguadék** eta **Lisard Tranisek** osatzen duten bikote liluragarriak, interpretazio nabarmen batekin. 2023an



Hâmaiká, Cielo Raso

bi **Max sari** irabazi zuen lan horrek, koreografia onenarena eta emakumezko antzezleri onenarena. **Brodas Bros** konpainiak, berriz, benetako festa bihurtu zuen aretoa **Doji** dantza- eta energia-ikuskizunarekin; publikoa zutik eta dantzan jarri zuten azkenean. **Led Silhoutte** konpainia nafarra eta **Marcos Morau** izan ziren, zalantzarik gabe, benetako ezustekoa **Los Perros** beraien proposamen bikainarekin; dantza pasional baten erakustaldia da, errepikapenean eta katarsian aurkitzen duena bere zentzurik benetakoena. Akitu arte dantza egitea; abaildu arte zaunka egitea; ahitu arte bizitzea. **Roberto Olivane**k zuzentzen duen **Ropa** konpainiak **Gold** lana ekarri zigun, bizikidetzatza, tolerantzia, aniztasun eta onarpenerako gonbidapena egiten digun dantza-ikuskizuna.

Dantza garaikideko ikuskizunen eskaintza interesgarria izan genuen; nabarmentzekoak dira proposamen guztien kalitate bikaina eta sortzaileen eta antzezleriaren maila artistiko handia.



Lasala 10 Urte, Lasala

Antzerkia

Euskal konpainien programazioak lehenetsunezko izaten jarraitzen du antzerki-eskaintza osatzerako orduan. 14 emanaldi eskaini ziren euskaraz. **Itsas Behera** lana aurkeztu zigan **Pez Limbo** konpainiak, eta beste urte batez, Gazteszenako aretoa bete zuen **Barrexerkak**, oraingo honetan kolektibo gazte honen umorezko bidaia dibertigarri eta zirrargarri batekin: **Bagoiaz! Horman Poster** egitasmoa – Donostia Saria 2021– **Souvenir estralurtarrak** muntaia ausart eta orijinalarekin etorri zitzaigun. **Metrokadroka Sormen Laborategiak** harritu egin gintuen familia-ereduei buruzko **Zeozertan dabil baina ez dakit zertan** sitcom poetikoarekin. **Nerea Ariznabarretak** eta **Kepa Errastik** antzezten duten **Xake Produzioak** konpainiaren **Postdatarik gabeko gutunak** bakarrizketa lagunduak eman zion amaiera **Mira Hadi** programazioari, **Eulalia Abaitua** argazkilariaren lanean eta bizitzan oinarritutako **Loraldia** elkartearen ekoizpen interesgarria.

Lehen aldiz iritsi zen Gazteszenara **Labo XL 5** jaialdia, eta **Mitologia Txikiak** lana programatu zuen, Baionako **Bilaka** konpainiarena, **Euskal Kultura Erakundearekin** (EKE) lankidetzan.

Gazteszenak eta euskaraz jarduten duten euskal konpainien programazioak erreferente izaten jarraitu zuten Donostiako eta Gipuzkoako publikoarentzat.

2023an ere garrantzitsua izan zen zirkoaren presentzia. **Déjà vu** ikuskizun zoragarria ekarri zigan **Manolo Alcántarak**, zirko garaikideko ikuskizun benetan erakargarria, ausarta eta

liluragarria; Donostiako ikastetxeetako 700 gaztek baino gehiagok gozatu zuten ikuskizunaz. **Lander Briones** zirko-artistak **Zirkuss** konpainia jarri zuen martxan, eta arrakasta handiz aurkeztu zuen **Sustraia** bere lehen lana.

Haurrentzako antzerkia ere izan genuen, konpainia garrantzitsuen eskutik: **Benetan Be**, **Gorakada**, **Logela multimedia**, **Tomaxen abenturak**, **Ponten Pie Bajau** konpainia kataluniarra eta **Mar Mar Teatroa**.

Eskolatik Antzokira programak **Ponten Pie** konpainiaren **Bajau** lanaren eta **Manolo Alcántararen Déjà vu** zirko-ikuskizunaren 15 emanaldi eskaini zituen; Donostiako ikastetxeetako 2.880 neska-mutiko igaro ziren Gazteszenatik.

Antzerki amateurrek ere izan zuen bere lekua **Aitor Ikastolaren Antzerki Astearen** eskutik; Gazteszenan ikastetxe horretako ikasleen lan artistikoa ikusteko aukera izan genuen, eta publikoaren babesa eta txaloak jaso zituzten. Beste urte batez, **Gazte Antzerki Topaketak** egin ziren, **Santo Tomas Lizeoaren** eta **Binahi akademyren** parte-hartzearekin; **Gure Miñan** eta **Matrioxkak** lanak eskaini zituen lehenengoak, eta **Lisistrakoak**, berriz, **Binahi akademyk**. **Zurriola Antzerki Eskolak**, bere aldetik, **Samuel Beckett** dramaturgoaren **Godoten Esperoan** antzezlan zaindua estreinatu zuen.

TAE Arte Eszenikoen Eskolak ikasturte amaierako erakustaldiak egin zituen, antzerki-ikasleak protagonista zirela.



Posdatarik gabeko gutunak, Xake



iDale Ramón!, Trapu Zaharra

Arte eszenikoen eskaintzaren barruan, aipamen berezia merezi du **Huesos** diskoak; **Puy Barral** poeta eta **Munu Caigne** musikaria kontzertu poetiko intimo eta goxo batean elkartu ziren, hainbat artistaren parte-hartzearekin. Poesia eszenikoa eta perkusioa, agertokian dantzari.

Oparoa izan zen kale-, zirko-, dantza- eta antzerki-programazioa. **iDalé Ramón!** antzezlana eskaini zuen kale-antzerkian aitzindaria den **Trapu Zaharra** konpainiak. **Manolo Alcántarak** zirkoa ekarri zigun **Maña** ikuskizunarekin; arku erraldoi baten instalazio harrigarria da, eraikuntza-prozesu benetan hipnotikoa erakusten duena. **Colectivo Glovo** konpainia galiziar-portugaldarrak **Alleo** eskaini zuen, sustraidun eta dantza indartsuko ikuskizuna. **La medida que nos ha de dividir** kale-antzerkia aurkeztu zuen Nafarroako **Qabalum** konpainia gazteak, etorkizuna edo izango dugun bizitza planteatzerakoan kezkatzen edo asaldatzen gaituzten, edo ilusioa, nahia, presa edo zalantza eragiten dizkiguten gauzei buruzko hausnarketa. Azkenik, Donostiako **Node** konpainiak **belaunaldi arteko gorputzen eta haien mugimenduaren, musikaren eta jantzien bitartez bidaiatu** zuen **Ion Estala, Myriam Pérez Cazabón eta Borja Borbonaberen** eskutik, **Eñaut Mitxelena poetaren, Mikel Zubiria musikariaren eta Amarenak kolektiboaren** eskutik. Aipatzekoa da **Redescenak** kudeatzen duen **Danza a escena** zirkuituaren kolaborazioa; horri esker, kalitate handiko dantza-konpainiak ekarri ahal izan genituen Donostia.

Maiatzean, **Poltsiko Antzerkia** jaialdia egin zen, eta emanaldiak izan ziren auzoko hainbat lekutan, hala nola **Taban, La tabernan eta Egiatarra Erretiratuen elkartean. Euskaldunen historia ta irria** Poltsiko Antzerki Sorkuntza Lehiaketako testu finalista izan zen; gure historian zehar bidaiatzeko aukera orijinala, **Txikik** antzeztutako umorezko bakarriketaren bitartez kontatua. Arrakasta handiz aurkeztu zuen **Nomofobikoak** konpainiak **2022ko Poltsiko Antzerki Sorkuntza** lehiaketa irabazi zuen **Kris eta krash** lana. **Diego Peña** bakarriketaria **21** bere proposamena aurkeztera etorri zen jaialdira; 21 urte darama komediaren munduan, eta hortik bere lanaren izenburua. Magiari dagozkionez, **Amelie** izan genuen, **Más magia** bere ikuskizun delikatu eta poetikoarekin.



Huesos, Puy Barral, Manu Caigne



Zeozertan dabil baina ez dakit zertan, Metrokoadroka Sormen Laborategia

Erakusketak

Hainbat erakusketa egin zen 2023an. **COAVN** Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Gipuzkoako ordezkariak **“Ondare-atariak, irisgarriak eta inklusiboak?”** erakusketa antolatu zuen. Donostiako ataririk enblematikoenak xehetasunez ezagutzeko aukera eman zuen erakusketak; interes handia piztu zuen gaiak, eta hainbat bisita gidatu ere egin zen. Egia auzoan bizi den **Julio Pardo** artista donostiarrak munduari buruzko ikuspegi bat agerian uzteko margolanak eta marrazkiak erakutsi zituen **Noranahi** erakusketan; askatasunez eta ironiaz, historia eta artea begiztatuz.

Juankar Hernández argazkilaria **Fototeka Bizileku** erakusketaren eskutik iritsi zitzaigun argazkigintza; oleoz tratatutako irudi-multzo bat erakutsi zigun argazkilaria, non prozesua bera den sorkuntzen arteko lotura.

Musikagela

Datu bikainak lortu zituen zerbitzuak eta, horrela, bete egin ziren tokiko eszenan musika-jarduera bultzatzeko eta dinamizatze markatutako helburuak.

Txandakatze-modalitatean jarraitu zuten martxan zortzi entsegu-aretoek (horietako bost erabat ekipatuta daude), jarduera-maila handiarekin. Aipagarria da 2023an publiko gaztea iritsi zela; oro har, askotariko profilak dituzte zerbitzu honetara jotzen duten pertsonak, adinari zein estiloei dagokienez. 70 proiektu jaso zituzten areto hauek, hileko 40 taldeko eta 162 erabiltzaileko batez bestekoarekin.

Zuzeneko kontzertuak edo grabaketak egiteko materiala laga zaie Musikagelan entseatzeko duten hainbat proiektuari (**Dead Flowers, Watxuwei, Dos, Rivendel, Badmintones, Motelas, Los Premodernos, Rumbling Lips, I.T.T**), eta zentroaren barruan bideoak edo maketak grabatzeko espazioen lagapena sustatzen jarraitu zuen zerbitzuak. Horixe da **Dos** eta **Rivendel** taldeen kasua.

Prestakuntzari dagokionez, **Musikagela Lab** deritzon espazio propioa sortu zen, areto egokitu bat, hazten jarraitzeko eta 2022an egindako apustuari eusteko aukera eman duena, aste barruko eskaintza handituz eta, gai batzuetan, ikastaroen iraupena luzatuz.

Ines Azpiazuk DJ izateko hastapen-ikastaroak eman zituen. **Haizea Huegunek**, berriz, (**Re descubriendo la música clásica** eta **Musika-konposizioko tailerra**). DJentzako ekoizpenari buruzko ikastaroa eman zuen **Telmo Trenorrek**, eta gitarra akustikoak eta elektrikoak nola grabatu eta

baxu eta gitarra elektrikoak nola doitu (zubi finkoa eta higikorra) irakatsi zien **Gorka Urrak** ikasleei. Guztira, 10 ikastaro antolatu zituen Musikagelak.

19 urteko ibilbidearekin, hasierako izpirituari eusten dio **Musikagelak**, eskaintzen dituen zerbitzu guztietan komunitatea sortuz, dinamika aktibo eta parte-hartzaileekin (entsegu-aretoak, ikastaroak, master classak, aholkularitza eta zuzeneko kontzertuak).

Egia Bizirik, Aitor Ikastola, Egia euskaraz, Atzegi, Berriztu... hainbat elkarte hartu zuen parte Egia auzoko dinamikan eta jardueren antolakuntzan. Batzarrak, hitzaldiak eta hileroko zineforum-saioa izan ziren urtean zehar eskaintako jardueretako batzuk. Auzo inklusiboagoa lortzearen alde lan egiten duen **Egia Zeinuka Taldeak**, bestalde, zeinuen hizkuntza ikasteko eta, horrela, pertsona gorrekin komunikatu ahal izateko tailerrak eskaini zituen, arrakasta handiz.

Garrantzitsua izan zen kultur etxearen parte-hartzea Egian antolatu ziren hainbat ekitalditan: **Porrontxo jaietan** -haurrei zuzendutako eskaintza zabala eta zaindua- eta **San Joan bezperan**, esaterako, azken hori auzoan erabat finkatuta dagoen ekintza. Egiako auzotar ugari hartu zuen parte jai horietan. **Antxeta** elkartearen 40. urteurreneko ospakizunak antolatzen ere lagundu zuen kultur etxeak. 1983an sortu zenetik, lan handia ari da egiten elkarte hori Egia auzoan.

Azkenik, nabarmentzekoa da dinamika irekia eta parte-hartzailea dagoela kultur etxean, auzoko bizilagunen presentzia handiarekin. Egunero etortzen dira gugana, ez bakarrik jardueretan parte hartzera eta gure zerbitzuak erabiltzera, baizik eta baita haien kezkek eta iradokizunak guri planteatzera ere.



Dos, bideo grabaketa

JARDUERAK

39

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 6.291

9

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 447

212

Bilerak eta elkarten ekitaldiak
Erabiltzaileak: 2.386

104

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 1.146

29

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 5.834

3

Hitzaldiak eta mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 160

193

Liburutegiko jarduerak
Erabiltzaileak: 2.672

0

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 0

2

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 660

5

Erakusketak
Erabiltzaileak: 2.675

171

Plus 55
Erabiltzaileak: 2.803

115

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 804

Guztira
882
jarduera
25.878
erabiltzaile

ZERBITZUAK

24.978

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Haurtxokoa

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
Bideo tailerra

2.534

bisitaldi
Ikasgela

5.609

bisitaldi
KZgunea (Nabigazioak)

0

bisitaldi
DK Irratia web

4.691

bisitaldi
Musikagela

4.623

bisitaldi
Gaztelekua

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
Ispilu beltza magazine-podcasts

0

bisitaldi
Musika Eskola

Guztira
42.884
BISITALDI

449

bisitaldi
Plus 55

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	347	292	2.475	1.789	686
2022-2023 IKASTAROAK	52	40	583	513	70
Ikasturte osokoak (2022ko urria - 2023ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	24	17	242	227	15
Gaztelaniaz	20	18	287	260	27
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2023ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	4	2	23	12	11
Gaztelaniaz	4	3	31	14	17
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
2023-2024 IKASTAROAK	61	44	663	541	122
Ikasturte osokoak (2023ko urria-2024ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	1	0	0	0	0
Gaztelaniaz	1	1	8	6	2
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	26	17	268	228	40
Gaztelaniaz	21	19	310	280	30
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2023ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	6	1	12	5	7
Gaztelaniaz	6	6	65	22	43
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	74	71	417	200	217
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	160	137	812	535	277

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 92.588

2



2

3

ERNEST LLUCH
Kultur Etxea



Nuevos Hobbies, Iruñako taldea

ERNEST LLUCH Kultur Etxea

92

Kultur etxeko programazioa oparoa izan zen 2023an eta, ohi bezala, bereziki aipagarria literatura, pentsamendua eta gaurkotasunari eskainitako tartea. Kultur etxea kokatzen den ingurua jasaten ari zen aldaketa urbanistikoen ondoriozko lanek ez zituzten kaltetu eskainitako zerbitzuen erabiltzaile kopuruak.

Ikastaroei dagokienez, literatura, poesia, ipuingintza, geopolitika, gaurkotasuna, ongizatea eta naturaren gaineko ikastaro eskaintza zabalari bikain erantzun zioten erabiltzaileek eta, besteak beste eta besteak beste, **1.400** ikasle matrikulatu ziren 2023-24 ikasturtearen hasieran. Jendetsuenak, beste behin, **Iñigo Artamendiren *Análisis de la actualidad internacional***, **Marko Sierraren** Donostia eta Gipuzkoako natura ezagutzeko saioak eta **El Orden Mundialeko** partaideen ***Conflictos geopolíticos en una crisis global*** izan ziren.

Literaturaren arloan, hamaika liburu aurkezpen eta solasaldi egin ziren urtean zehar. Udaberriari **Sara Mesa**, **Elvira Navarro** eta **Edurne Portelaren** bisitak jaso zituen kultur etxeak. Martxoan Poesialdiaren bosgarren edizioa antolatu zen Liburutegi Nagusiarekin batera eta sei egunetan zehar hainbat ekitaldi izan ziren. **Carlos Marzal**, **Manuel Vilas** eta **Mircea Cărtărescuren** poesiaz gozatzeko aukera izan zen Ernest Lluch Kultur Etxean. Jarraian, Ateneoarekin elkarlanean eta ***Literatura jazarriak*** zikloaren baitan, **Joaquin Marta Sosa** etorri zen Venezuelako poesiaz solastera.

Maiatzean, ***Moby Dick*** ardatz hartuta, **Harry Rijn** baleen ehizaz, eromenaz eta diktadoreek erabilitako kontrol-mekanismoetaz modu dramatizatuan aritu bazen, **Fernando Navarro** musika-kritikari eta kazetariaren bisitaren harira ***Nuevos Hobbies*** talde naparraren kontzertua

eskaini zen areto nagusian. Ekainean, Realaren **Korner** jaialdiaren baitan, **Harkaitz Cano** eta **Karmele Jaio** euskal literatura eta futbolaren arteko harremanaz aritu baziren, **Enrique Vila-Matas** bitxiak futbolari buruzko bere ikuspegi eta hausnarketa azaldu zuen **Ylenia Benitorekin** solasean.

Urria izen handiekin hasi zen: **Ramón Andés** Poesia sari nazionalaren irabazleak **Pablo d'Ors** elkarrizketatu zuen eta bi aldiz etorri zen **Roberto Herrero**k, **Juan Cruz Igerabideren** aforismoen eta **Francisco Javier Irazokiren** poesien bilduma berriak aurkeztu zituen.

Urtero legez, azaroan, Literaktum jaialdiaren baitan, hitzordu interesgarriak izan ziren areto nagusian. Jaialdia zabaltzeko, **Gioconda Belli** idazle nikaraguarra elkarrizketatu zuen **Irati Gokoetxeak**, eta hurrengo egunean, **Antje Rávic Strubel** idazle alemaniarra bere lehenengo eleberriaz aritu zen **Luisa Etxenikerekin**. **Literatura infantil ¿cambiamos el cuento?** mahainguruz gozatzeko aukera ere izan zen. **Yolanda Arrieta**, **Belén Gaudes** eta **Sandra Sánchez García** idazleek jorratu zuten gaia, **Beñat Sarasolaren** gidaritzapean.



Francisco Javier Irazoki, Roberto Herrero



Gioconda Belli, Irati Goikoetxea



Literatura infantil ¿cambiamos el cuento? © Iñaki Rubio



Emakume zientzialarien argitan, Ana Galarraga, Aiora Zabala



Café de la Gare erakusketa, Javier Mina

Ezin ahaztu azken urteetan garatutako zientziaren arloko bi zikloak. Bata, Donostia International Physics Centerrekin antolatutakoa **Zientziaren bide berriak** izenpean eta punta-puntako gaiak jorratu zituen. Bi hitzaldi izan ziren: maiatzean **Txomin Romero** super ordenagailuetaz aritu bazen, azaroan **Silvia Bonoli** italiarra espazioko zulo beltz supermasiboetaz mintzatzera etorri zen. Bestea, Elhuyarren eskutik eta **Ana Galagarrak** aurkeztuta, **Emakume zientzialarien argitan** euskarazko zikloa. Urtean zehar sei ekimen gauzatu ziren eta jorratutako gaiak, askotarikoak. Udaberrian protagonistak **Itziar Cortes Etxabe** informatikan ingeniaria, **Marian Iriarte Ormazabal** kimikaria eta **Aiora Zabala Aizpuru** ingurumen-zientzialaria eta ekonomialaria izan ziren. Udazkenean, aldiz, **Miren Vives** arkitektoa, **Uzuri Albizu** matematikaria eta **Onintze Salazar** fisikaria eta metereologoa.

Kultur etxeak sei erakusketa hartu zituen. **Pablo Casares** artista donostiarrak margotutako paisaia efektistek osatzen duten **Norte** bildumak eman zion hasiera urteari. Poesialdiaren baitan Kiev eta Odessa hirien argazkiak biltzen zituen **No vodka on the moon** aurkeztu zen, non **Ricky Davilaren** lanak bizitza berri baten bila egindako bidaia galdu batera gonbidatzen zituen bisitariak. **Naturaren Emakume Defendatzaileak** erakusketak, aldiz, deforestazioaren eta Amazoniako giza eskubideen urraketaren arteko loturaz sentsibilizatu nahi izan zituen bertaratutakoak. Korner jaialdiak **Marrazketabar: marrazkien**

indarra ekarri zuen kultur etxera. Realaren irudia berriro izan zuten ilustratzaile eta sortzaile **Mikel Sororen** lanek izandako bilakaera eta futbolaz haratago ere garatutako proiektuak jasotzen zituen. Irailean **Javier Minaren** margolanak erakutsi ziren **Café de la Gare** izenburupean. Idazle eta Ernest Llucho gaztelaniazko tertuliaren gidariak, bizitzan bere orientazio eta lehenetasunak markatu zituzten pertsona historikoak bildu zituen emaitza koloretsu batean. Azkenik, **David Guiraoren** ilustrazioetan oinarritutako **Munduari itzulia 80 egunetan** muntaia aurkeztu zen Literaktumen baitan, **Jules Verne**ren klasiko unibertsalena argitaratu zeneko 150. urteurrena zela eta.

Arte eszenikoak eta musika ere izan ziren. Kultur etxean haurrentzako antzezlanak izan ziren, batez ere urte hasieran eta amaieran. Udaberrian **Oihan Vega**, **Txintxeta**, **Klipa eta Txorroskilo**, **Plast & Co** pasa baziren, udazkenean **Eneko eta Ixabel**, **Pantzart teatroa** eta **Eriz Alberdi Munduari itzulia 80 egunetan** lanarekin izan ziren. Helduei dagokienez aipatu, besteak beste, auzoko **Banda Bi** taldeak eskainitako **Abelardo mon amour** kontzertu-antzerkia.

Maiatzeko Poltsiko Antzerkia jaialdiaren barruan hiru emanaldi izan ziren auzoko tabernetan: **Aroa Berrozperen** **Mejor será reirnos**, **Amèlie magoaren** **Más magia eta Kaitin allende**, **Oihane Perea** eta **Iratxe Ibarren** **Kilimaterioa** ikuskizuna.



Amilami, Pantzart Teatro



Mejor será reírnos, Aroa Berrozpe

Uda partera begira, ikuskizunak auzoetako jaietara eraman ziren: maiatzean Morlansen **Ostomila Txotxongiloak** eta ekainean, Ikasbide jaietan **DJ Kaktus** eta **Tor Magoa**. Uztailean Amara Berrin **Totoro basoa**, eta Amara Zaharrea, **Trapu Zaharra** eta **Antxo eta Pantxa** pailazoak. Irailean Loiolako Erriberatan Ttiki Ttaka irratia eta Amara egunean, Disko Arima. Azkenik, Eguberrietan **Patxin eta Potxin** aritu ziren Amarako Zaharreko frontoi estalian.

Urriari **Argiaratean** hirugarren edizioa antolatu zen Loiolako Erriberatan Loiolako Kultur Etxearekin eta komisarioekin elkarlanean. Asteburuko bi gauetan hainbat zuzeneko emanaldi, proiektio eta arte pieza egon ziren ikusgai lesu elizaren barruan eta kanpoaldean, guztiak argia ardatz zutelarik. Arrakastatsua publiko eta kritika aldetik, denetariko ikus-entzuleak hurbildu ziren arteaz eta musikaz gozatzeko.



Azkenik, nabarmendu azaroan Carmeliten elizan Koreako **Seongdong-Gu** emakumezkoen abesbatzak eskainitako saio arrakastatsua.

Ezin utzi aipatu gabe urrian ere III. Amara Berri egunaren antolakuntzan hartu zuela parte kultur etxeak auzoko beste hainbat eragileekin batera. Besteak beste, Amarauna, +55 eta Haurtxokoa eta Gaztelekua bertaratu ziren kultur etxetik haizetsua baina jendetsua suertatu zen datan.

Kultur etxeko **liburutegia** bere egitaraua sendoarekin jarraitu zuen urtean zehar, erabiltzaileen kopuruak gora egin zuen, maileguak areagotu eta ikastetxeentzako bisita gidatuak maiz egin ziren. Aipatu behar bereziak dituztenentzat bolondresen bitartez etxeetara mailegatutako liburuak eramateko zerbitzu berezia jarri zela abian.

Bestetik, **Javier Mina**ren eskutik jarraipena zuen solasaldi literarioak 20. urteurrena ospatu zuen eta urtean zehar, besteak beste, **Ibon Martin** autorearen izan bertan. Ikasbiden egindako euskarazko solasaldietan **Amair Epher**, **Miren gorrotxategi** eta **Iratxe Ormaz**a bertaratu ziren. **HII!, Hiriko idazleak!**



Solasaldi literarioak 20. urteurrena, Javier Mina, Ibon Martín

zikloaren baitan **Begoña Garayoa**, **Josu torres**, **Luis Alfaro** eta **Ana Maria Reoyo** idazle donostiarren aurkezpenak egin ziren Topagunean. Bestalde, ezin ahaztu erabiltzaile ugari biltzen zituzten ohiko bestelako programak: *zeu irakurle geu kontalari*, *ipuinaren ordua* eta *liburu baby kluba*.

Azkenik, Gaztelekua eta Haurtxokoa kultur etxearen aurreko lokaletara itzuli zirenetik erabiltzaile kopurua handituz joan zela baieztatu zen. Euren zerbitzuak oso ondo hartuak izan ziren, batez ere auzoko jaietan: Morlansen, Loiolako Erriberetan, Super Xagu Jaietan, Amara berri egunean edo Euskararen inguruko ekitaldietan hartu zuten parte.



Seongdong-Gu Women's Choir

JARDUERAK

18

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.755

0

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

5

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 815

0

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

26

Hitzaldiak eta mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 1.211

7

Erakusketak
Erabiltzaileak: 5.892

163

Bilerak eta elkarten ekitaldiak
Erabiltzaileak: 3.955

225

Liburutegiko jarduerak
Erabiltzaileak: 3.214

62

Plus 55
Erabiltzaileak: 2.324

103

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 1.333

100

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 2.562

1

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 123

Guztira
710
jarduera
23.184
erabiltzaile

ZERBITZUAK

129.053

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

4.865

bisitaldi
Gaztelekua

4.714

bisitaldi
Haurtxokoa

7.044

bisitaldi
KZgunea (Nabigazioak)

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Ispilu beltza magazine-podcasts

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Musikagela

0

bisitaldi
Musika Eskola

684

bisitaldi
Plus 55

Guztira
146.360
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	339	274	3.431	2.180	1.251
2022-2023 IKASTAROAK	77	52	1.244	645	599
Ikasturte osokoak (2022ko urria - 2023ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	8	8	603	158	445
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	20	10	127	112	15
Gaztelaniaz	22	20	285	234	51
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2023ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	1	0	0	0	0
Gaztelaniaz	3	3	79	55	24
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	13	1	15	6	9
Gaztelaniaz	10	10	135	80	55
2023-2024 IKASTAROAK	81	50	1.286	939	347
Ikasturte osokoak (2023ko urria-2024ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	19	9	117	103	14
Gaztelaniaz	30	28	918	679	239
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2023ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	21	4	79	32	47
Gaztelaniaz	11	9	172	125	47
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	110	106	528	354	174
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	71	66	373	242	131

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 139.734

2



2

3

INTXAURRONDO
Kultur Etxea

INTXAURRONDO

Kultur Etxea

Intxaurrondo Kultur Etxea musika-programazioan espezializatuta egoteagatik nabarmentzen da, eta gero eta erreferente garrantzitsuagoa da sortzaileentzako zein publikoarentzako oro har. Antolatzen dituen ekitaldi anitzei, tokiko artistak promozionatzeari eta jendearen erantzun ezin hobeari esker, gero eta estimazio handiagoa du komunitatean.

Urteko gertaerarik garrantzitsuenetako bat musika-programazioaren hasiera izan zen, otsailean, **Musikagela Weekend** jaialdiaren XIII. Edizioarekin. **La Perra Blanco**, **Rambling Lips** eta **Ramade Inn** taldeen kontzertuek harrera bikaina izan zuten, kultur etxearen nabarmentasuna areagotzen lagunduz.

Musikagelak, entseatzeko espazioak eskaintzeaz gain, nabarmentzekoa da aurten ere aukerak eman dizkiela tokiko musikariei, **Dkluba** programaren bitartez. Programa horrek, tokiko artistei haien proiektuak aurkezteko aukera emateaz gain, sormen-garapenerako baliabideak eta aholkularitza ere eman zizkien.





Su Ta Gar, Dkluba



Corizonas, Dkluba



El columpio asesino, Dkluba



Kutixik Jaialdia, Dkluba

Dkluba programako jardueren artean, martxoko eta apirilko ekitaldiak nabarmendu ziren; martxoan, **Goxuan Salsa** taldearen emanaldia izan genuen, eta **Quitapenas Colectiva** izan zen talde gonbidatua. Apirilean, berriz, erabat bete zen aretoa, **Su Ta Gar** taldearekin. Maiatzean, bestalde, arrakastatsuak izan ziren **Corizonas** eta **Ibil Bedi** taldeen kontzertuak eta, irailean, sarrerak agortu egin ziren berriz ere, **El Columpio Asesino** taldearen kontzerturako.

Bi jaialdi aipagarri izan genituen urrian: **Donostikluba jaialdiak hiri-musikez bete zuen** Intxaurren, eta publiko gaztea erakarri zuen, hainbat talderekin: **Osrlock, Hazeatxo** eta **Tximu, Khaled, Tinez**; eta **Jamrock**, bere reggae energiarekin giroa asaldatu zuena. Nabarmentzekoak dira **OBF Charlie P. & Sr. Wilson Inés Pardorekin, The Titanians, Eira, King Consul, Ghetto Fyah Sound** eta **Revolutionary Brothers** antolatzaileak.

Jaialdi horiei **Kutixik Jaialdia** gehitu zitzaion, urtero, **Balio Dute** kolektiboaren inguruan hainbat talde biltzen dituen, euskaraz sortutako musika

sustatzeko eta ezagutzera emateko. Azaroko edizio honetan, **Nakar, Haira, Pelax, Toc** eta **Ginger** taldeek erakutsi zuten haien lana aretoan.

Urteari amaiera emateko, **Dklubaren** azkeneko emanaldian **Iván Ferreira** izan genuen, **Musikagelarekin** lotura duen musikaria, baita **Ane Leux** donostiarra ere. Ekitaldi hori arrakasta artistikoa izateaz gain, kultur etxeak tokiko talentua sustatzearekin duen konpromisoaren lekuko ere izan zen..

Musikagela zerbitzuarekin koordinazio estuan, Intxaurren Kultur Etxeak bere musika-eskaintza dibertsifikatu zuen; horrela, kontzertu txikiak antolatu zituen, hainbat kultura-jarduera eta -ekitaldirekin bat etorritik. Nabarmentzekoak dira Emakumeen Astearen, Poesiaren Egunaren, Liburutegien Egunaren eta erakusketen inaugurazioen barruan egindako kolaborazioak; **Surflariak** erakusketan, esaterako, **La Ola Maldita** taldeak hartu zuen parte, **Literaktum** jaialdiaren barruan.



La Reina de Arga, Quiero Teatro, Emakumeen Astea

Intxaurrenondo Kultur Etxeak auzoan sinergiak sortzeko duen estrategia funtsezko zutabea izan zen. Auzoko bizilagun, erakunde eta ikastetxeentzako, elkartzeko eta ekimenak garatzeko espazio bihurtu zen. Udaleko beste sail batzuekin lankidetzan ere jardun zuen kultur etxeak, hala nola Gazteria eta Gizarte Ongizate sailekin eta Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolarekin, programa eta ekintzetarako espazioak eskainita.

Emakumeen Asteak errotuta jarraitzen du Intxaurrenondo Kultur Etxean, auzoko elkarteekin lankidetzan. *Emakumeak eta Zientzia* gaiaren ingurukoa izan zen 2023ko edizioa, eta hainbat jarduera egin zen: **Bertsu Literarioa**, **Radio Rebel** taldearen kontzertua, **La Buena Esposa** filmaren proiektzioa, **La Reina de Arga** antzezlanaren eta **Noa, uy, uy, uy** izenburuko familientzako antzerki-emanaldia, besteak beste.



Noa, uy, uy, uy, Pantha Rei, Emakumeen Astea



Pato Mikeleiz, Harkatiz Martinez (Oreka tx), Ibiltarien Astea

Ibiltarien Astea programak erreferente izaten jarraitu zuen udaberrian; bidaien esperientziarekin zerikusia duten hitzaldiak eta jarduerak antolatu ziren. Oraingo honetan, **Juan Manuel Sotillos, Iñaki Goikoetxea & Maialen López, Peio García Amiano** eta **Pato Mikeleizek** bidaien mundura leihoak irekitzeko aukera eman ziguten.

Irailean, extremadurar jatorriko eta haien hurrengo belaunaldietako jende ugari erakarri zuen **Extremaduraren Asteak**, egitarau betearekin: antzerkia, musika, arte-erakusketa eta zarzuela. Auzoko Extremadurako Zentroarekin lankidetzan antolatu zen ekitaldia, eta arrakastatsua izan zen parte-hartzeari dagokionez.

Intxaurren Kultur Etxeak auzoko beste erakunde batzuekiko harremanak sendotzen jarraitu zuen eta, besteak beste, **Plazara Goaz** elkartearekin kolaboratu zuen, **Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Ez gara jaitsiko** emanaldia antolatzen. Euskararen aldeko ekimenen barruan sartzen da ekitaldi hori, eta arrakasta handia

lortu zuen emanaldi horrek ere, parte-hartzeari dagokionez. Urtean zehar, literatura-solasaldiak egin ziren euskaraz, **Plazara Goaz** elkartearekin lankidetzan, eta **Iratxe Retolazak** eta **Joseba Sarrionandiak** dinamizatuta.

Kolaborazioen atal hau amaitzeko, aipatu behar da Intxaurren Kultur Etxeak modu aktiboan parte hartu zuela auzoko jaietan; kultur etxeak eta Gazteleku eta Haurtxoko zerbitzuek jarduerak antolatu zituzten, eta kale-antzerkia aurkeztu zuten uda sasoiari. Harrera bikaina izan zuten **Ipurbeltz, Zozoak Beleari, Adabaki eta Oh-Pera** lanek.

Hiriko kultur etxeen sareko kide den aldetik, sarearen programetan modu aktiboan lagundu zuen Intxaurren Kultur Etxeak, eta komunitatean funtsezko kultura-espazio parte-hartzaile gisa duen eginkizuna finkatzen jarraitu zuen.



Turbulencias, Nueve Teatro, Extremaduraren Astea



Uxue Alberdi, Susanna Martin, Literaktum © Iñaki Rubio

Arte eszenikoen arloan, eta hiriko kultur etheen sareko kide den aldetik, modu aktiboan hartu zuen parte sareko kultur etxe guztien programetan, eta bere aretoa erabili zuten **dFeria** jaialdiaren barruko lau proposamenetarako agertoki gisa: **Lurtarrok**, **Terrícolas**, **Surrealismo** eta **La caja**.

Halaber, **Poltsiko Antzerkiaren Jaialdiko** funtsezko gunea ere izan zen; lau emanaldi hauek nabarmen ditzakegu: **Nomofobikak**, Kontadores zentroan; **Las Couchers**, Extremadurako Zentroan; **En mi maleta**, El Parque tabernan, eta **Nola edo hala aterako gara**, Aiton-amonen etxean.

Kultura-aniztasunarekin duen konpromisoarekin bat etorritik, 2023ko **Literaktum** Jaialdian ere hartu zuen parte Intxaurrondo Kultur Etxeak. **Maitasunaren geografiak** gai nagusiaren inguruan, gaiarekin zerikusia zuten hainbat jarduera antolatatu zuen. Nabarmentzekoa izan zen **Surflariak** erakusketa, **Uxue Alberdi** eta **Susanna Martinen** komikian oinarrituta dagoena. Hitzaldi batekin eta **Igor Leturiak** moderatutako eztabaida batekin inauguratu zen. **Call me by your name** filmaren emanaldia, **Literatur musikatua** kontzertua **Joxe Mari Iturraldere**n, **Joseba Sarrionandiaren**, **Iñar Sastre**ren eta **Anne Etchegoyenen** partaidetzarekin, eta Larrotxene Bideo programaren barruan egindako 1990-2000 hamarraldiko film laburren emanaldia izan ziren nabarmendu ziren beste jarduera batzuk.

Jaialdiaren 2023ko edizioaren barruan, **Las vidas secretas de las esposas de Baba Segi** antzezlanaren izan genuen, ekitaldiaren kultura-eskaintza aberasten lagunduz. Gainera, txikieneke ere beraien lekua izan zuten jaialdian, **Aitziber Alonso** irudigilearen parte-hartzeari esker; **Munduari bira 80 egunetan** tailerra eskaini zuen Haurtxokoan, eta gogo handiz hartu zuten haurrek.

Jaialdi eta kultura-ekitaldi horietan modu aktiboan parte hartu izanak erakusten du Intxaurrondo Kultur Etxeak etengabeko konpromisoa duela aniztasun artistikoarekin eta komunitatean publiko guztientzako espazio inklusiboak sortzearekin.

Intxaurrondo Kultur Etxearen prestakuntza-eskaintzari dagokionez, oso positiboak izan ziren 2023-2024 kanpainako emaitzak; nabarmentzekoa da ikastaroek izan zuten arrakasta. Horietako batzuk euskaraz eskaini ziren. Halaber, aurreko kanpaina, 2022-2023koa, amaitu zenean parte-hartzaileek egin zuten balorazio positiboa hezkuntza-proposamenek izan zuten inpaktu positiboaren adierazgarri da. Auzoko zein auzotik kanpoko parte-hartzaileak erakarri zituzten, astero, antolatatu ziren ikastaroek: sendabelarrak; bizikleta nola konpondu; yoga; areto-dantzak; zeinuen hizkuntza; pilates...

Intxaurren Kultur Etxeak kudeatzen duen baratzia da prestakuntza-eskaintzaren elementu nabarmenenetako bat. Kultur etxeak zuzenean programatu zituen ikastaroak eta jarduerak baratzian, eta komunitateak nekazaritzarekin eta ingurumenarekin lotutako gaietan modu aktiboan parte har zezan sustatu zuen.

Herritarrentzako zerbitzuen arloan, baliabide garrantzitsua da Intxaurren Kultur Etxeko **liburutegia**. Liburutegiaren egitarauaren barruan, komikiari buruzko espainierazko eta euskarazko solasaldiak nabarmendu ziren; ekimen horien helburua da erabiltzaileen artean kultura- eta literatura-trukea sustatzea.

Halaber, **Liburu Baby Kluba** egitasmoak harrera ona izaten jarraitzen du, eta liburutegian modu aktiboan parte hartzen duten familiak erakartzen ditu. Proiektu hori lau urte arteko haurrentzako eta haien familientzako diseinatuta dago.

Berariaz haurrei zuzendutako proiektuei dagokienez, **Zeu Irakurle, gu Kontalari** dugu, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. ikasmailetako ikasleei zuzenduta dagoena. Harrera bikaina izan zuen auzoan. Lau eta sei urte bitarteko haurrei zuzenduta dagoen **Ipuinaren Ordua** proiektuak, berriz, pixkanaka partaideak bereganatu zituen, txikitatik irakurzaletasuna sustatzen lagunduz.

Laburbilduz, Intxaurren Kultur Etxearen prestakuntza-programak eta herritarrentzako zerbitzuek funtsezkoak izaten jarraitu zuten komunitaterako, hezkuntza, kultura eta baliabide baliotsuak biztanleen segmentu guztietara irits zitezten sustatuz. Herritarren parte-hartze aktiboak eta programen inguruan egindako ebaluazio positiboak azpimarratu zuten inpaktu positiboa izan zutela eta garrantzitsuak izan zirela kultur etxeak bultzatutako ekimenak.

Haurtxoko eta **Gazteleku** zerbitzuei dagokienez, azpimarratzekoa da arrakasta handia izan zutela eguneroko arloan zein luzera begirako proiektuen barruan ezarri ziren ekimen ugari. Egin diren jardueren aniztasunak eta aberastasunak erakusten dute urte oparoa eta positiboa izan zela 2023a, komunitatearekiko konpromisoa eta haurren eta gazteen ongizatea sustatzea funtsezko zutabe



Sandra Garayoa, Bidebieta Apain, Bidebieta kiroldegia

izan direna. Ekitaldi garrantzitsuek lortu zuten parte-hartze aktiboak erakusten du Haurtxoko eta Gazteleku zerbitzuek etengabeko konpromisoa dutela gai garrantzitsuak jorratzearekin eta zerbitzu horien parte direnen garapen integralean laguntzearekin. Besteak beste, Haurren Nazioarteko Egunean eta azaroaren 25aren inguruko sentsibilizazioan hartu zuten parte. Epe laburrera eta luzera begirako ekimenek erakutsi zuten etengabe jarduten duela kultur etxeak gure komunitateko haur eta gazteentzako ingurune positibo bat sustatu eta gizarte-sarea indartuko duten esperientzia aberasgarriak eskaintzen.

Azaroan, **Jolasean familiarekin** programaren barruan, bi ekimen nabarmen antolatu zituen Haurtxokoak. Lehenik eta behin, zirko-tailerra; modu aktiboan hartu zuten parte haurrek eta haien familiek, zirkorako gaitasunak esploratzen, dibertsioa eta taldeko lana sustatuz. Ikuspegi ludiko horrek sormenezko ingurune batean trebetasun berriak deskubritzeko eta familiako kideen arteko loturak indartzeko aukera eman zien partaideei.

Horrez gain, ilustrazioko edo irudigintzako tailerra ere eskaini zuen Haurtxokoak. Horrela, haien sormena arte bisualaren bitartez adierazteko aukera eman zitzaien txikienei. Irudigintzako profesionalek gidatuta, irudigintzako hainbat teknika ezagutu zuten umeez, haien trebetasun artistikoak garatuz, ingurune seguru eta estimulatu batez gozatzen zuten bitartean. Haurtxokoak komunitateko haurren garapen integralari laguntzen dioten esperientzia aberasgarriak eskaintzearekin duen konpromisoa azpimarratzen dute ekimen horiek.

Gaztelekuak ere jarduera garrantzitsuak gauzatu zituen; tartean, nabarmentzekoa da Haurren Nazioarteko Eguna ospatu zutela. Egun berezi horretan, haurren oinarriko eskubideak modu interaktiboan eta hezigarrian jorratzeko dinamika berezia diseinatu zen. Parte-hartzaileek, giro ludiko eta hezigarri batean, umeen babesarekin eta ongizatearekin zerikusia duten funtsezko kontzeptuak esploratu zituzten.

Gainera, azaroaren 25ean, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, bi ekintza berezi antolatu zituen Gaztelekuak. Haien helburua izan zen gazteak genero-indarkeria desagerrarazteak duen garrantziaren inguruan sentsibilizatzea eta kontzientziaztea. Tailerrekin, hitzaldiekin eta arte-adierazpenekin, hausnarketa- eta laguntza-espazio bat sortu nahi izan zen, gazteen komunitatean errespetua eta berdintasuna sustatzeko.

Adineko pertsonen zuzendutako **Plus 55** programaren inguruan, esan behar da urte bereziki nabarmena izan zela, abian jarritako ekimenen aukera anitzei eta haien eraginkortasunari dagokienez. Urteroko programazioari dagozkion eta konfinamenduaren ondoren gogo handiz berreskuratu ziren hitzaldi, solasaldi, paseo eta antzerki-jardueraz gain, komunitateak egindako eskariei ere modu aktiboan erantzun zien egitarauak.

Zehazki, teknologia berrietan trebatzearekin lotutako beharrei heldu zitzaie, kontuan izanda funtsezkotzat jotzen direla gaur egun. Ikuspegi proaktibo batekin, adineko pertsonen trebetasun digitalak landu ditzaten balio duten

baliabideak eta aukerak eskaini zituen **Plus 55** programak, adineko pertsonen ere aro digitalean modu aktiboan parte har dezaten. Gaikuntza teknologikoarekiko konpromiso horrek, parte-hartzaileen bizimoduak aberasteaz gain, modu eraginkorrean heldu ziren gizarte garaikidearen eskari aldakorrei. 2023an, Plus 55 programak, esperientzia aberasgarriak eta sozialak eskaintzen jarraitzeaz gain, erakutsi zuen baduela egokitzeko gaitasuna, zerbitzatzen duen komunitatearen behar ebolutiboak erantzuteko.

Azkenik, garrantzitsua da nabarmentzea gero eta gehiago aprobetxatzen direla kultur etxeko aretoak eta ekipamenduak, izan ere, erabilera handiagoa eman zitzaie azkeneko urtean. Fenomeno hori ez zen mugatu tokiko eragile eta taldeen parte-hartzera soilik, hau da, aretoak eta ekipamenduak ez zituzten auzoko elkarteak eta bizilagunek bakarrik erabili, baizik eta gure eremu geografikotik kanpoko erakunde, sail eta elkarte ugariengana hedatu zen erabilera hori.

Kultur etxeak askotariko proiektuak eta jarduerak hartzeko espazio modura balio izan zuen, ikasturte amaierako emanaldiak, entseguak, grabazioak eta bestelakoak barne. Erabilera horiek lagapen- edo alokairu-hitzarmenen bitartez kudeatu ziren, araudi orokorraren arabera, betiere kontuan hartuta kultur etxearen berezko mugak. Instalazioen moldakortasuna islatzeaz gain, fenomeno horrek erakusten du eskaintzen diren espazioen kalitatea eta eskuragarritasuna gero eta handiagoak direla; era horretan, tokiko zein kanpoko ekimen ugariarako baliabide dinamiko eta baliagarri gisa finkatzen da kultur etxea.



Unai Iturriaga, Harkaitz Cano, Komiki solasaldia

JARDUERAK

22

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 2.743

0

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

18

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 5.157

11

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 673

9

Hitzaldiak eta mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 810

86

Erakusketak
Erabiltzaileak: 1.357

108

Bilerak eta elkarten ekitaldiak
Erabiltzaileak: 4.353

117

Liburutegiko jarduerak
Erabiltzaileak: 1.461

75

Plus 55
Erabiltzaileak: 1.435

198

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 2.961

233

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 3.705

28

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 20

Guztira
905
jarduera
24.675
erabiltzaile

ZERBITZUAK

62.304

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

0

bisitaldi
Gaztelekua

0

bisitaldi
Haurtxokoa

0

bisitaldi
KZgunea (Nabigazioak)

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Ispilu beltza magazine-podcasts

0

bisitaldi
Bideo tailerra

1.535

bisitaldi
Musikagela

2.170

bisitaldi
Musika Eskola

451

bisitaldi
Plus 55

Guztira
66.460
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	57	41	602	448	154
2022-2023 IKASTAROAK	22	18	307	239	68
Ikasturte osokoak (2022ko urria - 2023ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	7	5	66	54	12
Gaztelaniaz	9	7	121	99	22
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2023ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	3	3	55	36	19
Gaztelaniaz	3	3	65	50	15
2023-2024 IKASTAROAK	25	14	225	179	46
Ikasturte osokoak (2023ko urria-2024ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	11	5	67	55	12
Gaztelaniaz	10	6	118	92	26
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2023ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	3	3	40	32	8
Gaztelaniaz	1	0	0	0	0
IKASTARO PUNTUALAK	10	9	70	30	40
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	2	2	14	10	4
Gaztelaniaz	8	7	56	20	36
KZgunearen IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 130.546

2



2

3

LARROTXENE
Kultur Etxea



LARROTXENE

Kultur Etxea

Larrotxene Kultur Etxearen berritasunik nagusiena izan zen igogailua jartzeko obretara egokitu behar izan zela 2023. urte hasieran; horrela, irisgarritasuna hobetu zen. Bestalde, eraberritu egin ziren **Larrotxene Bideo** zonako ekipoak eta instalazioak. Irailean ireki zituen berriro ateak kultur etxeak, eta ohiko jarduera-erritmoa berreskuratu zuen. Horixe islatzen dute parte-hartze datuek eta programazioak. Kultur etxe honen espezializazioak zentzu bete-betea hartzen du **Larrotxene Bideo** egitasmoan; hobekuntza nabarmenak egin dira arlo horretan, materialei eta instalazioei dagokienez.

Egitasmo hori eguneroko errutinan modu eraginkorrean ezar zedin lortzeko, hezkuntza-eskaintza eta egitasmo horretan lan egiten dutenek eta kolaboratzaileek proiektuari zabalkundea emateko izan zuten gaitasuna izan ziren errezeta arrakastatsu honen funtsezko elementuak.

Larrotxene Bideo gazteek erabiltzen dituzten teknologia berriak bereganatu zituen, baliabide horien erabilera eta prestakuntza

sustatzeko helburuz. Horretarako, kontakizun digitalen laborategian, kolaborazioetan, ikus-entzunezko lanetan, ekitaldien antolakuntzan, komunikabideetan presentzia izatean eta sare sozialen erabilera zentratu zen.

Aholkularitza emateko, materialak lagatzeko eta prestakuntzako eguneroko lanaz gain, haien proiektu individual zein kolektiboetarako babes bila joan ziren zinema-zaleen eskura ere egon zen zerbitzua. Begi-bistakoa da Larrotxene komunitatea Donostia Kulturarako eta, oro har, hiri osorako aktibo bat dela. 2023. urtean zehar, 300 bisita kudeatu ziren -ikastaroetako ikasleak kontuan hartu gabe-, proiektu berrietarako aholkularitzarekin eta babes teknikoarekin lotutakoak.

Ohiko zerbitzuei dagokienez, nabarmentzekoa da materialak lagatzeko zerbitzua; **56 lagapen** egin ziren 2023an. Hor sartzen dira zerbitzu honek eskainitako ikastaroetan sortutako produkzioak zein kanpoko ikus-entzunezko lanak, hain zuzen ere **Larrotxene Bideo** egitasmoaren koprodukzio bihurtu zirenak.

Hezkuntza-eskaintzaren arloan –ikastaro espezializatuak barne-, **67 ikaslek** hartu zuten parte ondorengo proposamenetan: *Realización de Documentales*, **Oskar Tejedorren** eskutik; *Dirección de Cine*, **Pablo Malok** zuzenduta; *Zinema Ekoizpena sorkuntzatik esplotazioraino*, **Ander Sagardoyk** garatuta; *Guión Avanzado*, **Michel Gaztambideren** eskutik, eta *Gidoigintza Hastapena*, **Andoni de Carlosekin**. Ikasleen balorazioak positiboa izaten jarraitzen zuten; izan ere, ikasitakoa hainbat proiektutan islatzeaz gain, ikastaroen arteko lankidetzak sustatu zen, partekatutako ideiak sortzeko eta garatzeko; era horretan, guztientzako izan zen aberasgarria, ezagupenei eta esperientziei dagokienez.

Bideoaldiaren hamabosgarren edizioan aurkeztu zen ikastaroan zehar garatutako lanaren zati handi bat; ekainean izan zen jaialdi hori, eta 366 ikusle erakarri zituen Antzoki Zaharrera. Ikastaroetan sortutako hiru proiektu erakutsi ziren, baita beste bi koprodukzio ere. Gainera, Zinemaldiaren egitarauaren barruan, Larrotxene Bideon sortutako hautatutako lan batzuk proiektatu ziren; 101 lagunek hartu zuten parte.

Kontakizun digitalen **Medialab** egitasmoari dagokionez, **Learn by Doing** metodologia erabili zen, eta ikaskuntza kolaboratiboa sustatzeko ildoari eutsi zitzaion, bi ekimen ezarrita. Lehenik eta behin, umorezko **websail** bat garatu zen, euskaraz, gidoia eta istorioaren tramak definituta. Salmenta-txostenak idazten hasi, eta

hiru *teaserren* gidoiak sortu ziren, abendutik aurrera ekoizpenarekin hasteko. Ondoren, **animazioko lan-talde** bat osatu zen; zortzi lagunek animazioaren historia analizatu zuten, ezagupenak partekatu zituzten eta hainbat teknika esperimentatu zuten, animazioko film labur bat egiteko helburuz. Irailetik aurrera, astean behin elkartzen ziren.

Larrotxene Bideo hiriko hainbat aktore eta erakunderekin lankidetzan jarduteko espazio proposa izateagatik nabarmentzen da. **Oihua!** ekimena izan zen horietako lankidetzak nabarmentzeko bat, film laburretarako gidoigile gazteek prestatutako euskarazko gidoiak saritzen dituen, batez ere gai fantastikoak lantzen dituztenak. Egitasmo horretan, **Donostia Sustapenaren, Euskara Zerbitzuaren eta Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astearen** kolaborazioa izan genuen.

Horrez gain, oparoa izaten jarraitu zuen Larrotxenek **Musikene** Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiarekin 2014. urteaz geroztik duen lankidetzak. Lankidetzak horren barruan, Musikeneko ikasleek **Larrotxene Bideo** egitasmoan parte hartzen dute, film laburretarako soinu-bandak konposatuz, eta promoziozko bideoak sortzen ere hartzen dute parte. Azkeneko ikasturte honetan, **Michel Gaztambideren** ikastaroan sortutako hiru produktiotan kolaboratu zuten Musikeneko konpositoreek, **Sunglasses, Martes por la mañana** eta **Cósmico** film laburretan, hain zuzen ere.



Salto del Eje

Larrotxenek modu aktiboan parte hartu zuen berriz ere **Begiradak Nazioarteko Zinema Amateurraren Jaialdian**; Zinema eta Hezkuntza Foroan parte hartu zuen, eta bigarren hezkuntzako ikasleekin solas egin zuten Trueba zinema-aretoetan. Gainera, modu nabarmenean kolaboratu zuen **Salto del Eje** programan; gizartean baztertuta gelditzeko arriskuan dauden nerabeekin zinemagintza lantzeko egitasmoa da, eta gazteak dira protagonista. **Haurren Pobreziaren aurka Borrokatzeko Goi Komisarioak** babesten du proiektu hori, eta **Larrotxene Bideok** kudeatu zuen. Bi film labur egin ziren Bidebieta auzoko **Bideberri** eta **Mendiola** ikastetxeetako ikasleekin eta **Zaragüeta Zulaica Fundazioarekin** lankidetzan. Larrotxenek irakasle eta ikasle ugari joan zen ikastetxe horietara, irakasle eta ekoizpenean laguntzaile eginkizunak betetzera.

Larrotxene Kultur Etxearen jarduna, baina, ez zen mugatu ikus-entzunezkoen eta zinemaren arloan duen espezializaziora. Auzoarekiko loturak kultur etxearen dinamikaren zati integrala izaten jarraitzen du, eta hori agerian gelditu zen urteko azkeneko hilabeteetan, gehitu egin baitzen batzarretarako eta beste jarduera batzuetarako espazioak erabiltzeko eskaeren kopurua. Gainera, berriz heldu zitzaion **Intxaurrondo Kantuz** ekimenari, inguruko beste erakunde batzuekin lankidetzan, baldintzek horretarako aukera eman zutenean.

Arte eszenikoen arloan, **haurrei zuzendutako proposamenak** izan ziren nagusi programazioan; Intxaurrondo Kultur Etxean izan ziren, urtarriletik ekainera. Denbora-tarte horretan programatutako lanen artean daude **Zirika Zirkus, Noa, uy, uy, uy** eta **Mattin**; harrera oso ona izan zuten familien aldetik.



Aurkitu gabeko altxorra, Zirika Zirkus



Alargun beltzak

Kale-antzerkiaren egitarauak ere harrera bikaina izan zuen hirian. Intxaurren, **Oh, Pera!** eta **Adabaki** publiko guztientzako lanak aurkeztu ziren; Bidebieten, berriz, **Ipurbeltz**. **Zozoak beleari** lana ikusteko aukera egon zen. Intxaurren Zaharrea, bestalde, iraileko jaietan, **Alargun beltzak** musika-proposamena eta adin guztietako publikoentzako **Yijaaa** antzezlanak eskaini zituzten.

Donostia Kulturaren prestakuntza-eskaintza orokorrari dagokionez, obren eragina jasan behar izan zuen 2022-2023 kanpainak; ondorioz, murriztu egin zen eskaintza eta **Intxaurren Zaharreko Bizilagunen Elkartearen** lokalean eskaini ziren ikastaroak, eta **Intxaurren Kultura Etxean**, berriz, Larrotxene Bideo programako ikastaroak. 2023-2024 edizioan, proposatutako ikastaro gehienak egin ziren, eta euskara ikastaroak ere antolatu ziren.

Amaitzeko, garrantzitsua da adieraztea **Liburutegi** zerbitzua ohiko dinamika berreskuratzen hasi zela, irailean **Larrotxene Kultur Etxeak** atea ireki zituenetik. Kultur etxetik hurbil dauden ikastetxeek berriz eskatu zuten liburutegian parte hartzea, eta txikienentzako **Liburu Baby Klubaren** saioak egin ziren, hamabost egunetan behin.



Adabaki, Odei Arregi, Israel Cuadrado



Ipurbeltz, Ameztu



Oh Peral!, Zirko Txosko

JARDUERAK

1

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 120

0

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

2

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 130

0

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

0

Hitzaldiak eta
mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 0

12

Erakusketak
Erabiltzaileak: 95

15

Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak
Erabiltzaileak: 255

52

Liburutegiko
jarduerak
Erabiltzaileak: 1.069

0

Plus 55
Erabiltzaileak: 0

0

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 0

0

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 0

0

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 0

Guztira
82
jarduera
1.669
erabiltzaile

ZERBITZUAK

6.001

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

0

bisitaldi
Gaztelekua

0

bisitaldi
Haurtxokoa

0

bisitaldi
KZgunea
(Nabigazioak)

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Ispilu beltza
magazine-podcasts

1.891

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Musikagela

0

bisitaldi
Musika Eskola

0

bisitaldi
Plus 55

Guztira
7.892
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	20	20	338	247	91
2022-2023 IKASTAROAK	10	10	134	91	43
Ikasturte osokoak (2022ko urria - 2023ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	2	2	26	22	4
Gaztelaniaz	2	2	30	28	2
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2023ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	1	1	15	8	7
Gaztelaniaz	3	3	38	14	24
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	1	1	13	10	3
Gaztelaniaz	1	1	12	9	3
2023-2024 IKASTAROAK	8	8	100	78	22
Ikasturte osokoak (2023ko urria-2024ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	2	2	30	28	2
Gaztelaniaz	2	2	33	28	5
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2023ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	1	1	3	2	1
Gaztelaniaz	1	1	11	4	7
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	2	2	23	16	7
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
IKASTARO PUNTUALAK	2	2	104	78	26
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	2	2	104	78	26
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 9.695

2



2

3

LOIOLA
Kultur Etxea

LOIOLA

Kultur Etxea

2023a kolaborazioen sendotze urtea izan zela esan daiteke. Izan ere, pandemia osteko fase berri honetan auzoko eragile askok berpizteari indarbetez erantzun zioten.

Ohiko danborrada eta Kalderero taldeetako entseguek kultur etxeko paretak dardarka jarri zituzten berriz ere. **Emaus** elkarteak ere Kultur Etxeak habitatu zuten hainbat egunetan etorkizunari aurre egiteko hausnarketa estrategikoa burutzeko, eta Loiolan bertan egoitza duen **AGIFES** elkarteko lagunekin ere harremana eta etorkizunerako planak hazi besterik ez dira egin. Auzogintzan eta komunitatea sendotzeko ekimen ezinbestekoak diren **Harrera Taldea** edota **Erlauntza** bezalako programetan ere indarbetez aritu zen Kultur Etxeko lantaldea. **Sustrai** aisialdi taldeak ere birsortze fase bati ekin zion 2023an, eta lehen ekimen gisa azaroaren 1ean antolatutako **Nor da hiltzailea?** jokoa antolatu zuen arrakasta betez, ia 100 haur eta gazteren parte-hartzearekin.

Baina auzogintza mailan zerbait nabarmendu beharko balitz Martuteneko eragileekin jositako harreman berriak aipatu beharko lirateke. **TOPKM** haur eta nerabeen tratu onerako lantaldearekin elkarlana abiatzeko urtea izan zen 2023a. Ekimen honek **Arantzazuko Ama** ikastolarekin, guraso elkartearekin, auzo elkartearekin eta Martutenean lan egiten duten Udaleko beste atalekin batera kulturatik auzoaren ongizatearen alde egiteko aukera zabaldu zuen. Bide honetan, azken urteetan auzoko hainbat paretak margotzeko ekimenari izaera parte-hartzaileago bat eman zitzaion, **Garikoitz C. Muruak** gidatutako prozesu baten bidez. Mural horretan, Ikastolako, **Gaztelekuko**, eta **UBA** harrera etxeko gazteak izan ziren protagonista, hain zuzen, 2023ko muralaren edukia erabakitzez gain margoketaz arduratu baitziren.





Nimú Circus



Rockalean



Trapu Zaharra

2023 urtean ere **+55** zerbitzu berria egonkortzen eta sendotzen ikusi genuen. Honen bidez, hainbat eta hainbat jarduera eta ekimen jarri ziren martxan, hala nola **Mugikor tailerra**, **Bizi Proiektua**, **Konekta plus**, **Ostiralak Dantzan**, edota azken hiru-hilekoan jakinmin handia piztu zuen **Croqueteando con la salud** sukaldaritza osasungarriari buruzko tailerra, batzuk aipatzearren.

Loiolan, Txomin-Enean eta Martutenen ere kale antzerki eta ikuskizunen eskaintza izan zen, nabarmen, Kultur Etxeko programazio eginahal handiena eraman zuen atala. **Nimú Circus**, **Trapu Zaharra**, **Ganso & Cia** edota **Tio Teronen Semeak** taldeen ikuskizunak, udarako arratsaldeak irribarrez bete zituzten. Era berean, **Bentazarreko Mutiko Alaiak** eta **Rockalean** taldeek Loiolako kaleak festa giroz bete zituzten.

Baina urteak askoz gehiagorako eman zuen.

Poltsiko Antzerki Jaialdiko emanaldiek, Loiola eta Martuteneko taberna eta Etxarrieneko aretoak bete zituzten. Eta urtero bezala, **Abesbatza Astearen** baitan izandako emanaldiak, aurten Britain Handiko **Phoenix Consort** taldearekin, eliza bete zuen.

Loiolatarra elkarrearekin elkarlanean azken 24 urteetan antolatu izan den **Mikologia Astea** ere oso arrakastatsua izan zen. Ohiko ikastaro, irteera, hitzaldi eta **Perretxiko Jaialdiari** aurten erakusketa berezi bat gaineratu zitzaion: **Rene Alvarado** mexikar mazatearrak perretxiko haluzinogenoen inspirazioaz landutako koadroen bilduma, hain zuzen. Mexiko DFko Frida Khalo museoko kide den **Ximena Jordanek** komisariatutako erakusketa honek mikologiari alderdi ezberdinetatik heltzen dion programa bikintasunez borobildu zuen.



Amelie



Tomaxen Abenturak



Literaktum



Elvi sbel-hiztuna

Literaktum Jaialdiak protagonismo handia izan zuen Martutenen. **Arantzazuko Ama** ikastolako LH6ko gelak **Alaia Martinek** gidatutako sormen proiektua landu zuten, **maitasuna** hitza eta kontzeptuaren inguruan. Emaitzak auzoko saltokietako erakusleihoetan partekatu zituzten, kale-ekintza eder batean.

Familiei zuzendutako edukiei dagokionez, pisu nabarmenena literaturarekin lotutako jarduera eskaintzak hartu zuen: **Liburu Baby Kluba**, **Ipuinaren Ordua** edota **Zeuren Irakurle** programek adin tarte bakoitzari liburutegiarekin harremantzeko zubiak jarri zizkion beste urtebetez, astero-astero, bai Loiola Kultur Etxeko liburutegian zein Martuteneko **Amondarain** mediatekan ere. Horrez gain, eta modu xumean bada ere, haur antzerki eskaintzak ere bere lekua izan zuen programazioan: **Amelie**, **Tomaxen Abenturak**, **Elvi sabel-hiztuna** edota **La Baldufa** bezalako ikuskizunak kultur etxeko agertokitik igaro ziren 2023an.

Erakusketen atalean ere aniztasuna izan zen ardatz, baina nabarmendu beharko genituzke, izan duten ikusgarritasun eta interesagatik, **Donostia Apain** proiektuaren baitan Loiola, Txomin-Enea eta Martuteneko hainbat eraikinetan azken urteetan landutako muralen argazki erakusketa, batetik; **Begoña Ujia** artista donostiarraren lan koloretsu eta sinbolikoak, bestetik; eta, azkenik, urtea ixteko Martuteneko kartzelako emakumeen ataleko presoek **Maddi Goikoetxea** eta **Sara Galánek** gidatutako arteterapia egitasmoaren baitan landutako lanen erakusketa hunkigarria.

Ezin amaitu **Vintage Jaialdiak** country musikari eskainitako ekitaldia gogoratu gabe. Folk doinuen dozenaka lagun erakarri zituzten, saio gogoangarri batean.

JARDUERAK

15

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.765

0

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

8

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 950

0

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

2

Hitzaldiak eta mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 105

9

Erakusketak
Erabiltzaileak: 1.466

85

Bilerak eta elkarten ekitaldiak
Erabiltzaileak: 2.576

126

Liburutegiko jarduerak
Erabiltzaileak: 1.461

23

Plus 55
Erabiltzaileak: 354

0

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 0

0

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 0

16

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 528

Guztira
284
jarduera

9.205
erabiltzaile

ZERBITZUAK

20.346

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

0

bisitaldi
Gaztelekua

0

bisitaldi
Haurtxokoa

0

bisitaldi
KZgunea (Nabigazioak)

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Ispilu beltza magazine-podcasts

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Musikagela

0

bisitaldi
Musika Eskola

621

bisitaldi
Plus 55

Guztira
20.967
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintzaOsatutako
ikastaroak

Erabiltzaileak

Emakumeak

Gizonak

GUZTIRA	63	31	454	399	55
2022-2023 IKASTAROAK	27	14	207	185	22
Ikasturte osokoak (2022ko urria - 2023ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	11	3	41	35	6
Gaztelaniaz	12	9	140	128	12
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2023ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	2	2	26	22	4
Gaztelaniaz	2	0	0	0	0
2023-2024 IKASTAROAK	36	17	247	214	33
Ikasturte osokoak (2023ko urria-2024ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	12	3	45	40	5
Gaztelaniaz	16	12	178	158	20
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2023ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	7	1	15	10	5
Gaztelaniaz	1	1	9	6	3
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 48.369

2



2

3

LUGARITZ
Kultur Etxea



LUGARITZ Kultur Etxea

2023. urteari dagokionez, nabarmendu behar da jende askok hartu zuela parte kultur etxeak bere instalazioetan zein kanpoan antolatutako programa eta zerbitzuetan. Hain zuzen ere, nabarmen handitu zen musika- eta antzerki-ikuskitzetara joandako ikus-entzuleen kopurua, eta ez ziren atzean gelditu gainerako programak eta zerbitzuak ere.

Antzerki-programazioari dagokionez, benetan nabarmen igo zen ikusle kopurua. Antzezlanen izaera heterogeneoa kontuan hartuta, harrigarria izan zen publikoak emandako erantzuna.



Porno, La Roca Producciones



La invasión de los bárbaros, Arden Teatro

Hainbat konpainia eta antzezlan azpimarra daitezke, baina harrigarrietako batzuk aipatzearren, nabarmentzekoak dira, besteak beste, **La Roca Producciones, A Panadaría, Ados Teatro** eta **Arden Teatro**.

Haurren eta familien atalak ere igoera handia izan zuen publikoari dagokionez, saioetara joan zen jende kopuruak erakusten duen bezala. Kasu honetan, konpainia gehienak izan ziren bertakoak (**Mar Mar, Gorakada, Ganso & Cia...**), baina urrutiagoko beste batzuk ere izan genituen (**La Baldufa, Princep Totilau**), eta benetan gozarazi zieten ikusleei.



Muchos amigos negros, Ados Teatro



Kelonia eta itsasoa, Gorakada



Muna, Ganso & Cia

Gauza bera esan daiteke konpainia amateuragoek eskainitako antzezlanen inguruan. Arrakasta handia izan zuten tokiko antzerki-taldeek, eta txalo-zaparradak jaso zituzten haien antzezlanek (**Nueve Teatro, Emakume Ausartak, Pixcolabis, Les Figuretes...**).

Kale-antzerkiak ere bere lekua izan zuen urtean zehar, Antigo, Igeldo, Ibaeta eta Añorgako hainbat gunetan, magiaren, zirkoaren eta umorearen eskutik.

Jaialdien arloan, berriz, esan behar da harrera oso ona izan zutela **Poltsiko Antzerkiak** zein **dFeria** edo **Gazteen Antzerki Topaketen** egitarauen barruan eskainitako antzezlanek.



La fábula de la ardilla, La Baldufa



Arrainak bihotzean, Mar Mar Teatroa



Sonakay

Musika-programazioaren barruan eskaini ziren estilo ezberdinek gustu guztietarako kontzertuak eskaini zituzten. **Luberri** taldeak, Antiguoko frontoian, beste hainbat gonbidaturekin eskainitako kontzertua nabarmendu behar da bereziki, bai eta **Francisco Escudero Musika Kontserbatorioko** abeslari bakarlariek eta piano-jotzaileek eskainitako **Hansel y Gretel** opera-emanaldia ere. Harrera oso beroa izan zuten publikoaren aldetik. Beste horrenbeste esan genezake abesbatzen musika zikloaren barruan Ibaetako parrokiaren egin zen hirugarren kontzertuari buruz ere; txalo ugari jaso zuten **Male Ensemble Philippines** abesbatzako kideek. Flamenkoak ere izan zuen presentzia, bi proposamen interesgarriekin: publikoak estimu handian dituen **Flamenca de Sal** eta **Sonakay**. Estilo elektrikoago batean aritu ziren **Sara Azurza**, **Esti Markez** eta **Iker Lauroba**, guztiak ere musikari bikainez inguratuta. Bertsolaritzak ere izan zuen bere lekua, urtero egin ohi den **Donostia bertsotan** ekitaldian.



Sara Azurza



Esti Markez



Flamenca de Sal

Urtean zehar egindako erakusketen artean, **Dabid Argindar** argazkilariak euskal pilotari eta frontoiei buruz egindako biak nabarmentzen dira; Txirain elkarteko kideen eta beste pilotazale batzuen laguntzari esker antolatu ziren erakusketok. Oso balorazio ona izan zuen dagoeneko hilda dagoen **Juan Carrasco** Antiguoko bizilagunaren lanak batzen zituen erakusketak; haren lan grafikoak, zirriborroak, marrazkiak eta eskulturak ikusteko aukera izan zen. **Ricardo Iriarte** izan zen erakusketaren komisarioa.

Ikastaroei eta tailerrei dagokienez, agerian geratu zen matrikulazioek goranzko joera dutela, nahiz eta beste programa batzuen kasuan baino proportzio txikiagoan izan.

Liburutegi-zerbitzuak bisita kopuruen eta agirien maileguen maila ona lortu zuen, baita jardueretako parte-hartzeari dagokionez ere. Udara arte **Maite González Esnalek** dinamizatzen zuen **Astelehen bat, liburu bat** literatura-solasaldiak ordezko bikaina aurkitu zuen: **Aitor Gorrotxategi**, hain zuzen

ere. Irakurzaletasuna sustatzeko hurrei zuzendutako jarduerak ere (**Liburu Baby Kluba** eta **Ipuinaren ordua**) aurreko urteetan baino parte-hartzaile gehiago izan zuten, baita ikasleen bisitek ere.

Plus 55 programarekin lotutako jardueren artean, **Giza Liburutegia** proiektua nabarmendu zen izan zuen harrera onagatik; baita urte guztian zehar programatutako antzerki-jarduerak, hitzaldiak, bideo-forumak eta ikastaroak ere.

Azokako erabiltzaileen elkarteek bultzatutako jarduerak ere onarpen-maila handiari eutsi zioten. Beste horrenbeste esan daiteke instalazio horietan Gazteria departamentuak eskaintzen dituen zerbitzuetako parte-hartzeari dagokionez: jarduera kopuru handiagoa garatu eta parte-hartze handiagoa lortu zuten **Haurtxoko** eta **Gazteleku** zerbitzuek.

Azken batean, eta laburbilduz, esan daiteke proposatutako programa eta zerbitzu guztietan handitu dela herritarren parte-hartzea.

JARDUERAK

52

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 7.641

5

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 654

79

**Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak**
Erabiltzaileak: 1.764

48

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 735

2

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 431

1

**Hitzaldiak eta
mahai-inguruak**
Erabiltzaileak: 20

96

**Liburutegiko
jarduerak**
Erabiltzaileak: 1.936

48

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 1.420

15

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 2.482

6

Erakusketak
Erabiltzaileak: 1.513

60

Plus 55
Erabiltzaileak: 1.518

0

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 0

**Guztira
412
jarduera
20.114
erabiltzaile**

ZERBITZUAK

28.717

bisitaldi
Liburutegia

1.420

bisitaldi
Haurtxokoa

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Ikasgela

0

bisitaldi
**KZgunea
(Nabigazioak)**

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Musikagela

880

bisitaldi
Gaztelekua

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
**Ispilu beltza
magazine-podcasta**

0

bisitaldi
Musika Eskola

**Guztira
31.417
BISITALDI**

400

bisitaldi
Plus 55

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintzaOsatutako
ikastaroak

Erabiltzaileak

Emakumeak

Gizonak

GUZTIRA	236	155	1.153	784	369
2022-2023 IKASTAROAK	41	28	361	265	96
Ikasturte osokoak (2022ko urria - 2023ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	15	5	64	49	15
Gaztelaniaz	18	15	206	162	44
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2023ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	4	4	38	26	12
Gaztelaniaz	4	4	53	28	25
2023-2024 IKASTAROAK	44	21	279	202	77
Ikasturte osokoak (2023ko urria-2024ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	18	6	76	60	16
Gaztelaniaz	20	11	149	110	39
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2023ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	4	2	24	12	12
Gaztelaniaz	2	2	30	20	10
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	47	21	78	43	35
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	104	85	435	274	161

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 69.358

2



2

3

OKENDO
Kultur Etxea

OKENDO Kultur Etxea

Hiru izan ziren 2023ko ezaugarri nagusiak **Okendo Kultur Etxe**ko dinamikan: arte plastikoen eskaintzaren arrakasta, elkarlanaren indarra eta kopuruetan pandemia aurreko zenbakietarako itzulera. Hiruak urteko jardueren garapenean joan ziren lotzen, josten eta nahasten urte ederra gauzatu arte.

Ikastaroei dagokienez aipamen berezia merezi izan zuen 2023/2024ko eskaintzak, hiru zentzutan: lehena, hain zuzen ere lehenengo ezaugarri orokorrek lotuta, arte plastikoak. Bigarrenik, euskarazko ikastaro kopuruaren igoera polita; eta hirugarrena, oro har, izan den igoera kopuruetan, bai matrikulazioan bai sortu den ikastaroetan.

Arte plastikoen eskaintzak aurpegi desberdinak ditu Okendon diziplina anitzei lekua emateko: ikastaroak, bai teoria ikasteko bai praktika desberdinetan aritzeko, erakusketak, hiru espaziotan garatuak eta bestelakoak, elkarlanak kasu.

Aipatu moduan, bai maila teorikoan bai praktika ikasteko eskaintza zabala egin zuen Okendok eta herritarren erantzuna horren arabera izan zen 2023/24ko epealdian: oleoa, akuarela, teknika mistoak, paperezko sorkuntzak, artearen historiari dagozkion epealdi eta xehetasunak, bisitak,... Akaso horren lagun izan zen 2022/23ko ikastaroetako emaitzak ikusi izana ekainean izandako erakusketan.

Erakusketei dagokienez urtea hasi zen 2022an irekitako erakusketen jarraipenarekin, biak Literaktum jaialdiarekin lotuak: **Ricardo Ugarte, Julia Otxoa, Urko Ugarte, sendi bat artearen inguruan** eraikin berriko aretoan eta **Igone Mariezkurrena** kazetariaren eta **Irantzu Pastor** argazkilaria **Lumineszenteak** proiektua eraikin zaharreko aretoan.

Elkarlana abiapuntu eta martxoan hasita eraikin berrian **Giza Eskubideen Zinemaldiarekin** batera **Carmen Castillo, Txileko erbesteratu bat** erakusketak argazki eta zinema ekoizpenak



Carmen Castillo, Txileko erbesteratu bat erakusketak



Mikel Laboa, izan liteke konstelazio, izan gabe izar.. erakusketa. © Iñaki Rubio

ikusgai egon zen eta eskerrak eta zorionak besterik eman ez zituenak. Zinemarekin lotuta ere irailtik azarora luzatu zen **Fantasiatzko zinema japoniarraren ikonoak** erakusketa, oraingoan **Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaldiaren** eskutik etorrira, beldurzaleen gozamenerako.

Urteari bukaera eman zion areto berrian erakunde askoren elkarlanak, Literaktum jaialdiaren baitan kokatuta, **Mikel Laboa, izan liteke konstelazio, izan gabe izar...** erakusketa. **Mikel Laboa** Katedra, Euskal Herriko Unibertsitatea, Koma zerbitzu kulturalak sl, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Elkar argitaletxearen lanak, Donostia Kulturaren indarrei batuta, bertatik pasatu diren guztien oroimenean geratuko den erakusketa ekarri zuen.

Elkarlanean ere gauzatu zen eraikin zaharreko aretora **Arte liburua. Ideia + ausardia** erakusketa **Arteliburu21** Elkartearekin antolatuta, ikusgai ziren lanez gain, jarduera ugariaren iturburu izan zena. Eta areto berean egitasmo desberdinen emaitzak ikusi ahal izan ziren: otsailean Prokulturak **Pilar Gracia pintura amateur lehiaketaren** bigarren edizioaren emaitza artistikoak; maiatzean **Ereinduz, Sormen artistikoen VI. Lehiaketarenak**, Plus 55 zerbitzuarekin batera. Batean zein bestean bai kopuruan bai maila artistikoan gora doa partaidetza.

Elkarlanarekin jarraituz Liburutegiko Ataria da elkarteei beren egitasmoak ikusgai jartzeko aukera paregabea eman ziena 2023an, askotan kalitate handiko proiektu artistikoak erabilia. Halaxe izan zen **Eskuhutsik** elkartearen **Dolu Perinatale** egitasmoaren edo **Munduko Begiak** elkartearen **Inhambaneko Begiak** egitasmoaren argazkien kasuan. 2023an Liburutegiko atariak elkartearen egitasmo ugari jaso zituen: **Ulia auzo elkartearen** Ulia XXI Proiektua urte hasieran eta udan; martxoan **Osasuna Grosen** mustra, Osasun Astean parte hartu zuten eragile guztien iritziaren berri emanez; **Mugarik Gabe** elkarteak **Bizitza Jokoa** erakusketarekin; **Agintzarik** antolatuta, **#IndartuArte: zauriak artez konpontzen**; Irisgarritasuna ala Hezkuntza, Mozanbikeko adibidea; **Mugarik Gabeko Arkitekturaren** eskutik; **Goizaldi Dantzari Taldearen 75**.



Arte liburua. Ideai + ausardia

urteurrenaren argazki, panel eta objektuak; **SOS Arrazakeriarekin** *Ikusezinen aztarnak* egitasmo parte-hartzailea; eta urtea bukatzeko, Gero **Axular Dantza Taldearen** egitasmo berezi baten lekukotza: *Dravetzari*. Gainera beren egitasmoen lekukotzak ikusteko parada izateaz gain, entzuteko, eztabaidatzeko, sakontzeko jarduerak joan ziren kateatzen: hitzaldiak, mahai inguruak, proiektzioak eta abarren bidez.

Eremu artistikoago batean kokatuta beste egitasmo batzuk ikusteko parada eman zuen Okendok 2023an. Martxoan **(Con)tacto**, **Elixabet Perdigueroren** proposamen intimoa eta maiatzean **Hilario Bravo**, *xaman baten egunerokoa* erakusketak artistaren 50 urteko ibilbidea islatu zuen, gure barne sakonarekin konektatzeko bideak proposatuz.

Zein baino zein ederragoak udako proposamenak. **Koldobika Jauregi** eta **Elena Cajaravilleren** lanek areto berria dirdirez bete zuten, benetan ikusgarri jarrira **La Terre est**

bleue comme une orange proposamenarekin. Bisita gidatuek eta hitzaldiak ikusten denaren atzeko mamia ezagutarazi zuten.


Garai berean eta areto zaharrea **Arte tradizionalaren eta digitalaren arteko elkarriketa** erakusketak **Silvia Sanchezen** lan fisikoak eta digitalak ikusgai, arte birtualaren eztabaidarako bide eman zuen, bere proposamen goxoaz gozatzeko aukerarekin batera. Areto berean urtea bukatzeko proposamenek bi ikuspuntu jaso zituzten: barrura begiratzeko **Erre-tratuak**, **hautzaro aurkitua** erakusketaren bidez, **Oskar Tejedorrek** hautzaroak egiten digun markan sakondu eta gaintitza helburu; eta kanpora begiratzeko **Estitxu Ortolaizen** argazkiak **Haziya** egitasmoaren helburua baitzen gure herrialdeko nekazaritzaren lana aitortzea.



Exposición *Hilario Bravo: Diario de un chamán*



Noa, uy, uy, uy, Pantha Rhei © Iñaki Rubio



Kris eta Krash ile-apaindegia, Nomofobikak

Arte diziplina desberdinez gozatzeko parada eman zuten ***zikloek**. 7 saio eskaini zituen **Haur antzerkia** zikloak, udaz kanpo hilero, gehienetan *aretoa beteta* kartela jarritz. Une parregarriak pailazoekin, **Kiki eta Mokorekin** *Txintxilintxin bakea egin* eta **Tomaxen abenturak** taldearekin *Misterioa Ikasgelan*; harridura magoekin *Magia Parrastan*; hausnarketak egiteko proposamenak, **Hortzmugarekin** *Ipurbeltz* eta **Korri Kuru, korri!** **Pantzart** taldearekin, *Perla Zirkua*, edo **Panta Rheiren** *Noa uy, uy, uy*.

Antzerkia eta umorea baina helduentzat batu zituen **Poltsiko** jaialdiak auzoko tabernetako lankidetzari esker: Eskannerren *Kris eta Krash*, Nortan *Mecha Show* eta Kelly`sen *Kilimaterioa*. Euskaraz nahiz gaztelerazko saio guztiak goraino bete zituzten tabernak.

Antzerkia umeentzat ere bada **Kaleko Antzerkia** zikloaren eskaintza uztailean, Zipotz Jaiekin elkarlanean kokatuta. 2023an *Kobr3* eta *Agurea, urpekaria eta itsasoa* lanek ikusgarri

egin ziren Groseko eguzkipean. Horrez gain jaiiek ekarri zuten aukera hiru abesbatza Okendora gertutzeko: **Eresmin**, **Xistral** eta **Ereski**. Laugarren Abesbatza azaroan ailegatu zen **Tolosako CITekin** batera antolatzen den **Abesbatzak** zikloaren baitan: *La pura fuente Choir*, Japoniatik etorrita, kalitate ikaragarriarekin kantatu zuena San Inazio elizan.



La Pura Fuente Choir



Unai Iturriaga, Harkaitz Cano, Joseba Larratxe © Iñaki Rubio

Azaroan ere **Literaktum** jaialdia ospatu zen. Azarokoak baino lehen Okendok jaso zituen Literaktumen eskutik etorritako topaketak, bi emakume protagonista handiak: **Jumpa Lahiri**, **Olga Tokarczuk** idazleak, Okendo txiki utzi zutenak. Eta urte bukaerako hitzorduan proposamenak adin guztientzat izan ziren: ilustrazio tailerra **Asier Iturralde Gaston** ilustratzailearekin eta azaroko antzerkiarekin. Helduentzat berriz **Etxepare** institutuarekin elkarlanean poesia izan zen presente **Castillo Suarez** eta **Blanca Llum Vidal** idazleekin. **Alejandro Gándara** idazleak 2023ko gaiari zuzenean heldu zion **Primer Amor** liburuarekin. **Mikel Laboa**, **izan liteke konstelazio**, **izan gabe izar...** erakusketarekin lotuta **Ni ez naiz Mikel Laboa** komikiaren hiru egileak **Harkaitz Cano**, **Unai Iturriaga** eta **Joseba Larratxe Josevisky** Okendon izan ziren beren prozesu desberdinen berri emateko, liburuarena hiruen artean. Abenduan, jaialditik kanpo, **Josevisky** itzuliko zen bakarrik marrazkien prozesuari buruz hitz egiteko.

Zikloak ere dira elkarlanean garatu zirenak Okendo Kultur Etxean eta bizitzaren aspektu desberdinei helduz. **Mendia eta Natura**, **Club Vasco de Camping** elkarlearekin batera, urruneko eta gertuko lekuen inguruan, ohiko ikuspegiak zein ikuspuntu berriak ekarri zituenak: **Skimetrajea**, **Slackline**, **La épica y el romanticismo del montañismo en una baraja de cartas**, **El río de los siete nombres**, **Con la fuerza del viento**, **Westfjords**. **Islandia ezezagunena bizikletaz**, **Reel Rock**, **Kruxalteatik Uronarat**, **Tian Shan Kirguitan...**



Olga Tokarczuk



Musikagela fest, Monday Lup

Hilero ere garatu ziren alemanezko eta frantsesezko zinema zikloak. Hizkuntzaren praktika egiteko gogoia zinemazaletasunari gehituta, hainbat saio oso beteak izan zituzten batean zein bestean. Ziklo hauen programazioa eta saioen eztabaidak egiteko elkarrekin eginiko elkarlana ezinbestekoa izan zen: alemanezko zinemaren zikloan **Goethe Institutua** eta **Lorelei** elkartea; eta Frantsesezko zikloan **Institut Français** eta **Alliance Française** erakundea.

Urteroko hitzorduen artean, otsailean **Osasun Astea** garatu zen, Groseko Osakidetzako kideen lan ekarpenari esker auzoko osasuna mahaigaineratu zen, partaidetza eta elkarlana izan zirela ezaugarri nagusiak; horren lekuko antolatzaileen zerrenda: Fundación Why Not Fundazioa, Hondarpe, Bagera, DOPA, Biltzen, Groseko Anbulategia-Osakidetzak, Erlauntza-Gros, Donostia Lagunkoia, Donostia Kultura. Urteroko hitzorduak ere izan ziren beste hainbat elkarterekin gauzatu ziren ziklo eta jarduerak: Gipuzkoako Eskualde

Etxeen Federazioarena, Goldaturen Memoria Historikoari buruzkoa, beste batzuk aipatzeagatik.

Kapitulu honetan 2023k berriz jaso zuen **Musikagela** zerbitzuarekin batera **Musikafest** egitasmoa, aurrekoan ez bezala Saguesen gauzatu zen, Sanjuan egunari dagokion beropelan. Musikak freskatu zuen giroa. Bezperan ere 2023k jendeari dantza eta salto egiteko gogoari irtenbide alaia eman zion, **Iratzar** taldeak gidatuta, Tomas Alba plazan. Berriz ere giro aparta. Bi saio hauen ezaugarria, noski, elkarlana, Uliako auzo elkarrekin udari bide ematen diona eta Groseko jai Batzordearekin neguari ongi etorria ematen diona. Auzoko dinamikan ere kokatu zen abenduaren lehenean Okendok Euskararen Egunerako egitarauari egindako ekarpena **Gardena** kontzertuarekin, berriro Eskaner laguntzari esker.

Azkenik 2023 ezin itxi Okendok eskaintzen dituen **zerbitzuak** aipatu gabe. Espazioen

lagapena izan zen oso estimatua bai auzoko zein auzotik kanpoko eragileen partez. Urtez urte gehiago dira eskaerak uzteko dauden aukerak baino. Hala ere egitasmo ugari bertan gauzatzeko parada eman zuen 2023k, berriz ere urtea motz. Helduen Hitza, Zurriola ikastola, Zubiri-Manteo BHI, udaleko Gazteria Saila (Treba gurasoak hitzaldi jendetsuak), Udaleko Ingurumen Saila (Argitu jardunaldiak), Les Figuretes, eta beste asko.

Okendo kultur etxearen baitan kokatzen den **KZgune** zerbitzuaren erabilera handitzen joan zen urtea aurrera joan ahala. **Plus 55** zerbitzuarekin batera koordinatu zuten arrakala digitala malgutzeko eskaintza, bakoitzak dituen proposamen berezietz gain. Plus 55 zerbitzuak ekarri zituen mugikorrek erabiltzeko ikastaroak eta tutoretzak, Ibilaldiak gero eta jendetsuagoak, Kirola udaran, Giza liburutegia, eta udaberrian **Ostiralak Dantzan** proposamena arrakasta handiz itzuli zen. **Gazteleku eta Haurtxoko** zerbitzuek pandemiaren aurreko martxa berreskuratu zuten guztiz 2023an, eguneroko programazioa, unean uneko gaiei helduta eta auzoko dinamikan parte hartuz.

2023ri bukaera emateko, Okendoko zerbitzurik handiena, bere **Liburutegia**, aurreko urtearen bukaeran bere eskaintza eta zerbitzu guztiak berreskuratuta, pandemiaren aurreko kopuruetara ailegatu eta gainditu ere egin zuen, udan zein neguan. **Ane Mayo**zek gidatuta, **Irakurleen artean** literatur solasaldia handitzen joan zen, **Ane Merinoren Rincón Literario** saioek ohiko martxari eutsi zioten bitartean. Umeek ere beren eskaintza ludikoa izan zuten irakurzaletasunera gerturatzeko: *Liburu Baby Kluba, Ipuinaren ordua*,... urte aberatsa izan zen, zalantzarik gabe 2023a.



Gardena

JARDUERAK

15

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 2.133

1

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 17

15

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 2.508

27

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.729

138

Hitzaldiak eta mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 8.526

25

Erakusketak
Erabiltzaileak: 81.333

133

Bilerak eta elkarten ekitaldiak
Erabiltzaileak: 2.623

123

Liburutegiko jarduerak
Erabiltzaileak: 2.303

153

Plus 55
Erabiltzaileak: 2.357

197

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 3.241

226

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 3.951

0

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 0

Guztira
1.053
jarduera

110.721
erabiltzaile

ZERBITZUAK

125.603

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

4.537

bisitaldi
Gaztelekua

3.861

bisitaldi
Haurtxokoa

13.371

bisitaldi
KZgunea (Nabigazioak)

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Ispilu beltza magazine-podcasts

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Musikagela

0

bisitaldi
Musika Eskola

1.352

bisitaldi
Plus 55

Guztira
148.724
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	31	8	103	97	6
2022-2023 IKASTAROAK	14	4	48	45	3
Ikasturte osokoak (2022ko urria - 2023ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	7	1	7	7	0
Gaztelaniaz	7	3	41	38	3
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2023ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
2023-2024 IKASTAROAK	15	4	55	52	3
Ikasturte osokoak (2023ko urria-2024ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	7	1	10	9	1
Gaztelaniaz	8	3	45	43	2
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2023ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
IKASTARO PUNTUALAK	2	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	2	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 227.364

2



2

3

Liburutegiak

Liburutegiak

Liburutegiek jakintza biltegitratzearen monopolioa izan zuten garai batean; Interneten aro honetan, ordea, aldatu egin da hori. Liburutegien xarma da herritarrek eta herritarrentzako sortu zirela. Liburutegien indargunea da leku atseginak direla, non besterik gabe egon egin zaitezkeen, liburu bat maileguan eraman dezakezun, galdera bati erantzuna aurki diezaiokezun, literatura-solasaldi batean jendea ezagut dezakezun... eta hori guztia, doan. Komunitate baterako apusturik onena da. Liburutegiak sozialak dira, lagundu egin behar diegu ikasi nahi dutenei, liburu bat maileguan eraman nahi duenari, laguntza teknikoa behar duenari. Guztiek aurkitu behar dute haien lekua. Aro digitalak hirugarren leku gisa biziberritzen du liburutegiaren espazioa.



Urte oso ona izan zuen 2023an Donostiako liburutegien sareak; hiru adierazleetan izan zuen igoera aurreko urteko datuekin alderatuta: mailegu, bisitari eta jarduera kopuruetan, alegia.

%10,5eko igoera izan zuen **mailegu kopuruak;** **450.321 mailegu** egin zen guztira.

786.252 lagunek bisitatu zituzten liburutegiak, aurreko urtean baino **% 19** gehiagok eta, azkenik, irakurketaren eta literaturaren inguruko **2.009 jarduera** antolatu ziren, 2022an baino **% 37,3** gehiago.


Jardueretara joandako pertsona kopuruak ere gora egin zuen; aurreko urtearekiko **% 45,4ko** igoera izan zuen, hain zuzen ere. Guztira, **42.348 lagunek** hartu zuen parte jarduera horietan.

Haurrentzako jardueretan eta ikastetxeen bisitetan ere berreskuratu egin zen publikoa. Jazarritako literaturei buruzko ziklo berriaren barruan, lau saio egin ziren eta gorakada izan zuen jarduerak.

Gerrek markatu duten 2023. urte honetan aurkezten denez memoria hau -23 gatazka izan dira-, gogora ekarri nahi izan da liburutegiak eta liburuak indarkeriaren, zentsuraren, bakardadearen, errutinaren eta zakarkeria ororen aurkako aliatuak direla. Gerra garaian ere, babesleku batean liburutegi bat irekitzea itxaropenerako leiho bat irekitzea da.

Horren erakusgarri dira bi liburu hauek: **La Biblioteca de las lectoras valientes**, **Kate Thompsonena**, eta **Harkaitz Cano** idazlearen **El mundo está roto pero se puede caminar** liburu-album zoragarria, **Isabel Herguera** zinemagilearen ilustrazioak dituena. Biek omentzen dituzte liburutegiak eta literatura. Lehenengoak gerra garaian liburutegiek duten eginkizunari buruz hitz egiten du, eta bigarrenak, berriz, neskato batentzako liburutegiak duen eragin sendagarriaz.

Azken batean, liburutegietan inbertitzea jakintzan inbertitzea da.



Liburutegiak ez
daude krisian. Urte
bikaina Donostiako
liburutegietarako



Sarea zenbakitan

2023ko datuak eta zifren igoerak analizatzerakoan, kontuan izan behar da Koldo Mitxelena Kulturuneko Liburutegia itxi egin zutela udan, nahiz eta urriaz geroztik, behin-behineko zerbitzua ematen ari den hiru egoitzatan.

Liburutegi Nagusitik Koldo Mitxelena Kulturunearen prentsa-fitxategira sar daiteke, zehazki egile-eskubideak dituzten goiburuetara.

Agerikoa da liburutegi hori itxi izanak eragina izan zuela udal liburutegien errendimenduaren igoeran. Bazkide kopuruak ere gora egin zuen.

Hobetzeko errendimendua neurtzeak liburutegien hainbat alderdi analizatzera eramaten gaitu.

Oso ona izan zen pandemiaren ondorengo hirugarren urte honetako errendimendua. **450.321** mailegu egin ziren -% 10,5 gehiago-, eta **786.252** bisita jaso zituzten liburutegiek -% 19 gehiago-. Hau da, batez beste, biztanle bakoitzeko 2,3 mailegu. 188.743 biztanle ditu Donostiak, eta % 0,5eko igoera lortu zen.

Zifra horiek 2019koetara hurbiltzen dira.

Aipatzekoa da **harrentzako liburuen 158.290 mailegu** egin zirela. Garrantzitsua da gurasoak mugikorren erabilera mugatzeak duen garrantziaz kontzientziaztea, beste herrialde askotan egiten ari diren bezala. Neska-mutikoak ez dira irakurleak izango etorkizunean, ez badute berenganatzen beharrezko irakur-gaitasuna. Testu laburrak soilik irakurtzea ez da irakurketa.



Liburutegi Nagusia izan zen 2023an mailegu gehien egin zuena, 92.946 hain zuzen ere; ondoren daude Okendoko liburutegia, 69.512 mailegurekin, eta Ernest Lluch, 66.627 mailegurekin. Sareko liburutegi guztietan igo zen mailegu kopurua.

Inskribatutako bazkide kopurua **103.983 lagunetara** iritsi zen. Horietatik **5.093** bazkide berriak. Bazkide aktiboek dagokienez, hau da, mailegu-zerbitzua gutxienez behin erabili zutenak, **26.973** izan ziren.

Funts bibliografikoak eskuratzeko gastua 361.413,26 eurokoa izan zen. Horrek esan nahi du biztanle bakoitzeko 1,91 euroko gastua egin zela, eta bazkide bakoitzeko 3,48 €koa. Garrantzitsua da adieraztea bildumak eguneratuta eta egoera onean izateak duen garrantzia. Liburutegiaren eginkizuna da bildumen itxura fisikoa zaintzea. Zifra aurreko urteetakoaren antzerakoa izan zen.



Liburutegien webgunean, **Liburu Dantza** zerbitzuaren blogean eta **DonostiaTEKA** liburutegi digitalean 504.057 (katalogoan), 195.757 (webgunean), 5.567 (blogean) eta 140.000 (DonostiaTEKAn) kontsulta egin ziren.

Benetako gardentasunean sinesten duten liburutegiak. Paperean eta formatu digitalean argitaratzen dira urtero datu guztiak, edonork ikus ahal dezan bilakaera. Irakurketa Publikoko Sarerako eta Estatistikako Institutu Nazionalerako ere biltzen dira datuak.

Proiektu nabarmenak

2023an, **agirien etxez etxeko mailegu-zerbitzu** berria jarri zen martxan, mugikortasun- edo osasun-arrazoiengatik liburutegietara joan ezin diren Donostiako bizilagunentzat. Helduen Hitza Elkarteko boluntarioei esker gauzatu ahal izan zen proiektua; haiek arduratu ziren agiriak zerbitzua eskatu zuten pertsonen etxeetara eramateaz. Urrian jarri zen abian, eta oso balorazio ona izan zuen, nahiz eta txikia izan zen erabiltzaile kopurua. Liburutegira joatea osasungarria da eta, horregatik, dagoeneko mugikortasuna galtzen dutenean eskatzen dute zerbitzu berria adineko pertsonak.



Maiatzean, jarduera berri bat programatu zen, Ateneo Guipuzcoano elkartearekin lankidetzan: **Literatura jazarriak**. Unibertsitateko hizlarien parte-hartzearekin antolatutako egitarau oparoa. **Salman Rushdie, Marina Tsvetaeva, eta Joaquín Marta Sosa** eta **Mijail Bulgakov** poeten literatura ezagutzeko aukera izan genuen. Liburutegi Nagusian eta Ernest Lluch Kultur etxean egin ziren hitzaldiak. Ziklo berri honekin, Ateneo Guipuzcoano elkartearekin lankidetzari berri bati ekiten zaio.

DonostiaTEKA liburutegi digitalak funtsak gehitu zituen, 334 erregistro berrirekin. Tartean, XIX. eta XX. mendeetako moda-aldizkariak: **Journal des demoiselles, La moda práctica** eta **Le bon ton: journal des modes**, besteak beste. 11 aldizkari, guztira. XIX. mendeko prentsa historikoa, zortzi egunkarirekin; Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin birdigitalizatu ziren. 16 kartel berri, estropadetakoak, inauterietakoak, Aste Nagusikoak, Liburutegien Eguneakoak... Askotariko gaiei buruzko 43 liburuxka, 220 argazki eta,

azkenik, Donostiarekin lotutako 54 egutegi ere erregistratu ziren. Gainera, alde zuzenik zeuden 400 erregistro osatu eta berrizendatu ziren eta eremu berriak gehitu zitzaizkien. **140.000 kontsulta** egin ziren, **7.898 agiri** katalogatu zen, **3575 autoritate-erregistro** egin zen, eta Haur eta Gazte Literaturako Dokumentazio Zentroaren 154 aldizkari katalogatu ziren. Euskal funts historikoaren zati bat ere katalogatu zen, 5.694 agiri, hain zuzen ere. Ateneoaren funtsak Pagolako gordailu bibliografikoan gorde ziren.

Liburuka proiektuak eskolaren, etxearen eta liburutegiaren arteko harremanaren oinarri izaten jarraitzen du. 26 ikastetxek hartu zuten parte proiektua osatu zuten hiru jardueretakoren batean, aurreko urtean baino sei ikastetxe gehiagok. **Motxila Txikia** jardueran, berriz, 18 ikastetxek hartu zuten parte, eta 101 motxila banatu ziren. Ikastetxeei liburuak maileguan emateko **Irakurle Gazteak** jardueran, bestalde, 9.156 mailegu egin ziren, eta 22 ikastetxek hartu zuten parte. **Haur Poesia Aretoan**, azkenik, hiru ikastetxek hartu zuten parte bi astez.

Jarduerak

Irakurketaren eta literaturaren inguruko jardueren programazioa gailendu zen. **Literatura-solasaldiek, Liburu Baby Klubak, Ipuinaren orduak, Zu irakurle gu kontalari** jarduerak eta **Irakurketa Klubek** osatzen duten liburutegi-zerbitzuaren DNA..

Liburuaren Eguna ere ospatu zen, apirilaren 23an, Gipuzkoa Plazako azokarekin. Arrakasta handia izan zuen, izan ere, igandea izanik, lanegunetan egokitu izan denean baino donostiar ugari animatu zen standetan zehar paseatzera. Goizean zabaldu zen azoka, 09:30ean, eta 21:00etan itxi. 11 liburu-dendak hartu zuen parte, % 10eko deskontua egin zen, eta 300 liburu oparitu zitzaizkien erosketan saritutakoei.

2023an, **Lagun liburu-dendak** atea itxi zituen, nahiz eta azokan egon zen. Albiste tristea, liburu-dendak ezinbestekoak baitira; halaxe uste du Donostia Kulturaren liburutegi-zerbitzuak. Donostia Kultura egin zen azokaren kostuaren kargu, uste baitugu hiriak behar duela bere Liburuaren Eguna. Liburuaren Eguna bere ohiko azokarekin ezinbestekoa da kulturaren hiriburu izan zen hiri honentzako.

Jarduera ugari antolatu zuen Donostia Kulturak: **Ilargiaren soinekoa, Lur Korta** ipuin-kontalariaren eskutik, Donostia Kulturaren Youtube-ko kanalean entzun daitekeen online bidezko ipuinaren ordua. **Pantzart Taldea** eta **Boli boli kalean** paperezko txotxongilo, abesti eta poema ikuskizuna.

Berritasun gisa, **Eider Rodríguez** idazlea elkarrizketatu zuen **Oier Aranzabalek**.



F. J. Klaver, *Balada triste de Amara Park*



Donostiar idazleen liburuen egitarauaren barruan, **F.J. Klaver** izan genuen, ***Balada Triste de Amara Park*** lanarekin.

Arratsaldean, **Katherina Mansfield** idazlearen ***Lorategiko festa*** lanaren itzultzaile **Anton Garikano** izan genuen, eta liburuaren zati batzuk irakurri zituzten.

Beranduago, berriz, arratsaldean, ***Hitz eta Pitz*** ikuskizuna eskaini zuten **Asier Burguetek, Joanes Etxebestek** eta **Lorea Intxaustik**. Liburuen inguruko jolasek eta galderek txundituta utzi zituzten umeak eta, jakina, sariak banatu zizkieten 2022ko irakurle onenei. Eguna amaitzeko, **Amaia Agirrek** idatzitako bertso literarioen saioa egin zuten **Nerea Ibarzabalek** eta **Oihana Aranak**.

2023an, **Amaia Garciak** eta **Slawka Grabowskak** zuzendu zuten literatura-ibilaldia. Aurreko mendeko idazleen liburuen eszenatoki diren edo idazle horiek joan ohi ziren hiriko kafetegi eta tabernetan zeharreko ibilaldia. **María Alonso del Valek** antzeztu zituen pasarte batzuk.

Sandra Garayoak egin zuen Liburuaren Egunerako ohiko orri-markatzailea.




Boli boli kalean, Pantzart Taldea

3 hitzordu Poesiarekin

Martxoaren 20tik 27ra ospatu zen **Poesialdia**, martxoaren 21ean Poesiaren Eguna dela eta. Egun haietan eman zen jakitera gazteei zuzendutako Donostia Kultura Poesia Sariketaren irabazlea; **Julen Apella Santamaría** idazle gazteak (Berriz, 1998) irabazi zuen lehiaketa, **Postal bat desertuan** lanari esker. 1.000 euroko saria irabazi zuen eta, gainera, liburua argitaratu zion **Balea Zuria** argitaletxeak eta **Poesia eta Pentsamendua** zikloan hartu zuen parte.

Hainbat ikuskizun antolatu zen **Poesialdiaren** barruan; hala nola **Itziar Ugarte** eta **Mikele Landaren** **Gu gabe ere biharamunean**; **Harkaitz Cano**, **Maite Larburu** eta **Beñat Barandiaranen** **Soneto bat irakurtzeko 20 modu**; eta **Itsas Hariak**, **Aritz Gorrotxategi**, **Pello Otxoteko**, **Nerea Azcona** eta **Nora Otxotekoren** eskutik. Literaturaren hiru figura izan genituen: **Carlos Marzal**, **Euforia** bere poesia-liburua aurkezten; **Manuel Vilas**, **Una sola vida** lanarekin, eta **Mircea Cartarescuri** buruzko solasaldia egin zuten **Luisa Etxenik** eta bere itzultzaile **Marian Otxoa de Eribek**, eta haren ibilbide poetikoaz aritu ziren.

Azkenik, Victoria Eugenia Antzokiko Kluba Aretoan iraileko ohiko literatura-hitzordua egin zen, **Poesia Orduak**.



Poesia eta Pentsamendua

Liburutegien Eguna, urriaren 24an

Medialab Tabakaleraren hamaikagarren edizioa egin zen 2023an, **Liburutegia eduki sortzaile, elkarlanean** leloarekin. Arrakastaz bete zen liburutegi-laboregien dinamikak ezagutzeko helburua, parte hartu zuten 70 profesionaleri esker. Haietako askorentzako zerbait berria zen liburutegi-laboregien teknika, eta haien esperientziarekin lagundu zuten **Alicia Sellés**, **Alicia Rey** eta **Oskar Hernández** adituek.

Donostia Kulturaren proiektua literatura-gomendioekin lotuta dago eta, horregatik, komunikazio-departamentuak hobekuntza ugari egin zuen Liburu Dantza Blogean erabiltzen den softwarean.

Urriaren 24ko egitaraua amaitzeko, Azorin sariketako eleberrien atalari dagokion 2022ko saria irabazi zuen **María Zaragoza** idazleak parte hartu zuen Liburutegi Nagusian (San Jeronimo kalean), **La Biblioteca del fuego** bere liburuaren inguruko literatura-solasaldian. **Ylenia Benitok** zuzendu zuen topaketa, gaztelarazko literatura-solasaldien moderatzaile berriak. Egitarau osagarrian, **Joaquín Jordá** eta **Nuria Villazín** zinemagileen **Monos como Becky** filma ikusteko aukera izan zen.

2023an ere, eta dagoeneko 35. Edizioa da, **Emakume Idazleen Topaketa** egin zen. **Luisa Castro** eta **Victoria Álvarez** izan ziren 2023ko gonbidatuak, eta **Luisa Etxenike** idazleak koordinatu zuen topaketa.

DonostiaTEKA gordailuko Liburuen eta Liburuxken ataleko Irakurketa Gidak ataletik jaitsi daiteke 2023ko Irakurle gomendio-gida. Urtea amaitzeko, **Patri Urkizu** idazle donostiarraren gida bibliografikoa aurkeztu zen, behin osatuta. Interneten eskuragarri dauden testuen QR kodeak txertatu ziren; DonostiaTEKAtik jaitsi daitezke, gainerako irakurketa-gidekin batera.

Ezinezkoa da tokiko idazleei eta kronistei eman zaien laguntza aipatu gabe uztea. Horren erakusgarri da **Jabier Iraola Gabilondoren *Igeldoko historia eta istorioak*** euskarazko liburua. 567 orrialdeko liburu bete-betea, Igeldoren eta hango baserri guztien historia berreskuratzen duena.



Literaktum

Maitasuna eta haren geografiak izan ziren 2023ko **Literaktum** jaialdiaren gai nagusia. Maitasuna, ulertzeko zaila den eta literaturan bere lekua izaten jarraitzen duen sentimendu gisa. **Jacobo Bergareche, Antonio Muñoz Molina, Gioconda Belli, Marta Jiménez, Anjte Rávic Strubel, Ray Loriga, Alejandro Gándara** eta beste hainbat idazlek hitz egin zuten haien liburuetan presente dagoen maitasunaren inguruan. Maitasuna ulertzeko bestelako moduak, eta sortzaile bakoitzaren estilo literario propioa eta ezberdina.

Ez zen poesia falta izan, **Blanca Llum Vidal** eta **Castillo Suárezekin, Hika Teatroa** konpainiak

Hirian literaturarekin lotutako hitzordu garrantzitsuena izaten jarraitzen du Literaktum jaialdiak

Ramón Barea zuzendariaren ***La lucha por la vida*** lana eskaini zuen, Onettiren ipuinak errezitatu zituen **Ángel Marcok...**

Literatura-afariak **Julio Vernerren *Munduari itzulia 80 egunetan*** lana argitaratu zeneko 150. urteurrena ekarri zuen gogora. Literaktum jaialdiaren egitarauaren barruan berritasun gisa, ***Haur literaturaren egokitzapenari*** buruzko mahai-ingurua egin zen. ***Kantzelazioaren kultura*** deritzonarekin eta lan batzuen debekuekin edo zentsurarekin zerikusia duten eta gaur egun askoren ahotan dauden polemiken barruan antolatu zen ekitaldi hori. **Yolanda Arrietak, Belén Gaudesek** eta **Sandra Sánchez Garciak** gaiari buruzko haien iritziak eman zituzten, **Beñat Sarasolarekin** batera.

Literaktum Txiki, berriz, ilustrazio lehiaketarekin etorri zitzaigun, indartsu. Azkeneko edizio honetan, **Ibon Martinen *Oninen abenturak*** liburuetan oinarrituta. Tailerrak, haur-antzerkia, ipuinen maratoia eta Haurren Mundu Eguneko Jaia izan ziren haurrei zuzendutako jarduera garrantzitsuenetako batzuk, eta kontu handiz zaindu ziren, haurrak baitira etorkizuneko irakurleak.



Liburutegi zerbitzua zenbakitan



Funtsak 614.639

Sarbide librea **490.407**
Historiko katalogatua **124.232**



Liburuak **494.059**
CD **31.535**
CD ROM / Bideo-jokoak **2.424**
DVD **58.645**
Mapak **231**
Material grafikoa **5.127**
Partiturak **10.315**
Aldizkako argitalpenak **10.309**
Ordenagailu eramangarriak **39**
E-reader / iPad **23**
Mahai-jokoak **112**



Euskaraz **114.449**
Gaztelaniaz **441.815**
Besterik **58.375**



Altak **37.011**



Bajak **34.090**



Bildumaren
hazkundera **%-0,42**



Bildumaren
eraberritzea **%6,60**



Maileguak 450.321

Maileguak eguneko
1.667



Helduentzako liburuak **222.082**
Haurrentzako liburuak **158.290**
CD **5.778**
DVD helduak **33.935**
DVD hurrak **12.824**
CD ROM **8**
Aldizkako argitalpenak **4.878**
Mapak **4**
Partiturak **2.436**
Bideo-jokoak **5.795**
E-reader / iPad **47**
Ordenagailu eramangarriak **4.174**
Mahai-jokoak **70**



Euskaraz **67.256**
Gaztelaniaz **289.692**
Besterik **18.162**



e-Liburutegia **14.446**



Funts Historikoak Kotsultak
377



Bazkideak 103.983

Helduak **90.840**
 Haurrak **12.497**
 Besterik **646**
 Gizonezkoak **46.622**
 Emakumezkoak **56.724**

Berriak 5.093

Helduak **3.155**
 Haurrak **1.906**
 Besterik **32**
 Gizonezkoak **2.214**
 Emakumezkoak **2.838**

Aktiboak 26.973

Helduak **19.619**
 Haurrak **7.012**
 Besterik **342**
 Gizonezkoak **11.036**
 Emakumezkoak **15.608**



Bisitariak 786.252

Eguneko **2.894**

WWW.

Kontsultak

KZguneetan **38.662**
 Aretoan **14.689**
 OPAC **504.057**
 Web **195.757**
 DonostiaTEKA **140.000**
 Liburu Dantza **5.567**



Jarduerak 2.009

Etorritakoak **42.348**
 Erakusketak **19**
 Online **5**
 Ikustaldiak **605**



LIBURUTEGI NAGUSIA

Sorrera urtea 1874

Irekiera leku berrian 1999



Funtsak

157.277

Sarbide librekoak 62.577

Historiko sailkatua 94.700



Altak

5.438



Bajak

7.355



Maileguak

92.946

Eguneko

316



Kontsultak funts historikoan

321

Kontsultak hemerotekan

4.174



Bisitak

244.628

Eguneko

832



Jarduerak

281

Etorritakoak

14.040



Erakusketak

6

LIBURUTEGI NAGUSIA Haur Saila

Haur Liburuaren

Dokumentazio Gunea

Sorrera urtea 1970

Irekiera leku berrian 1994



Funtsak

47.358

Sarbide librekoak 25.730

Historiko sailkatua 21.628



Altak

4.974



Bajak

6.302



Maileguak

25.143

Eguneko

89



Bisitak

24.703

Eguneko

87



Jarduerak

457

Etorritakoak

7.952



Erakusketak

12

Kultur etxetako liburutegiak

AIETE Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
2010



Funtsak
38.498



Maileguak
45.093

Maileguak eguneko
150



Altak
2.739



Bisitak
48.198

Bisitak eguneko
161



Bajak
1.132



Jarduerak
118

Jardueretara etorritakoak
3.629

CASARES / TOMASENE Kultur Etxeak Liburutegia

Sorrera urtea 1986
Irekiera leku berria 2006



Funtsak
42.446



Maileguak
33.369

Maileguak eguneko
114



Altak
2.776



Bisitak
52.553

Bisitak eguneko
179



Bajak
1.779



Jarduerak
177

Jardueretara etorritakoak
1.653

EGIA Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
1997



Funtsak
27.919



Maileguak
19.652

Maileguak eguneko
89



Altak
1.926



Bisitak
24.227

Bisitak eguneko
110




Bajak
819



Jarduerak
193

Jardueretara etorritakoak
2.672



ERNEST LLUCH Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
2001



Funtsak
46.678



Maileguak
66.627

Maileguak eguneko
225



Altak
4.102



Bisitak
124.406

Bisitak eguneko
420



Bajak
2.194



Jarduerak
220

Jardueretara etorritakoak
3.353

INTXAURRONDO Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea 2000
Irekiera leku berria 2011



Funtsak
51.426



Maileguak
33.974

Maileguak eguneko
142



Altak
2.797



Bisitak
51.539

Bisitak eguneko
216



Bajak
1.024



Jarduerak
119

Jardueretara etorritakoak
1.780

LARRATXO Liburutegia

Sorrera urtea
1987



Funtsak
19.486



Maileguak
8.551

Maileguak eguneko
39



Altak
1.230



Bisitak
13.410

Bisitak eguneko
62



Bajak
862



Jarduerak
32

Jardueretara etorritakoak
382



Kultur etxetako liburutegiak

LARROTXENE Kultur Etxea Liburutegia

Irekita: 6 hilabete
Sorrera urtea: 1988



Funtsak
13.960



Maileguak
4.223

Maileguak eguneko
28



Altak
992



Bisitak
5.815

Bisitak eguneko
38



Bajak
1.390



Jarduerak
50

Jardueretara etorritakoak
943

LOIOLA Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
1987



Funtsak
29.996



Maileguak
17.091

Maileguak eguneko
78



Altak
2.088



Bisitak
15.195

Bisitak eguneko
70



Bajak
6.436



Jarduerak
70

Jardueretara etorritakoak
1.214

LUGARITZ Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
1993



Funtsak
38.578



Maileguak
23.952

Maileguak eguneko
108



Altak
2.407



Bisitak
28.522

Bisitak eguneko
129



Bajak
977



Jarduerak
96

Jardueretara etorritakoak
1.936



OKENDO Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea 1987
Irekiera leku berria 2004



Funtsak
43.865



Maileguak
69.512

Maileguak eguneko
236



Altak
3.280



Bisitak
124.225

Bisitak eguneko
422



Bajak
2.791



Jarduerak
128

Jardueretara etorritakoak
2.092

Beste liburutegiak

SAN TELMO MUSEOA Liburutegia

Sorrera urtea
2011



Funtsak 18.331
Sarbide librekoak 10.427
Historiko sailkatua 7.904



Maileguak
878

Maileguak eguneko
5



Altak
766



Bisitak
3.011

Bisitak eguneko
16



Bajak
107

URGULL Liburutegia

Sorrera urtea
1997



Funtsak
4.274



Maileguak
511

Maileguak eguneko
7



Altak
178



Bisitak
4.166

Bisitak eguneko
55




Bajak
597



Jarduerak
12

Jardueretara etorritakoak
455



Beste liburutegiak

DONOSTIAKO UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO Liburutegia

Sorrera urtea
2006



Funtsak
20.922



Maileguak
4.982

Maileguak eguneko
23



Altak
989



Bisitak
16.016

Bisitak eguneko
74



Bajak
225

CRISTINA ENEAKO INGURUMEN BALIABIDEEN ETXEKO Liburutegia

Sorrera urtea
2002



Funtsak
2.649



Maileguak
36

Maileguak eguneko
0,1



Altak
0



Bisitak
717

Bisitak eguneko
2



Bajak
1

AMUNDARAIN MEDIATEKA

Sorrera urtea 2006
Irekiera leku berria 2018



Funtsak
5.901



Maileguak
3.781

Maileguak eguneko
17



Altak
329



Bisitak
4.921

Bisitak eguneko
22



Bajak
36



Jarduerak
56

Jardueretara etorritakoak
247

2



2

3


Programazioa
ARTE ESZENIKOAK

Programazioa ARTE ESZENIKOAK

Donostia Kulturak konpromiso sendo eta erabakigarria du sektorearekin, erakundearen oinarri eta ardatzetako bat baita. Erakundeak argi izan du beti arte-sare sendorik gabe nekez sor daitekeela eduki interesgarrikerik gero eta hausnarketa eta autokritika gehiago behar duen edo, behintzat, bere burua zalantzan jartzeko gai izan behar duen gizarte honentzat.

Herritarren eta, bereziki, ikusleen ohiturak aldatu egin dira, gero eta ezin aurreikusizkoagoak baitira. Gainera, gure mundua gero eta globalizatuagoa da, eta testuinguru politiko eta ekonomiko orokorrak ez du laguntzen. Era horretan bizitzen ikasten, gertakariei unean-unean erantzun diegu. Harro gaude 2023. urteari indarrez eta jarraikitasunez aurre egin izanaz. Hamabi hilabete nahasi izan dira. Lehen hiru hilabete bizi-bizia izan zen, bigarrenak gainbehera egin zuen, udan indarra hartzen hasi ginen berriz eta udazkena bikain amaitu genuen; hori, ikusleen erantzunari dagokionez, horixe baita, zalantzarik gabe, gure helburu nagusia.

2023KO GERTAKARI NAGUSIAK
Hona hemen 2023. urteko gertakari eszeniko nagusiak:



XXIX dFERIA

2023ko **dFERIA** martxoan egin zen, *Fake* lemarekin. dFERIA azokak garrantzi handia du arte eszenikoen sektorean. Antzerki eta dantzako barne-ikuskizunetan espezializatuta dago, eta aparteko ikuskizunak eskaintzen ditu. Antolamendua eta zerbitzuak bikainak dira, eta eredu da Espainiako eta Latinoamerikako profesional guztientzat. Gainera, Europako zirkuitu profesionaletan gero eta indar handiagoa du.

Azokaren oinarrizko helburuak hauek dira: arte eszenikoen merkatua dinamizatzea, lan-foroetan sektoreko agenteak harremanetan jartzea eta joera eszeniko berriak ezagutzera ematea, programazio berri eta berritzailearekin. Helburu horiek kontu handiz zaintzen dira urtero, eta arreta berezia jartzen zaio euskal sorkuntza sustatzeari.

dFERIA azokaren lau egunak bizi-bizirik izaten dira. Hiriarentzako jaialdi bat da, eta profesional eta zaleentzat festa handi bat, arte eszenikoen festa. dFERIA azokaren 29. edizioan **28 ikuskizun antolatu ziren 10 agertokitan**, *Fake* lematzat hartuta. **8.500 ikusle** izan zituzten, eta eserlekuen % 82 bete zen, batez beste. Diziplinei dagokienez, ikuskizunen % 39 antzezlanak izan ziren, % 46 dantza-ikuskizunak eta % 15 beste diziplina batzuetako ikuskizunak. Horietatik guztietatik % 64 estreinaldiak izan ziren modu batean edo bestean; beraz, programazioan berritasun asko zeuden.

Azoka sektoreko hainbat eragileren topagune bikaina izan zen, eta esperientzia, jakintza eta proposamen artistikoak trukatzeko aukera ugari izan zituzten. Donostiako dFERIA azokak negozio-bolumen handia sortu zuen, zuzenean eta zeharka, eta kalitate-labeldun jarduera izan zen.

Azokari esker **150 antzezle** bildu ziren Donostian, antolatutako ikuskizunetan lan egiteko, eta baita **540 profesional** ere, horietatik **209 programatzaileak**. Izan ere, estatuko antzoki eta jaialdi nagusietako programatzaile

garrantzitsu asko etorri ziren, baita nazioarteko programatzaileak ere, bai europarrak, bai latinoamerikarrak. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako programatzaile ugari parte hartu zuten. Izan ere, etxean interesa piztea ezinbestekoa da beste latitude batzuetako profesionalak erakartzeko eta haien interesa pizteko.

dFERIA garaikidea, berritzailea, askotarikoa, konprometitua eta berria izan zen. Kalitatearen aldeko apustu irmoa egin zuen, azokaren nortasunaren bereizgarri nagusi gisa. Proposamen artistikoak, antzokiak eta profesionalen zerbitzuak kalitatezkoak izan ziren. Urtero, dFERIAk gai bat hartzen du ardatz, zeina azokaren beraren eragingarri izaten baita. Aldi bereko jardueretan, estatuan eredu den negozio-foroan eta aurkezpen pribatu eta publikoetan lan-tresna baliotsuak eskuratu zituzten artista eta kudeatzaileak. Gainera, intelektualek osaturiko hausnarketa-mahaietan ekarpen garrantzitsuak egin zituzten, gelditu eta hausnartzeko, ondorioak ateratzeko, arazoak konpontzeko eta etorkizunean etengabe hobetzen joateko bideak marrazteko.



dFERIAko giroa © Gorka Bravo

UDAKO ANTZERKIA

Udako antzerki-egitarauan **21 ikuskizun** zeuden. Bi hilabete eta erdian, **95 emankizunek 28.000 ikusle** baino gehiago erakarri zituzten Victoria Eugenia Antzokira eta Antzoki Zaharrera.

Antzoki Zaharrean antzezlan hauek ikusi ahal izan genituen: **Oscar Terolen *Mundos para lelos 2.0***, Tricycle konpainiako kide ohi **Carles Sansen *iPor fin solo!*** eta **Iker Galartzaren *Lehendakari Gaia***. Victoria Eugenia Antzokian arrakasta handia izan zuten, besteak beste, **Pilar Castro** eta **Candela Peñaeren *Contracciones*** eta **Jon Plazaola** eta **Agustín Jiménezzen *Un óscar para Óscar*** antzezlanek, **Peter Pan** musikalak eta zirkuak, besteak beste. Donostiako udako antzerkiaren bilakaeraz harro gaude. Izan ere, duela hogeiturote Madrilgo konpainiak bakarrik etortzen ziren, eta, pixkanaka, bertako antzezlanak eskaintzen joan gara, lehendabizi gaztelaniazkoak eta gero euskarazkoak, dantzaz, zirkuaz eta musikalez gain. Gainera, eserleku guztiak, edo ia guztiak, bete ditugu.



Un oscar para Óscar



Peter pan, el musical © Lilo Filmmaker

24. DONOSTIA ANTZERKI SARIA 2023

Euskarazko antzerkiaren aldeko lanaren une gorena helduentzako euskarazko ikuskizun onenaren **Donostia Antzerki Saria** emateko gala izan zen. Gainera, saritutako ikuskizuna egun bererako programatu zen. 2022ko ikuskizun onenaren saria (dirua eta arte plastikoko obra bat) **Kamikaz Kolektiboaren eta Ttak Teatroaren *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi*** antzezlanak eraman zuen. Antzezlan horretan, hiru emakume askari-mahai baten inguruan biltzen dira kanpai-hotsarekin. Tisana, pastak, azukrea eta pasteltxoak hartzen dituzte, eguneroko bizimoduaz hitz egiten duten bitartean. Nork mugitzen ote ditu emakume horien kortseen hariak?, galdetzen diote beren buruari.

Festa amaitzeko, martxoaren 27an, Antzerkiaren Munduko Egunean, saria emateko jaialdia egin zen. Donostiak, gero eta ikusle gehiagoren babesari esker, Euskadin parerik ez duen gazte eta helduentzako euskarazko antzerki-programazio egonkor eta erregularri eusten dio.



Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi

DANTZAREN 26. GALA

Gipuzkoako Dantzako Profesionalen Elkarteak, Victoria Eugenia Antzokiarekin elkarlanean, Dantzaren Nazioarteko Eguneko 26. Gala antolatu zuen Victoria Eugenia Antzokian, dantzaren hilabeteko jardueren baitan.

Maiatzaren 28an bi emanaldi egin ziren Victoria Eugenia Antzokian: bata 12:00etan eta bestea 19:00etan.

Dantza-estilo ugari izan genituen ikusgai, hasi neoklasikotik eta garaikidera, dantzari eta konpainien elkarlan altruistari esker. Alde horretatik, etxeko dantzari eta konpainiak nabarmendu ziren. Izan ere, zerbaitegatik dira euskal dantzari handietako zenbait munduko ballet garrantzitsuenetako dantzari gorenak.

II ITURRITIK JAIALDIA

Iturritik jaialdia dantza-ziklo berri bat da. Asmoa da tradizioetik, iturritik, jatorritik edaten duten koreografia-lanak sustatzea. Izan ere, tradizioa da sortzaile askoren abiapuntua eta forma garaikideetarako bidea egiteko inspirazioa. **Iturritik jaialdia** sortze-joera horien lekuko bihurtzea da helburua.

Tradizioetik abiatuz eta sorkuntzatik igaroz, nortasunaz aritu ziren hainbat artista. Ikusle zein dantzari hainbat sortzailek egindako ikuskizunez gozatzeko aukera izan zuten, baita gai horren inguruan antolatutako zenbait jardueratan parte hartzeko ere. Jaialdiaren 2023ko edizioak Euskal Herriko eta Andaluziako proposamenak eskaini zituen, hainbat ikuskizun eta elkarrizketa, alegia, pentsatzeko eta trebatzeko.

2023an, **Iturritik jaialdiak** bigarren edizioa zuen. Aurreko urtean hasitako bideari eutsi zion, eta **Argia Dantza Taldearen** ondoren **Kresala, Nova Galega de Danza** eta **Antonio Ruz** konpainiak heldu ziren. Egitaraua honako hauek osatu zuten: **Kukai Dantza** taldeak, aretoan zein kalean, eta abangoardiaren aitzindari den **La Phármaco** konpainiak. **Iturritik jaialdiak Marcos Morau, Antonio Ruz, Luz Arcas, Jon Maya** eta **Faustino Aranzabal** bildu zituen, eta zoragarria izan zen.



La Noche de San Juan, Compañía Antonio Ruz

IKUSKIZUNAK

Antzerkia

Antzerkian helduentzako euskarazko proposamenen aldeko apustua egin zen, bereziki. Horixe egiten da duela 25 urtetik, eta ikusleek oso ongi erantzuten dute. Tematzeak fruituak eman ditu, eta emaitzak oso onak izan dira. Dirudenez, azken urteetako lanak, ahalegintzeak, programazioari eustek eta Udalaren Euskara Zerbitzuarekin batera antolatutako sariak Euskal Herrian den euskarazko antzerki-programazio bakarra sendotzea ekarri du. Euskarazko antzerkia sustatuz, gazteen eta helduen eskariak gora egin du, eta horrek mesede egiten dio euskarazko dramaturgiari eta sektore artistikoari. Antolatutako **18 ikuskizunek 10.636 ikusle** bildu zituzten, hainbat agertokitan. Donostia Kulturak, hiri osoan indarra hartu duenez, agertoki hauetan eskaini zituen emankizunak: Antzoki Zaharrean (egoitza nagusia), Victoria Eugenia Antzokian, Gazteszenan eta Imanol Larzabal aretoan. 41 emankizunetan inoiz baino eserleku gehiago bete ziren, batez beste.

Victoria Eugenia Antzokia eta Antzoki Zaharra udal-antzokiak dira, eta Egia Kultur Etxeko Gazteszena eta Lugaritz Kultur Etxeko Imanol Larzabal aretoekin elkarlanean aritu ziren hainbat formatu eta proposamen eskaintzeko, eskaintza orekatua, zabala, originala eta deszentralizatu izan zedin; hori, betiere, ikusleak askotarikoak direla kontuan hartuta.

Erakundeak garrantzi handia eman zion hiriko kultur etxe zein udal-antzokietan haurrentzako antzerkia bultzatzeari. Haurren arte-eszenikoetarako zaletasuna bultzatzea funtsezkoa da, haiek trebatzeko eta etorkizuneko ikusleak moldatzeko.

Beste ardatz estrategikoetako bat arte eszenikoak etorkizuneko ikusleei gerturatzea izan zen. Gazteengan arte eszenikoetarako, hau da, zuzeneko arteetarako zaletasuna bultzatzea, sortzaile gazteek forma eta eduki berritzaileekin sortutako ikuskizunen bitartez. Alde horretatik, Egiako eta Antiguako kultur etxeek lan goresgarria egin dute Gazteszenaren eta Imanol Larzabal aretoaren bitartez, hurrenez hurren. Prezioen politikari dagokionez, **Ordu gaztea** ekimenak asko lagundu zuen lan horretan. 30 urtetik beherako gazteek sarrerak 3 eurotan eros ditzakete, ikuskizuna eta prezioa edozein direla, emankizuna hasi baino 30 minutu lehenago. Neurri bikaina izan zen, gazteei arte eszenikoez gozatzeko aukera emateko, zaletasuna sortzeko eta etorkizunean afizioari eusteko. Horiek horrela, 2023an 1.032 gaztek gozatu zuten **Ordu gazteaz**.



Dantza



Dantzari dagokionez, erakundeak urteak daramatza **Kukai Dantza** konpainiarekin estu-estu elkarlanean. Konpainiak Dantza Sari Nazionala du sorkuntza-modalitatean, eta folklorea, mitoak eta erritu tradizionalak modu berezian lantzen dituela nabarmentzen dute, eta hizkera garaikidearekin unibertsal den horretara heltzea lortzen dutela. Ohiko moduan, erakundeak **Malandain Ballet Biarritz** konpainiarekin ere estuki lan egin du, zeina Victoria Eugenia Antzokiko kolaboratzaile baita 2007tik (urtero hainbat ikuskizun eskaintzen ditu). Horiek horrela, **Malandain Ballet Biarritz** eta **Kukai Dantza** izan ziren protagonista urtean zehar dantzan prestatzeko eta sensibilizatzeko antolatutako koreografia-jardueretan: topaketak, eskolak, lantegiak, laborategiak eta abar. Horrela sortu zen, hain zuzen ere, **Iturritik jaialdia** dantza-ziklo berria.

Dantzako Profesionalen Elkarteak ere lan handia egin du dantza sustatzeko eta garatzeko. Izan ere, **Dantzaren Hilabetea** antolatu zuen, eta baita **Dantzaren Gala** ere, besteak beste, Victoria Eugenia Antzokiarekin elkarlanean. Eta ezin ahaztu **Verdini** eta hiriko dantzak, dantza tradizionalak eta flamenkoa interpretatu zituzten konpainiak. Guztien artean koreografia-urte koloretsu eta ñabarduraz betea eskaini ziguten.

Donostia Kulturak hiri osoan lan egiten duenez eta azpiegitura ugari kudeatzen dituenaz, askotariko programazioak diseinatu eta koordinatu ditzake Victoria Eugenia Antzokiarekin eta dantzan espezializatuta dagoen Gazteszena aretoarekin.



Miyuki Kanei et Daniel Vizcayo, Noe © Olivier Houeix

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Victoria Eugenia Espainiako antzoki ospetsuenetako bat da, eta formatu handia, ikuskizun eredugarriak, artista entzutetsuak, sormena eta fidagarritasun artistikoa dira bere bereizgarriak. Hona hemen 2023ko ikuskizun garrantzitsuenen zerrenda:

La infamia. Testua: **Lydia Cacho**. Eszena-zuzendaria: **José Martret**. Emakumezko antzezle onenaren 2023ko Max saria (ex aequo): **Marta Nieto** eta **Marina Salas**. Pedofiliako eta hurren sexu-esplotazioko nazioarteko sare bat salatzen du obrak. Sare hori **Jean Succar Kuri** enpresaburu hotelariak zuzentzen zuen Cancundik, eta haur-pornografiak hornitzen zituen Mexikoko eta atzerriko enpresaburu eta politikari boteretsuak.

Forever. Sortze-lan kolektiboa. Maskaren keinu-antzerkia. Eszena-zuzendaria: **Iñaki Rikarte**.

Forever Kulunka Teatroak Zentro Dramatiko Nazionalarekin, Bilboko Arriaga Antzokiarekin eta Donostiako Victoria Eugenia Antzokiarekin elkarlanean sortutako antzezlan bat da. Maitasunaren kontraesanak umorez eta ironiaz kontatzen ditu, eta gai hauek ditu ardatz: amatasuna, heziketa, sexualitatea eta indarkeria. **Forever** antzezlanean, maskarek txintik esan gabe hunkitzen gaituzte. **Kulunka** konpainiak 2023ko antzezlan handietako bat sortu zuen, maitasunaz, gehiegi babestean, inkomunikazioaz, familiaz eta bikoteaz hitz egiten duena.

Las aves. Sortze-lan kolektibo bat da, **Aristofanesen** obran oinarritua, populismo neoliberalaren gorakada eta funtzionarazten duten mekanismo emozionalak jorratzen dituena. **La Calórica** konpainiak sari asko irabazi ditu **Las aves** antzezlanarekin. Dramaturgia: **Joan Yago**. Eszena-zuzendaria: **Israel Solà**.

El proceso. **Franz Kafkaren** eleberrian oinarrituta dago, eta **Ernesto Caballero** du dramagile eta zuzendari. **Carlos Hipólitok Josef K** jokatzen du. Zentro Dramatiko Nazionalaren eta Lantia Escénica etxearen koprodukzio bat da.



Prima Facie

Prima Facie. **Suzie Miller** dramagilearen antzezlan bat da, bizi-bizia eta galderak sortzen dituena. Antzezlanak sari ugari jaso ditu, eta iaz sarrera guztiak agortu ziren Londresko West End antzokian. Pertsona bakarreko lana da, sexu-erasoen aurrean sistema judizialek nola funtzionatzen duten azaltzen duena.

La Celestina. **Fernando de Rojas** idazlearen klasikoaz **Eduardo Galán** egindako bertsio bat da, eta **Anabel Alonso** du protagonista.

2023ko programazioa bikaina izan zen: testu itzelez, zuzendari handiez eta lehen mailako antzezleez gozatu ahal izan genuen, eta hitza eta gaur egungo edukiak izan ziren protagonista. Programazioak ikusleen arretari eta interesari eutsi ahal izan zion, urte zail eta berezi batean. Gainera, **Albert Boadella Els Joglars** konpainiara itzuli zen, hamar urteren ondoren, **El rey que fue** antzezlanarekin, eta **Pío Barojaren La lucha por la vida** testua eszenaratu zen Arriaga Antzokian.

Dantzari dagokionez, honako hauek nabarmendu ziren:



Eterno © Ialodeho

Peeping Tom konpainiaren **Diptych**. Koreografia eta zuzendaritza: **Gabriela Carrizo** eta **Franck Chartier**. Munduan ospe handia duen konpainia belgikarrak hoteleko logela batean bildu zuen bere dantza-antzerki unibertso izugarria. Bikaina izan zen.

Eterno. **Carlos Rodríguez**en dantza-ikuskizun berria. **Eterno obrak ohiko dantza-ikuskizunen arauak hausten ditu**: hausteko eta berritzeko gogoz, **Picassoren** sortze-prozesua deseraikitzen du, pintorearen irudiari ikuspegi askotatik begiratuz eta artistaren tesiak bere eginez. Artea gezur handi bat da, zeina egia kontatzeko erabili eta sortu ahal izateko deuseztatzen baitugu.

Lasala konpainiaren **Shine**. Victoria Eugenia antzokian estreinatu zen. **Judith Argomanizek askatasun** dei geniezaiokeen horren mugak miatzen ditu, hainbat hizkera erabiliz.

Dance me - Leonard Cohen. Sortze-lan eksklusiboa, **Leonard Cohen** Montrealgo poeta, artista eta musikagilearen obra zabal eta sakonean inspiratua, eta **Cohenek** berak onetsia. **Louis Robitaille** da zuzendari artistikoa, eta **Eric Jean** dramaturgia eszenikoaren arduradun ausarta. Ikuskizuna bostaldi edo arotan mamitzen da, **Cohenek** bere

bizitza ere bost ziklotan azaldu baitzuen bere obran. Munduko konpainiarik onenetako batek, **Ballets Jazz Montréal** konpainiak, poeta, artista eta musikagilea omendu zuen.

Gurean ohikoak badira ere, ezin ahatz ditzakegu **Malandain Ballet Biarritz** eta **Kukai Dantza**. Gogora ekarriko ditugu, halaber, **Eduardo Guerrero**, **Antonio Ruz** eta **Dani Abreu**.

Donostian musikalak ere izan genituen gozagai, **Bizkartzaina** eta **Peter Pan**, adibidez.

Magia jaialdi bikain bat ere izan genuen hirian, Get In etxeak ekoiztua: **Donostia vive la magia!**



Shine © Renata L. Etanowski

ANTZOKI ZAHARRA

Antzoki Zaharra Euskal Herrian den euskarazko antzerki-programazio egonkor eta erregular bakarraren ardatz nagusia da. Programazio hori Donostia Kulturak diseinatzen du, Udalaren Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean. Euskarazko antzerki-ekoizpenean eredu diren konpainia guztiak etorri ziren Kale Nagusiko agertokira: **Tanttaka, Vaivén, Ados, Txalo, ATX** eta **Demodé**, besteak beste. Aparteko ikuskizunez gozatu ahal izan genuen, ***Ez naiz inoiz Dublinen egon, Hobe ixilik!***, ***Lehendakari Gaia*** eta ***Nekatutak*** obrez, adibidez, artista bikainen eskutik: **Iker Galartza, Zuhaitz Gurrutxaga, Antton Telleria, Aitziber Garmendia, Itziar Ituño, Ane Gabarain** etab.

Gaztelaniazko antzezlanak ere programatu ziren. María de Melok bere ***Alfonso X, la última cantiga*** obra bikaina aurkeztu zuen, Cádiztik ***El Ramper*** etorri zen, eta **Fernando Erre** donostiarraren ***Hernani*** komediaz ere gozatu ahal izan genuen.



Ez naiz inoiz Dublinen egon © Mikel Blasco



Hobe ixilik, Itziar Ituño & Ramon Agirre

GAZTESZENA

Egia Kultur Etxeko aretoak dantza garaikidearen alorrean lan handia egiten du. Gazteszenan izan ziren **Asier Zabaleta, Igor Calonge** eta **Amaia Elizaran**, eta baita estatuko zenbait artista ere, **Dani Abreu, Roberto Olivan** eta **Lali Aiguade**, esaterako.

Zirku Berria esaten dioten arloan bi delicatessen aurkeztu ziren: **Manuel Alcántararen Déjà vu** eta **Zirkuss** konpainia donostiarraren **Sustrai**.

Euskarazko antzerki-programazioari dagokionez, **Pez Limbo** konpainiaren **Itsas behera** eta Loraldia jaialdiaren **Mira hadi** lana azpimarra ditzakegu. Eta ezin ahantz dezakegu **Artedrama** plataformaren **Miña**.



Lali Aiguade

IMANOL LARZABAL

Lugaritz Kultur Etxeko Imanol Larzabal aretoak lan itzela egin zuen formatu txikian, eta hiriko artista hasiberriei leku eman zien. Eskaini zuten ikuskizun-sortari esker, Donostia Kulturaren esku-hartzea osoa eta orokorra izan zen. Hainbat estilo eta kontzeptu landu zituzten, eta artista gazteei aukerak eman zizkieten.

La teta calva, Doble Sentido, A panaderia, Arden eta **Suttotos** konpainiek, adibidez, formatu txikiko antzezlan-sorta zabal, askotariko eta irekia eskaini zuten, artista gazte eta talentudunekin.

Emankizunak bikainak izan ziren, eta donostiarrek harrera ona egin zieten.



Las que limpian, A panaderia

IKUSKIZUNEN EKOIZPENA

Victoria Eugenia Antzokiak arte eszenikoak (antzerkia, dantza eta, neurri txikiagoan, zirkua) dinamizatzen ditu, eta, pausoz pauso, modu aktiboagoan parte hartzen du sektoreko sarean. Antzokia ikuskizunen erakusleihoa baino gehiago da. Antzokiaren asmoa dinamikoa izatea da, kudeaketa-bide berrien alde egitea, erronka berriak bere gain hartzea eta erakusketa hutsetik harago joatea. Horretarako, konpromisoak hartzen ditu eta proiektuetan desberdin eta indar handiagoz engaiatzen da. Premisa hau da: gastuak partekatzeaz gain, ikuskizunen garapenean eta geroko bizitzan parte hartzea. Horrelaxe piztu du lagun egiteko, bermatzeko, sustatzeko eta, hein batean bada ere, koproduzitzeko gogoia. Funtsean, helburua proiektuaren parte izatea da. Ekoizpen-kostuak handiak dira eta, gainera, sortze-lana zabaltzea zaila da. Hori dela eta, ezinbestekoa da elkar hartzea eta lasaiago eta baliabide gehiagorekin sortzearen aldeko apustua egitea. Hori, emaitza artistikoak onak eta ustiatzeko eta fruituak jasotzekoaldiak luzeagoak izan daitezzen.

Victoria Eugenia Antzokiak ikuskizun hauek koproduzitu zituen 2023an:

Noé - Malandain Ballet Biarritz

Koproduzitzaileak: Donostia Kultura - Victoria Eugenia Antzokia - San Sebastián - Ballet T, Chaillot -Théâtre National de la Danse - Paris, Opéra de Saint Etienne, CCN Malandain Ballet Biarritz

Koreografia: **Thierry Malandain**

Musika: **Gioacchino Rossini** eta **Messa di Gloria**

Yarin - Kukai Dantza

Koproduzitzaileak: Donostia Kultura eta Victoria Eugenia Antzokia

Koreografia: **Andrés Marin, Jon Maya** eta **Sharon Fridman**

Musika: **Julen Achiary**

Dantzariak: **Andrés Marin** eta **Jon Maya**

Forever - Kulunka Teatroa

Koproduzitzaileak: Arriaga Antzokia, Zentro Dramatiko Nazionala (CDN), Victoria Eugenia Antzokia

Zuzendaria: **Iñaki Rikarte**

Egileak: **Iñaki Rikarte, Garbiñe Insausti, José Dault** eta **Edu Cárcamo**

¿Quién nos disparó después del 22? ¿Y ahora? - ALEXANDRU SCANCIU

Koproduzitzaileak: Nuevas Dramaturgias ANTZ3RKIZ (Arriaga Antzokia, Gasteizko Principal Antzokia, Victoria Eugenia Antzokia)

Egilea: **Alexandru Scanciu**

Zuzendaria: **Alexandru Scanciu**

Miña - Artedrama

Koproduzitzaileak: Eusko Jaurlaritza, Akitania-Euskadi eskualdea, Victoria Eugenia Antzokia eta Artedrama

Egilea: **Ibrahima Balde** eta **Amets Arzallus**

Zuzendaria: **Ander Lipus**



ALDI BEREKO ETA SENTSIBILIZATZEKO JARDUERAK

Arte eszenikoetako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak bereziki zaindu ziren 2023an, eta lantegi, laborategi, ikastaro, eskola magistral, truke, ikusle-eskola, entsegu ireki, artista eta ikusleen topaketa eta abarretan 3655 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten.

Asmoa zen arte eszenikoak herritarrengana hurbiltzea, ikusleak aberasteko ikuspegiak sartzea, arte eszenikoa ezagutzen laguntzea eta, azkenean, dantza- eta antzerti-ikusle berriak sortzen joatea.

Epigrafe honetan, atal berezi bana behar duten bi proiektu handi eta sendo daude: **Eskolatik Antzokira** eta **Dramaturgia berriak** idazketa dramatikoaren laborategia.

Eskolatik Antzokira

Eskolatik Antzokira handitzen joan da urtez urte adin-tarte guztietan. Konplizitatea eta fideltasuna sendotu dira, haurren onerako. Gazteengan arte eszenikoetarako eta zuzeneko arteetarako zaletasuna sustatzea da asmoa. Izan ere, beren prestakuntza akademiko eta pertsonalean osagarri oso garrantzitsuak dira. Arte eszenikoarekin sortuko duten loturak bizitza osoan iraungo du. **6 ikuskizunen 34 emanaldi** programatu ziren, eta **5.099** ikaslek parte hartu zuten.

Eskolatik Antzokira programaren 2023ko edizioko egitaraua erakargarria eta interesgarria izan zen:

Bi urtetik aurrera, **Teatro Paraíso** konpainiaren **Leihoak**. Bizikidetzari buruzko haurtxoentzako proiektu eszenikoa.

Lau urtetik aurrera, **Ponten Pie** konpainiaren **Bajau**. Gizakion lehen zelula urez beteriko mintz batean garatzen da.



Leihoak, Teatro Paraíso

Sei urtetik aurrera, **Anita Maravillas & Portal 71** konpainiaren **Kotondarrak**. Herritik hirirako ibilbideari buruzko lana.

Zortzi urtetik aurrera, **Spasmo Teatro** konpainiaren **Giza gorputza**. Eta pertsona baten barruan sartu eta ikasten dugun bitartean abentura zoragarri bat bizi ahal izateko bezain txikiak izango bagina?



12 urtetik aurrera, **Manolo Alcántara** zirku-konpainiaren **Déjà vu**. Ikuskizun bisuala, testurik gabea, istorio malenkoniatsu baten bitartez errealitatearen eta fantasiaren arteko mugak lausotzen dituena.

14 urtetik aurrera, **Malandain Ballet Biarritz** konpainiaren **Noe**. Noe, mundu berri baten jaiotzaren sinbolo gisa.

Antzokira joan ziren irakasleek esperientziari etekin pedagogikoa ateratzeko aukera izaten jarraitu zuten. Horretarako, ikusleentzako prestakuntza-gidak egin ziren, aukeratutako ikuskizunari buruzko informazio eta hausnarketekin, eta antzezpena ikustera joan aurretik edo gero egiteko jarduerekin. Gainera, ikusleek emozioak adierazi ahal izateko iradokizunak eskaini ziren.



Déjà vu, Manolo Alcántara © Raquel García

Dramaturgia Berriak 7. Edizioa

Dramaturgia Berriak Donostia 2016ko ondare bat da, Bilboko Arriaga Antzokiarekin eta Gasteizko Principal Antzokiarekin elkarlanean egiten dena. Programaren helburua idazketa dramatikoaren sustatzea da, sortzaileak eta dramagileak babestuz eta prestatuz. Bakarlana eta hain ohikoa ez den talde-lana uztartzen ditu, eta material dramatikoaren corpus batek osatzen du, zeina antzerki-konpainiek eta sortzaile eszenikoek eredu gisa erabil baitezakete. Alde horretatik, ekimenak antzerki-testu berriak sortzeko asmoa ere badu; hori, testua antzerki-zuzendari bati emateko moduko partituratzat hartuta, gero hark eszenara dezan. Aukeratutako partaideek (gehenez zortzi) obra dramatiko bat sortu behar dute lau hilabeteetan, arte eszenikoetako profesionalak maisu dituztela: **Patxo Telleria** eta **Mireia Gabilondo**, adibidez.

Urtero, aurreko edizioan idatzitako testu bat aukeratu eta eszenaratzen da. Ekoizpen-lanaz proiektuari eusten dioten hiru antzokiak arduratzen dira. Edizio honetan **Dorleta Urretabizkaiaren *Rigor mortis*** aukeratu zuten.

2



2

3

Programazioa
MUSIKA



Zea Mays, Adarra Saria © Foku / Jon Urbe

Programazioa MUSIKA

Hiru bloke handi izan zituen 2023an Victoria Eugenia Antzokiko Musika-programazioak:

Lehenik eta behin, bertako proposamenei eskainitakoa; horien artean, nabarmentzekoak dira **Eñaut Elorrieta**, Gure Ahotsak programa (**Olatz Salvador**, **La Bien Querida**, **Maite Larburu** eta **Neomak**); **X5 Kolektiboa**, **Xabier Letek** konposatutako musika berreskuratzen duena;

Judith Jauregi piano-jotzailea; **Zea Mays** taldea, Adarra Saria jaso zuena; **Diego Vasallo**, **Mikel Erentxun**, **Olatz Zugasti** eta **Joserra Senperenaren** kontzertuak; eta, azkenik, aipagarria da **Ricardo Aldarondo** kazetari eta DJak, **Concierto de Navidad de Discos Mon Oncle** izenburuarekin antolatu zuen tokiko sortzaileen Gabonetako batzarra. Era horretako deialdi gehiago egingo den itxura guztia hartu zuen.

Nazioarteko atalari dagokionez, emanaldi ugari, interesgarriak eta askotarikoak izan genituen 2023an: **Tindersticks**, **The Musical Box**, **Interpol**, **Yoshida Brothers** japoniarrak, **Masters Drummers of Burundi**, **Teenage Fanclub**, **Sofiane Pamart** piano-jotzaile frantziarra eta **Stick Men**; aipamen berezia merezi du jazz programazioak; **Eddi Henderson** tronpeta-jotzailea, **Rachel Eckroth** abeslari eta piano-jotzailea, **Chris Potter** saxofoi-jotzailea eta **Myra Melford** piano-jotzailea izan genituen atal horren barruan.



Olatz Zugasti

Azkenik, Musika Klasikoa ere presente izan zen antzoki honetan, Donostia Musikaren programazioekin (**Schuberti** eskainitako zikloa urte osoan zehar); Batura zikloa ere izan genuen, euskal egileei buruzkoa, eta Zarzuelari eskainitako programazioa, **Sasibill** elkartearen eskutik.

18.000 bat ikus-entzule izan zituzten programatutako 65 ikuskizun hauek.



Yoshida Brothers



Mikel Erentxun © Daniel Oyarzabal



Chris Potter © Dave Stapleton



Myra Melford's Fire And Water © Don Dixon



Eñaut Elorrieta © Nerea Ibarzabal



Olatz Salvador

2



2

3

Programazioa ZINEMA
ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

Programazioa ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

Tabakalerako asteroko **Nosferatu zikloak** harrera bikaina izan zuen 2023an, eta **Frantziako Polar** edo zinema beltzeko genero ezaguneko hogeita hamarren bat filmen atzerabegirako bat eskaini zen. Euskadiko Filmategiarekin batera espainieraz eta euskaraz argitaratutako bi libururi esker, aparteko indarra eman zitzaion Estatu mailan Zinemaren Historia aztertzeke ekimen horiei.





Donostia Kulturak aurten diruz lagundu dituen jaialdien artean, gure espazioetan egin ziren -erabat edo zati batean- **Dock of the Bay XVII** (maiatzean), film laburrei eskainitako **Donoskino VII** (urrian), eta **Itsaspeko 47. Zinema Jaialdia** (azaroan).

Jaialdi horiek eta aurrerago aipatuko ditugun beste ekimen batzuek, hain zuzen ere, erakusten dute ikus-entzunezkoekin lotutako kolektiboek eta elkarteek etengabe jarraitzen dutela lanean, ingurunean kultura-eskaintza eta -sorkuntza eraikitzen.



Menditour 2023

Zinema eta Mendia uztartzen dituen **Menditour** zikloko saioek (urtarrilean) harrera ona izaten jarraitu zuten, baita **Zinegoak** jaialdiaren hedapenak (ekainean) eta **Emakumeen Etxea** ziklo berriak ere (azaroan); 2023ko edizioan, Tabakalerarekin lankidetzan, **Cecilia Bartolomé** zinemagileari eskaini zitzaion azken jaialdi hori.



Después de 2, Cecilia Bartolomé zikloa

Antzoki Zaharrean, **gizarte arloko ikus-entzunezko hainbat gala** ospatu zen, besteak beste: Larrotxene Kultur Etxearen ikasturte amaierako **Bideoaldia**; AGISAS gala, **Bideak Zabalduz** proiektuarekin (abenduan), eta **Begiradak** jaialdiaren amaierako gala (abenduan). Victoria Eugenia Antzokian, bestalde, Atzegiko ikasleek haien trebetasunak erakutsi zituzten ekainean, ikasturte amaierako galan, eta Antzoki Zaharrean, urrian, elkarte horren beraren ikasturte hasierako kanpaina aurkeztu zen.

Abenduaren 11n, gainera, **Giza Eskubideen Jaialdiak Insumisas** dokumentalaren estreinaldi berezia antolatu zuen, beste erakunde batzuekin batera.

Tinko euskara elkartearekin hitzartuta, **Euskara Zine Aretoetara** programak ikasleak zinema-aretoetara eramaten jarraitu zuen, adin-taldean arabera hautatutako filmen gaiak lantzeko gida didaktiko eta guzti.

Azkenik, **Bang Bang Zinema** egitasmoak bere saio parte-hartzaile arrakastatsuekin jarraitu zuen, horietako bat **Beldurrezko Zinemaren Astearekin** lankidetzan.



Zinegoak hedapena, *Perpetua felicidad*

2



2

3

Festak



© Sonia Urreizti

Festak

Errege Magoak

Urtarrilaren 5ean, osteguna, **Sortaldeko Errege Magoak** hirira etorri ziren berriz ere. **Tabakalera** Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroan izan ziren lehendabizi. Goizeko 10:30ean Andre Zigarrogileen plazara begira dagoen eraikinaren balkoi nagusira irten ziren, eta Donostiako haurrek zenbat maite dituzten ikusi ahal izan zuten.

Plazan bildutako jendea agurtu ondoren, Errege Magoak garaiko autoetara igo, eta beren laguntzaileak (errege-mezulariak eta **Joselontxos** txaranga) **hiriko hainbat auzotan** ibili ziren: Intxaurrondo, Altza, Martutene, Loiolako Erriberak, Amara eta Antigua. Ibilbidea amaitu ondoren, Donostiako udaletxerantz abiatu ziren. Han, 15:30ean hasita, beren desioak haiekin partekatzeko irrikan zeuden Donostiako ehunka haurrei harrera egin zieten. **Tradiziozko harrerak** bi ordu iraun zuen eta gero, atsedeen txiki bat hartu ondoren, Meltxor, Gaspar eta Baltasar karrozetara igo ziren, desfilea hasteko prest.

18:00etan abiatu ziren Boulevardetik, eta ohiko ibilbidea berreskuratu zuten. Kolore eta erritmo bizi-biziek ibili ziren hiriaren erdialdeko kaleetan barrena. Errege Magoei laguntzen dieten pajeek, hainbat animazio-taldek eta **bost karrozak** parte hartu zuten kabalkadan: ohiko lau karrozek (Jaiotza, Meltxor, Gaspar eta Baltasar) eta **Itzurun** konpartsako buruhandien karrozak, zeina Garbera merkataritza-guneak babestu baitzuen. Desfileko kaleak jendez gainezka zeuden. Amaitu ondoren, Errege Magoak hala eskatu zuten zahar-egoitzak bisitatu zituzten, **Alai-Etxe**, **Matía Rezola** eta **Villa Sacramento**, hain zuzen ere.



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

San Sebastian eguna - Danborrada

Bi urtez hiriko zaindariaren eguna behar bezala ezin ospatu eta gero, nabaria zen hiritarrek eta antolatzaileek festa ospatzeko zuten gogoa, eta ondo baino hobeto ospatu zuten. Izan ere, inoiz baino **helduen danborrada** gehiago izan ziren, **157**, hain zuzen ere (azkenean, izena eman zuten bik ez zuten parte hartu), eta **7 lehenbizikoz atera ziren**.

Alde horretatik, azpimarratzekoa da beste danborrada batek, Parte Zaharreko **Ollagorra** danborradak, hain zuzen ere, emakumeak hartu zituela lehenbizikoz, eta gizonaen danborrada izatetik **danborrada misto izatera pasa** zela. Horiek horrela, danborraden % **94,30 mistoa** da. Partaideei dagokienez, danborradek bere emandako datuen arabera, **20.508 helduk** parte hartu zuten (**9.156 emakumek eta 11.352 gizonen**).

Bandera **altxatzeko** ekitaldian, Gaztelubide danborradako kideez gain, hainbat danborradatako **117 kidek** jo ahal izan zituzten

AMARA - LOIOLAKO ERRIBERAK - MORLANS

- Minaren Lagunak
- Nordic Walking
- Tambores Solidarios

ANTIGUA

- Iteam Lagunak
- Itxaspe Danborrada
- Otsoaren Ulua Danborrada

EGIA - LOIOLA - MARTUTENE

- Tamborrada Lanberri Danborrada

danborrak eta kupelak Konstituzio plazan.

Easo abesbatzak ere abestu zuten ekitaldian, eta arratsalde horretan bertan **Hiritar Merezimenduaren Domina** jaso zuten. **Bandera-jaistean** ere hainbat danborradatako **100 kidek** jo zuten Unión Artesana elkartearekin batera. 2020an ezarritako ohiturari jarraikiz, San Sebastian egun osoan Konstituzio plazan egon zen **Donostiako bandera Artzak Ortzeok** elkarteari eman zioten.



© Sonia Urreizti

Haurren danborradan, Alderdi Eder haurrez bete zen berriz ere; irrikan zeuden egutegian ondo markatuta zuten egun bereziaz lagunekin gozatzeko. Giro ezin hobea egin zuen, eta **4.731 haur (2.567 neska eta 2.164 mutil)** ibili ziren hiriaren erdialdeko kaleetan danborrak eta kupelak joz. Horrez gain, bezperan ere **haurren bost danborrada** ibili ziren hiriko hainbat auzotan, besteak beste Unión Artesana elkarteko haurren danborrada berria (**UA 150 Haur Danborrada**), eta guztira beste **677** hurrek parte hartu zuten.

Lehenago, haurren danborradako pertsonaiak aurkeztu zituzten Victoria Eugenia Antzokian. Ekitaldi horretan, hiriko alkate **Eneko Goiak** zenbaiti dominak eman zizkien eta haurren danborradako danbor nagusiari aginte-makila eman zion. 2023ko haurren danborradako pertsonaiak Zurriola ikastolakoak ziren, eta danbor nagusia Orixe ikastolakoa.



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

Donostiako Kaldereroak

Jai hori **hiriko zaharrenetako bat da**. Ohi bezala, hainbat konpartsa ibili ziren hiriko kaleetan barrena, mailuekin zartaginak joz, **Raimundo Sarriegiren** melodiak abesten zituzten ehunka ahotsen artean.

Otsailaren 4an, Hungariako Kaldereroen Konpartsa Tradizionalak Parte Zaharrea desfilatu zuen. Desfilea ohiko ordutegian hasi zen, **21:45ean**, eta **22:00etan Konstituzio plazan kokatu zuten kanpalekua**. Han, konpartsako erreginak eta damek, eta **Beñat Gaztelumendi, Nerea Elustondo** eta **Asier Iburguren** bertsolariek, zenbait bertso bota zituzten, entzuleak agurtzeko. Gero, 19 tribuetako kideek errepertorio osoa interpretatu zuten (**Begi urdin bat, Mazurka, Hungariako kaldereroak** eta **Kanta hungariarra**). Ekitaldi horretan **Kresala taldeko dantzariak** eta **Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolako Bandak** ere parte hartu zuten.

Otsailaren 3tik 11ra, **beste kalderero-konpartsa** batzuek ere desfilatu zuten hiriko hainbat auzotan.

Hungariako Kaldereroen Konpartsa Tradizionalak Parte Zaharreko kaleetan desfilatu eta hilabetera, inauteri-garai bete-betean, **berri txar** bat jaso genuen. Izan ere, **Joseba Galarraga hil zen**, urtero-urtero konpartsako erreginari eta damei lagun egiteaz arduratzen zen konpartsakide ezaguna. Goian bego.



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

PARTE ZAHARREKO KALDEREROEN KONPARTSA TRADIZIONALA

19 Tribuak
410 partaide-kopurua

Erregina: Beñat Gaztelumendi
Damak: Nerea Elustondo, Asier Iburguren

Inudeak eta artzainak

Betiko moduan, **otsailaren 5ean, igandea, Kresala elkarteko** Inudeak eta Artzainak konpartsak desfilea egin zuten. Eguerdiko **12:00etan** irten ziren, eta donostiarrek ondo baino hobeto ezagutzen duten ohiko ibilbidea egin zuten, ohiko konpartsa-egiturarekin.

Inude eta artzain bikoteek dantza egin zuten ibilbidean, eta Donostiako antzinako gizartea irudikatzen zuten pertsonaia tradizionalak kolorez jantzi zuten igandea.

Gainera, egun hartan eta hurrengoetan, hainbat konpartsa ibili ziren beren auzoetan (Groseko Artzai eta Iñudeak Konpartsa, Antiguako Iñude eta Artzaian Konpartsa...).



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti





© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

Inauteriak

Pandemia ondoko lehen inauterien **kartela Cristobal Aguiló Domínguezek** egin zuen. Kartelak grisa albo batean utzi eta kolorez janzteko gonbit egiten zuen, mozorroa jantzi eta gozatzekoa.

Inauteriak **otsailaren 16tik 21era** ospatu ziren, ostegunetik asteartera, inolako murrizketarik gabe eta normaltasun osoz. Gainera, hainbat urteren ondoren, jaiegun bat gehiago izan genuen, asteartea, hain zuzen ere, sardina-ehorzketaren eguna.

Berritasun bat gehiago ere izan zen. Izan ere, lehen inauteri-egunean, hiriko giltzak Momo jainkosari eman ondoren, inauteriei hasiera emateko jai bat egin zen udalbatza-aretoan, eta jende ugari bertaratu zen.

Besteak beste, 2023ko inauterietako pertsonarik ospetsuena izan zen festan, **Momo jainkosa, Toxic konpartsak**o **Mónica Larreina López**, zeinak bere segizioa izan zuen lagun: **Elena Gil Bobillo, June Zuñiga Pizarro** eta **Aser Larreina López**.

Konpartsak **Illunben** aurkeztu zituzten otsailaren 17an, ostirala, eta sarrerak salgai jarri eta berehala agortu ziren. Ekitaldia online ere eman zen zuzenean, **Donostia Kulturaren web-orrian** eta **Festen YouTube**ko kanalean, denek izan

genezan ikusteko aukera. 21:00etatik aurrera, inauterietan parte hartuko zuten **25 konpartsek** hiruna minutu izan zituzten desfileetan eramango zituzten jantziak eta egingo zituzten koreografiak aurkezteko.

Galaren amaieran, inauterietako jantzien diseinuak saritu zituzten. Laugarren edizio honetan, **Intxaur-Txiki** konpartsak irabazi zuen lehen saria, **Herkules** gaiarekin. Bigarren saria **Eureka** konpartsak eraman zuen, **Afrikako oroitzapenak** gaiarekin; eta hirugarren saria **Alegria de Alza** konpartsak, **Joskintzako maisuak** gaiarekin.

Larunbateko eta igandeko desfileetan 26 konpartsak parte hartu zuten (kide-kopuruaren arabera **hiru mailatan** sailkatuta, beti bezala: txikiak, ertainak eta handiak).

Konpartsa eta Karrozen Lehiaketari dagokionez, **Inauterietako Sari Nagusia Eureka konpartsak** irabazi zuen berriz ere (bost urtez segidan irabazi dute). Oraingoan **Afrikako oroitzapenak** gaia aukeratu zuten. Jantzi koloretsuak zeramatzen eta eszenaratzea bikaina izan zen. **Umorearen Sari Nagusia** hiru konpartsek partekatu zuten: **Bóveda Gazte Elkarteak A ze Banda!** gaiarekin, **Furius** taldeak **Inauteri begetala** gaiarekin, eta **Showtime** taldeak **Marisol**-ekin.



© Sonia Urreizti

Lehen aipatutako hiru mailetako konpartsa eta karrozek ere jaso zituzten sariak. Otsailaren 24an eman zituzten, **Urnietako Oianume** jatetxean egin zuten **afari** batean.

Lehen esan bezala, inauteriak astearteraino luzatu zirenez, azken urteetan astelehenean egiten zen **sardina-ehorzketan otsailaren 21ean** egin zen, asteartean, ohi zen bezala.

San Juan bezpera

2023ko udaburua ospatzeko, hiriko hainbat lekutan **21 su** piztu eta haien inguruan askotariko jarduerak egin ziren.

San Juan bezperako ospakizun nagusia Konstituzio plazan egin zen. Honako hauek parte hartu zuten: hauteskondeen ondoren eraturako udalbatza berriak, Udal Txistulari Bandak eta **Goizaldi, Arkaitz, Eskola** eta **Gero Axular** dantza-taldeetako dantzariak. **Goizaldi Dantza Taldearen 75. urteurrena** zela eta, **Boiseko** (Idaho, AEB) **dantza-taldeko** zenbait kide ere han izan ziren, **Goizaldi** taldeak gonbidatuta.

San Juan zortzikoa dantzatu eta zuhaitzaren erritua egin ondoren, Udal Txistulari Bandak, amaitzeko, erromeria egin zuen.

Beste **20 suak** auzo hauetan piztu zituzten:



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

SAN JUAN BEZPERAREN OSPAKIZUNA AUZOETAN **20 suak**

Auzoak: Aiete, Intxaurrenondo (2), Amara, Larratxo, Amara Zaharra (2), Loiola, Antigua, Martutene, Bidebieta Morlans, Egia, Oleta, Gros, Parte Zaharra, Herrera, Loiolako Erriberak, Igeldo, Txomin

Aste Nagusia

2023ko Aste Nagusia abuztuaren 12tik 19ra ospatu zen eta, hiriko alkate **Eneko Goiaren** iritziz, biribila izan zen. Izan ere, jendetza bildu zen eta hiriko kale eta plazetan umore eta giro ona izan ziren nagusi. Jaien egitarauan **300 jarduera** zeuden, **ikusle-mota guztientzat**.

Hasiera-ekitaldian hiriko gizarte- eta kultura-bizitzan ondo sustraituta dauden bi kolektibo izan ziren protagonista, **Artillero** pieza garun-desgaitasuna duten pertsonen familien **Aspace Gipuzkoa** elkarteko hainbat kide, senide, boluntario eta hezitzailek eta **Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko** bazkideen ordezkariak abestu eta dantzatu baitzuten; izan ere, Argazkilari Elkartearen 75. urteurrena zen. Aurreko urteetan bezala, udalbatzako hainbat kidek ere parte hartu zuten jaien hasieran.

Egitarauari dagokionez, donostiarrek eta bisitariek ondo baino hobeto hartzen dituzten jarduerak **sendotu** ziren, eta pixkanaka-pixkanaka ikusleak erakartzen dituzten eta finkatzen doazen **berritasunak** sartu ziren. **Aurrez izena eman beharreko** jardueretan eta gastronomia-lehiaketetan plazak agortu ziren, eta zenbaitetan itxaron-zerrendak egin behar izan zituzten.

Aste Nagusia
Abuztuaren 12tik 19ra

Ikusleen zenbatespena
1.200.000

Jarduerak
300 baino gehiago



© Sonia Urreizti

Konstituzio plazako egitaraua seguru hasi zen berriz ere: **Txistularien Alardeak** urte asko ditu (2023koa 46. edizioa izan zen), baina donostiar ikusleen erantzuna ez da aldatzen, eta gero eta hobe dela esan dezakegu. Gainera, beren dantza-ikuskizunak eskaintzen dituzten tokiko **folklore-taldee** (**Goizaldi, Gero Axular, Eskola eta Arkaitz**) **Ibarrako Alurr Dantza Taldea** batu zitzairen, apustu berritzaile batekin.

Saguesko kontzertuek **66.000** entzule baino gehiago izan zituzten, eta **Danny Ocean** abeslari venezuelarrarena eta **En Tol Sarmiento** talde arabarrarena izan ziren jendetsuenak. 2023ko Aste Nagusiko gauetako kartela honako hauek osatu zuten: **Sofía Ellar, Gari & Maldanbera, El Drogas, Bulego, Huntza** eta **Antonio Carmona**.

Hiriko beste leku batzuetan ere egin ziren hainbat jarduerak: **Boulevardean** kontzertuak arratsaldean eta gauetan, **Easo plazan** dantzaldiak eta bertsolariak, **Kursaalen** inguruan musika- eta gastronomia-jarduerak, **Erraldoi eta Buruhandien konpartsak** eta haurrentzako jarduerak egunero, **Dantz Point** jaialdia **Urgull** mendian (eguraldi txarrak ere ez zuen zapuztu), ohiko kirol-jarduerak...



© Sonia Urreizti

Aste Nagusian tradizio handien duten lehiaketetan, hau da, **Herri Kiroletan, Ainitze Zumeta** zarauztarrak **marka guztiak hautsi zituen Uliako Harrian**, 70 kiloko harria **17** aldiz altxatu baitzuen. Lehiaketaren bigarren edizioan zazpi harri-jasotzailek parte hartu zuten. Igeldoko Harrian, gizonetzkoek ez zuten errekorrik hautsi. Hala ere, **Goenatxok** 2002an egindako 19 jasoaldiak gainditu zituzten ia-ia, 2023ko edizioko irabazleak, **Mikel Lopetegi Gereka Urrak 18** aldiz jaso baitzuen harria. Lehiaketan 10 harri-jasotzailek parte hartu zuten, besteak beste **Ryan Richard Stewart** iparramerikarrak, Utahkoa bera, zeinak bederatzi jasoaldi egin baitzituen. Aizkolarien **Urrezko Kopan Iker Vicente** nafarra izan zen garaile.

Urdanetan eta **Pasealeku Berrian** azoka bana izan ziren, eta biek ala biek bete-betean funtzionatu zuten Aste Nagusiko egun guztietan.

ASTE NAGUSIKO SARIAK

Herri kirolak

Urrezko Kopa: **Iker Vicente**
Igeldoko Harria: **Mikel Lopetegi Urra**
Uliako Harria: **Ainitze Zumeta**

Aste Nagusiko XVI. Marmitako Lehiaketa

Bikotea: **Rosa Mari San José eta Rafael Díaz**

“Familia Kozinatzen”

II. Gastronomia Lehiaketa

Zanpaletarrak (Murillo Nebreda sendia:
Aitor, María, Dunix, Arhane)

Aste Nagusiko VI. Lehiaketa, legatza saltsa berdean

Bikotea: **Juanma Oteiza Manteca eta Aurelio M. Acera Iglesias**

Aste Nagusiko VI. Paella Lehiaketa

Bikotea: **José Jiménez eta Ángela Ibarguren**

Aste Nagusiko VI. Arkume Menestra Lehiaketa

Bikotea: **Ibón Sarasola Monzón eta Pernas Gleig**

Aste Nagusiko VI. Bandera emakumeentzat Nortindal Donostiarra Ur Kirolak

Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketa

Su Artifizialen Nazioarteko 58. Lehiaketari dagokionez, aste bikaina izan zen. Edizio honetan, **bildumen kalitatea** eta piroteknia-etxeen aparteko produktuak nabarmendu ziren. Beharbada, azken urteetako lehiaketarik onena izan zen, eta horrek Europako txapelketa onenen artean egotea indartzen du. Piroteknia-etxe guztiek maila oso ona erakutsi zuten, eta badiaren inguruan bildu ziren ikusleak gozarazi zituzten.



Lehiaketa irabazi duen argazkia, Svitlana Omelyanenko Pustovit

Aste Nagusia eta lehiaketa bera amaitzeko su- eta musika-ikuskizunaz **Vulcano piroteknia-etxea** arduratu zen. Horretarako, **Spotify** plataforman asko entzuten diren euskal artisten musika erabili zuten, bai euskarazkoa, bai gaztelaniazkoa. Horrez gain, une horretan gehien entzuten ziren zenbait melodia ere aukeratu zituzten, artista horiek plataforman arrakasta izatera helduko ziren ustearekin. Su- eta musika-ikuskizunaren gauean bertaratu zen jende gehien: **110.000 pertsona** inguru.

Zazpigarren urtez, Aste Nagusiko Su Artifizialen Argazki Lehiaketa egin zen, eta **Svitlana Omelyanenko Pustovit-ek** irabazi zuen, **Erreflexuak** argazkiarekin. Guztira **34 lagunek** parte hartu zuten, **87 argazkirekin**.

SU FESTEN NAZIOARTEKO 58. LEHIAKETA JAIALDIA (Abuztuaren 12tik 18ra)

Ikusleen zenbatespena 650.000 lagun

Parte hartu zuten pirotekniak

- Fully Fused Fireworks (Erresuma Batua)
- Pirotecniá Zaragozana (Zaragoza)
- Caffero Event Fireworks (Herbehereak)
- Pirotecniá Tamarit (Valentzia)
- Pirotecniá Xaraiva (Ourense)
- Pirotecniá Valenciana (Valentzia)
- Scarsella Fireworks (Italia)

Sarituen zerrenda

Urrezko Maskorra:

Pirotecniá Valenciana (Valentzia)

Zilarrezko Maskorra:

Caffero Event Fireworks (Herbehereak)

Brontzezko Maskorra:

Scarsella Fireworks (Italia)

“Super Amara” Gazteriaren Saria:

Caffero Event Fireworks (Herbehereak)

Herri Epaimahaiaren Saria:

Pirotecniá Valenciana (Valentzia)

Abuztuaren 31 oroitzeke ekitaldiak

Abuztuaren 31n, eguerdiko 11:30etik aurrera, hainbat ekitaldi egin ziren, eta, eguna amaitzeko, Abuztuaren 31 kalean argiak itzali, kandelak piztu eta ibilaldi tradizionala egin zen, zuzien argitan.

12:45eko oroitzapenezko mezaren ondoren, udal-agintariek loreak eskaini zituzten Itsasoko atean. Arratsaldean, 16:00etan, hiriko hainbat auzotako danborraden ordezkariak eta Donostia 31 Kultur Taldea elkarteak ospakizuneko desfilea eta hiria eraso eta deuseztatu zuteneko **antzeppen historikoa** egin zituzten. Boulevardeko kioskoaren aurrean bildu, minutu bateko isilunea gorde eta, ondoren, Donostiako martxa zaharra jo zuten.

Iluntzean, hiriko zenbait elizatan **kanpaiak jo** eta gero, Abuztuaren 31 kalean argiak itzali eta kandelak piztu zituzten. Ondoren, ibilaldia egin zen San Bizente elizako ataritik Santa Maria elizako atarira, zuzien argitan eta Donostiako himno zaharraren doinuekin. Han, eguna amaitzeko, abuztuaren 31n hildakoen omenez Jose Maria Usandizagak konposatutako martxa jo zuten.

Aurreko egunetan, hirian gertatutakoari buruzko erakusketa bat egon zen ikusgai San Jeronimo biltzar-aretoan, eta **Donostia erre aurretik** pelikula ere eman zen. Halaber, urteurrena gogoratzeko hainbat hitzaldi eta bisita gidatu antolatu ziren.

Donostiako estropadak

Estropadek garrantzi handia dute Donostiako jaien egutegian. 2023an, **emakumezkoek abuztuaren 30ean** lehiatu zuten, eta **gizonezkoek abuztuaren 31n**. Finalak iraileko lehen bi igandeetan jokatu zituzten, **irailaren 3an eta 10ean**, hain zuzen ere.

2023ko kartela diseinu original bat izan zen, kirol-jardunaldi garrantzitsu honen **izaera irudikatze hainbat teknika artistiko** konbinatzen zituena. Izan ere, **Leire Aramburu de la Cal** lezoarrak, **collagea, argazkiak eta ilustrazio digitala** erabiliz, irudi berezi eta deigarri bat sortu zuen, estropaden eta Donostiako natura-ingurunearen energia eta edertasuna adierazten zituena.



© Sonia Urreizti

Aurreko urteetan bezala, ADEGI elkarteak Adegí Kultura Berria Sariak eman zizkien bi jardunaldiak batuz denbora onena lortu zuten eskifaia gipuzkoarrei. **Emakumezkoetan, Donostia Arraun Lagunak** donostiarrek irabazi zuten, eta **gizonezkoetan Hondarribiko** arraunlariek. Sariak emateko ekitaldian honako hauek egon ziren: ADEGIko zuzendari nagusia eta lehendakaria, **José Miguel Ayerza** eta **Eduardo Junkera**, hurrenez hurren; eta Donostiako alkatea, **Eneko Goia**.



© Sonia Urreizti

KONTXAKO XVI. BANDERA

Emakumeentzat

Parte hartu zuten klubak

19

Sailkatuak

- Orio - Orialki
- Donostia Arraun Lagunak
- Tolosaldea Arraun Kluba
- Zumaia Salegi Jatetxea
- Hondarribia Bertako Igogailuak
- Jamones Ancín Hibaika Arraun Elkartea
- Kaiku Nortegas

Bi igandeetan Nortindal Donostiarra Ur Kirolak batu zitzairen, hiriaren ordezkari gisa.

Irabazlea

- Donostia Arraun Lagunak

KONTXAKO BANDERA

Gizonezkoentzat

Parte hartu zuten klubak

25

Sailkatuak

- Zierbena Bahías de Bizkaia
- Hondarribia
- Orio - Orialki
- Bermeo Uradibai
- Cabo-Rianxeira-Boiro
- Getaria
- Ondarroa Cikautxo

Horiekin batera, Amenabar Donostiarra Ur Kirolak 100 trainerua ere aritu zen bi igandeetan, Donostiaren ordezkari.

Irabazlea

- Bermeo Urdaibai

Euskal Jaiak

Euskal Jaiak iragartzeko irudia aukeratzeko lehiaketa bat antolatu zen arren, epaimahaiak saririk ez ematea erabaki zuen, eta **Julen Canori** eskatu zioten irudia egitea. Hark **Zirrar!** obra aurkeztu zuen, **Euskal Jaiei** hainbat alderdi irudikatzen dituen collage bat.

Abuztuaren 30etik irailaren 10era 60 jarduera gauzatu ziren, funtsean gure sortzaile eta ekoizleen kultura-jarduerak.



© DK Festak



© DK Festak

Sagardo Egunak 36 urte bete zituen, eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko **34 sagardogilek** parte hartu zuten. Sagardoz bustita eta jendetzarekin hasi zen festa, beraz, Konstituzio plazan.

Dantza Solteko Lehiaketari dagokionez, **11 bikotek** parte hartu zuten, eta **Maren Gálvez** lezoarrak eta **Gorka Granado** sopolarrak irabazi zuten txapela. Urtero bezala, lehiaketak harrera bikaina izan zuen.

Horrez gain, **ohiko jardueraz** gozatu ahal izan genuen, besteak beste: azokak (nekazaritza ekologikoa, artisautza, etab.), gastronomia-lehiaketak (marmitakoa, legatza, tomateak...), Gaztelu Eguna, Donostia Bertsotan, kirolak (bola-jokoa, toka, pilota...) eta musika-ekitaldiak (kantu-jirak, erromeriak, muxikoak, esku-dantzak...).

2023an **Goizaldi Dantza Taldeak 75. urteurrena** zuen, eta hainbat jarduera egin zituzten urte osoan, hori ospatzeko. Euskal Jaietan emanaldi bat egin zuten Konstituzio plazan, Donostiako dantza-talde hauetako dantzariekin batera: **Trebeska, Eskola, Gero Axular, Arkaitz** eta **Antiguotarrak**. Dantzaldiaren ondoren, Parte Zaharreko kaleetan ibili ziren.



© Sonia Urreizti

Santo Tomas feria

Abenduaren 21ean, Santo Tomas egunean, eguraldiak ez zuen lagundu feria ospatzen. Negu-giro latza zegoen, haizea eta euria, eta, aurreko urteetan baino jende gutxiago etorri zenez, gutxiago saldu zen. Hala ere, feria normal joan zen eta jendeak programan parte hartu zuen. Guztira **170 postu** zeuden, askotariko produktuekin, besteak beste, fruta, barazkiak, gazta, hestebeteak, kontserbak, eztria, artisau-lanak...

Feria astegunean eta eguraldi traketsarekin egin zenez, giroa **lasaia** izan zen eta **ez zen jendetzarik bildu**. Horrek **salmentetan** eragina izan zuen, aurreko urtekoekin alderatuta **% 25 inguru** jaitsi baitziren.



© Sonia Urreizti



Santo Tomas Feria

Abenduak 21

167 postuak

Urdemea

Xixili, 340-360 Kg

© Sonia Urreizti

Ohiko **lehiaketak** egin ziren: batetik, jakienak (txistorra, ezti, barazkiak eta frutak); bestetik, txorimaloena; eta azkenik, baserritar jantzien 5. lehiaketa. Horiez gain, lehiaketa berri bat ere antolatu zen: *Txistorra gastronomian* 1. Gastronomía Lehiaketa. Bost bikotek baino ez zuten parte hartu, baina hurrengo edizioetan indarra hartzea eta ferriako jarduera tradizional bihurtzea espero da. Aurreko urteetan bezala, **herri-kirolak, animalia-erakusketa, haurrentzako lantegiak, bertsolariak** eta abar izan ziren; eta jaieguna amaitzeko, **erromeria** Boulevardean.

Xixili izan zen ferriako protagonista, **340-360 kiloko basatxerria**. Konstituzio plazan eman zuen egun osoa, eta jende ugari joan zen hura ikustera.

Feria hiriko beste **8 auzotan** ere ospatu zuten (bai 21ean, bai aurreko egunetan).

2023KO SANTO TOMASETAN SARITUTAKOEN ZERRENDA

Baserriko Produktuen Lehiaketa

Barazkiak: Ezozi Etxeberria Irusta (Soraluze)

Frutak: Maddi Iradi Peñagarikano (Hernani)

Jose Salaberria Memoriale:

Ane Zeberio Zubeltzu (Hernani)

Euskal Herriko XXVII. Txistorra Lehiaketa

José Luis Gesalaga Aizpurua (Zarautz)
Gesalaga Okelan

Donostialdeko Ezti Lehiaketa

Javi Devesa (Hernani)

Txorimaloen Lehiaketa

Intxaurrondo Ikastolako Urdintxo Guraso Elk.

Baserritar Jantzien V. Lehiaketa - Dotore Jantzi

Haurrak - Emakumeak: Haizea Burguera

Haurrak - Gizonak: Eki Urruzmendi

Helduak - Emakumeak: Agustina Odriozola, Leire Belloso (mención especial)

Helduak - Gizonak: Jagona Astiazaran

Taldea: Nora-Maddi-Anne-Ainhua-Nahia

Aizkolarien Urrezko VI. Kopa (emakumeak)

Karmele Gisasola (Bizkaia)

Olentzero eta Mari Domingi

Aurten, **Olentzero eta Mari Domingi** Donostiara heldu eta udaletxera joan ziren zuzenean, **abenduaren 24ko** goizean. Han, balkoitik agurtu zituzten Donostiako haurrak.

Gero, **antzinako kabriolet auto** batera igo eta, haiek eskatu bezala, hiriko kaleetan ibilaldia egin zuten. Nahi izan zutenek, bizikletan edo irristailuetan lagun egin zieten. Galtzagorriek eta egurgileek, jakina, ez zuten huts egin.

Arratsaldean, **15:30etik 17:30era, Olentzero eta Mari Domingi** udalbatza-aretoan egon ziren, **haurrak agurtzen eta haien eskutitzak jasotzen**. Harrera lasaia izan zen, ez zen jende-pilaketarik gertatu, eta haurrak oso gustura egon ziren.

Ondoren, **Olentzero eta Mari Domingi** haientzat prestatutako karrozara igo, eta desfilea egin zuten. **Desfilea Boulevardean** hasi zen 18:00etan eta hiriaren erdialdeko kaleak zeharkatu zituen. Benetan ikusgarria zen, pertsonaia mitologikoz betea.

Guztira **510 lagunek parte hartu zuten, 16 taldetan**. Ikusle ugari bildu zituen, eta jendeak txaloak jo eta Olentzero eta Mari Domingi agurtzen zituen espaloitik.



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

Hiriko **auzoetan** ere ibili ziren asteburuan **Olentzero eta Mari Domingi**. Abenduaren 22tik, hiriko **18 auzo** bisitatu zituzten, non hainbat jarduera baitzeuden antolatuta.

Desfilea amaitu ondoren, **Olentzerok eta Mari Domingik** udaletxeko terrazatik agur egin zieten donostiarrei.

Auzoetako festak

Ohi bezala, festen atalak, festak ospatzeko **baimenak kudeatu eta ezinbesteko udal-zerbitzuak koordinatzeaz** gain, azpiegiturak eman eta muntatzeko koordinazio-lanak egin zituzten, antolaketa-batzordeei lana errazte aldera.

2023an, guztira **30 kolektibok** egin zituzten festak beren auzoetan, % **80k udan** (24 festa ekaina, uztaila eta irailean).

Eskualdeetako etxeak

Hirian eta probintzian dauden eskualdeetako etxeek bost ekitaldi antolatu zituzten 2023an. Donostiako **Errioxako Etxeak Errioxako eguna** eta **Mahats-bilketaren Eguna** antolatu zituen (Bretxa plazan eta Boulevardean, hurrenez hurren). **Extremadurako Etxeak Extremadurako Kultura Astearen 42. edizioa** antolatu zuen Intxaurrendoko egoitzan, eta, Behobia-Donostia lasterketaren egunean, **Extremadurako Ogi-mamien Eguna** Bretxa inguruan (San Juan-Sarriegi). 2023ko lehen ospakizuna **Eskualdeko Etxeen 37. Eguna** izan zen. Ekainaren 4an ospatu zen, Konstituzio plazan, eta Gaztela-Mantxa, Extremadura, Galizia eta Errioxako ordezkariak parte hartu zuten: beren lurraldeetako produktu tipikoak jarri zituzten salgai eta beren folklorea erakutsi zuten. Azkenik, Galiziako Etxeak 2023an ez zuen jarduerarik antolatu.

Senidetzeak

2023an ere, beste behin, **trofeo-plakak** trukatu ziren Japoniako **Marugame** hiriarekin. Plaka horiek bi hirietan urtean zehar egiten diren haurren kirol-lehiaketetarako sari gisa erabiltzen dira. Horrez gain, Donostiako pertsona bat japoniera hobetzeko Marugameko hirira joateko gestioak egin ziren (bitartekoak eta ostatua bilatzea).

Donostiak Alemaniako **Wiesbaden** hiriarekin daukan senide-harremanen esparruan eta hiri horretako Senidetze Batzordearekin elkarlanean, Gipuzkoako hiru artista grafikok (**Ione Larrañaga Gorritxo, Mikel Larrañaga de Lapresa** eta **Jokin Oregui Murguizu**) **Meeting of Styles (MOS)** topaketan parte hartzeko aukera izan zuten. Topaketa **Wiesbaden**en egin zen, **ekainaren 14tik 19ra**. Han, beren hiri-arteak erakutsi zuten eta mundu osoko partaideekin bildu ziren, ideiak, obrak eta abileziak trukatzeko.

Gainera, senidetze horren esparruan, **Easo abesbatzak** (ahots mistoak) pandemia ondoko atzerrirako lehen irteeran, **lau kontzertu** eman zituen **abenduaren 6tik 9ra**: bi **Wiesbaden**en eta beste bi **Wiesbaden** inguruko bi hiritan (**Bad Schwalbach** eta **Bingen am Rhein**). Errepertorioa askotarikoa izan zen, eta honako hauen obrak abestu zituzten: **Aita Donostia, Tomás Aragüés, Pablo Sorozabal, Josu Elberdin, Jesús Guridi, Bartolomé Ercilla** eta **Sabin Salaberri**, besteak beste.

Babesleei esker onak

Aurreko urteetan bezala, beren babesa eman duten erakunde eta markei esker onak emanez amaitu nahi dugu memoria hau, aipatutako zenbait jarduera ezin izango bailirateke haien laguntzarik gabe gauzatu. Eskerririk asko **Coca Cola, El Diario Vasco, FCC, Eroski, Supermercados BM, Insalus, Nestle, EKP, Frigo, Super Amara, ADEGI, Garbera, 18/70, Sagardoa Route, Euskaltel, Luckya, Basque Culinary Center...** eta Festak-en lana posible egin duten gainerako pertsona, enpresa eta erakundeei.

Beste zenbait elkarlan

2023an ere, Donostia Festak hirugarrenen ia berrogeita hamar jardueretan elkarlanean aritu zen, baimenak lortzen lagunduz, babes logistikoa eskainiz eta aholkuak emanez. Besteak beste, honako hauetan: **Goizaldi Dantza Taldearen 75. urteurrena** ospatzeko hainbat jardueratan, **Donosti Cup** txapelketaren eta **Boga Boga** jaialdiaren inguruan antolatutako ekitaldietan eta urtean zehar hirian egiten diren ohiko jardueretan (**Txakolin Topaketa, Arte Azoka, Estudioa Kalean...**).



Festen atalaren logotipoa

Festen atalaren ohiko logotipoa berritu zen, eta logotipo berri hori Santo Tomas feriako kartelean erabili zen lehen aldiz.

Azken urteetan nortasun-ikur gisa erabilitako **#Donostia/San Sebastián Festak** traolaren ordean **DKdonostiafestak** erabiliko da aurrerantzean.

2



2

3

Jaialdia
DONOSTIAKO JAZZALDIA


Jaialdia DONOSTIAKO JAZZALDIA

Jendetza handia bildu zen kontzertu guztietan, eta **Donostiako Jazz Jaialdiaren** marka historikoa hautsi zen; 191.000 lagunek bete zituzten bost egunetan zehar 16 eszenatokitan egin ziren 90 kontzertuak. Sarrerak agortu ziren salgai zeuden 21 kontzertuetatik 15 kontzertutarako. Trinitate Plazako lau gauetatik hirutan zintzilikatu behar izan zen *sold out* oharra, Kursaal jauregiko bost kontzertuetatik hirutan, San Telmo Museoko kontzertu guztietan, Club aretoko bitan, JazzEñeko batean, bai eta Maria Cristina Hoteleko kontzertuan ere. 18.882 sarrera saldu ziren guztira, eta munduko 40 herrialdeetatik erosi ziren. Doako kontzertuetara, berriz, 172.000 lagun joan ziren.

Nazioarteko izar handien kontzertuak, Jazzaren etorkizuna markatuko duten artista hasiberrienak, musika-estilo ezberdinetako kontzertuak, hemengo taldeenak... askotariko kontzertuez gozatzeko aukera egon zen. Musika-kalitate bikaineko kontzertuak izan ziren, horietako asko denon oroimenean betirako geldituko direnak; batzuk aipatzearren, honako artista hauek nabarmen ditzakegu: **Julian Lage, Norah Jones, Joss Stone, Ben Harper, Ezra Collective, Yosuke Yamashita...**



Joss Stone © Lolo Vasco



Jazzaldiak asko eskertzen eta baloratzen du jendearen erantzuna; izan ere, uztailaren 24an eta 25ean, euria egin zuen arren, musika-eremu guztiak betetzeaz gain, 2023an ere, jokaera eredugarria izan baitzuten entzuleek, inolako arazorik eragin gabe. Hiria berriro ikusi genuen musikaz, jai-giroz eta ospakizunez gainezka.



Fred Wesley & the New JBS © Lolo Vasco

Marka guztiak
hautsi zituen
58. Jazzaldiak



Trinitate Plaza

Gitarren gaua izan zen Trinitate Plazako lehena, uztailaren 22an. Lehenik eta behin, **Julian Lage** gitarra-jotzaileak, eskaini zuen kontzertu apartarekin, argi utzi zuen sasoi oneneko eta Jazzaren munduan etorkizun handieneko gitarra-jotzaileetako bat dela. Ondoren, **Bill Frisellek** ere txundituta utzi zituen zaleak, haren gitarraren soinuaren argitasun, dotorezia eta berotasunarekin. Bi emanaldien tartean, elkarrekin taularatu ziren gitarra-jotzaile biak, jendartearen memorian grabatuta geldituko diren une horietako batean.

Uztailaren 23an hauteskunde orokorrak izan ziren, baina hori ez zen oztopo izan Trinitate Plaza berriro bete zedin. Hasteko, Donostiako Jazzaldia Saria jaso zuen **Abdullah Ibrahim** musikariak eta, ondoren, kontzertu fin eta gorena eskaini zuen; haren bihotzaren barru-barrutik *a capella* abesten amaitu zuen maisu hegoafrikarrak. **Nubya Garciak** eskaini zuen bigarren kontzertua, izugarria, sekulakoa, argi utziz Jazz garaikidearen izarrik handienetakoa dela.

Enrico Ravarekin hasi zen uztailaren 24ko egitaraua; hark ere Donostiako Jazzaldia Saria jaso zuen goizean, bere musika-ibilbide osoaren aintzatespen modura. Ez zuen hutsik egin tronpetaren maisu italiarrak, eta kontzertu aparta eskaini zuen, Jazzaren Italiako talentu gaztez inguratuta. Ondoren, **David Helbock's Austrian Syndicate** taldearen txanda izan zen; euria barra-barra ari zuen arren, entzule gehienak haien aukietan jarrai zezaten lortu zuen, bere zuzeneko bikainaz gozatzen.

Jai handi batekin eman zitzairen amaiera Trinitate Plazako kontzertuei. Lehendabizi, **Bamba Wassoulou Groove** maliarrek dantzan jarri zuten plazan zegoen jende guztia, haien gitarra hipnotikoekin. Eta edizio honi amaiera emateko, **Joss Stone** bikainaren kontzertuaz gozatu ahal izan genuen. Haren ahots ikaragarriari eta sinpatiari esker, hasiera-hasieratik bereganatu zuen publikoa, hainbat aldiz jaitsi zen zaleen artean abestera, eta berriro jarri zuen dantzan eta abesten plaza osoa.





Norah Jones © Lolo Vasco

Kursaal Auditorioa

Askotariko estiloak batu zituen Kursaal Auditorioak, kalitate artistiko handiko bost kontzertutan. **Kenny Barron** eta EGOK liluratuta utzi zuten publikoa lehendabiziko egunean. **Norah Jonesen** txanda izan zen hilaren 22an eta egundoko emanaldia egin zuen, haren ahots bereziarekin eta piano harrigarriarekin. **Ben Harperrek**, haren ahots bikainarekin eta gitarra apartarekin, ikaragarri gozarazi zien zaleei, **The Innocent Criminals** taldearekin batera. **Pat Metheny** izan genuen uztailaren 24an; haren gitarrekin, berriro utzi zituen txundituta bere jarraitzaile leialak. Eta, amaitzeko, hilaren 25ean, **Rocío Márquez & Bronquio** izan genituen, egundoko kontzertu batean: konplexua, ñabarduraz betea, soinu-testura zuena, ezusteko eta norabide-aldaketaduna, artez eta sentimenduz gainez egiten zuena.



Pat Metheny © Lolo Vasco

FCC Victoria Eugenia Antzokia

laz bezala, JazzEñeren bederatzigarren edizioa izan dena hartu zuen FCC Victoria Eugenia Antzokiak. 650 bat lagun joan zen kontzertu guztietara, eta kalitate handiko 8 musika-proposamenez gozatu ahal izan zuten: **Lucía Rey Trio, MOVE, Carles Margarit Quinteto, NGBM Cuarteto, Alto For Two, Niño Josele, Bandolero Cuarteto eta Gonzalo del Val.**

Keler Gunea

Askotariko estiloak entzun ahal izan ziren Keler Guneo 8 kontzertu jendetsuetan. Uztailaren 21ean, 40.000 lagun jarri zituen dantzan hondartzan **Village People** taldeak; ondoren, **Fred Wesley** handiaren txanda izan zen, funkaren historiako izen handienetako batena. **Blue Lab Beats** izan genituen hilaren 22an; freskoak, esperimentalak eta oso atseginak. Erabat eurenganatu zuten publikoa. Jarraian, Keler Gunea joan ziren **Viva Suecia** taldearen milaka jarraitzaileek haien abesti guztiak kantatu eta dantzatu zituzten, lehenengo notatik hasi eta azkeneko notaraino. **Arde Bogotá** taldeak energia, karra eta biribiltasuna erakutsi zuen barra-barra hilaren 23an. **Tiken Jah Fakoly** taldearen txanda izan zen ondoren, eta haien reggae aldarrikatzailearekin eta duten talde handiarekin, giro bikaina sortu zuten hitzordura hutsik egin ez zuten 16.000 zaleen artean. **Ezra Collective**-ek eskaini zuen uztailaren 24ko lehenengo kontzertua; sasoi betean dago taldea eta, zalantzarik gabe, gaur egun unerik onenean dauden Jazz taldeetako bat da. Euria egin zuen arren, dantzan jarri zituzten zaparrada azpian han jarraitzen zuten 5.000 zaleak. **ZETAK** taldeak eman zuen Keler Guneo 2023ko edizioko azkeneko kontzertua; 8.000 lagun elkartu zituen, denak taldearen abesti guztiak abesten eta koruak egiten.



Eri Yamamoto © Lolo Vasco



Ezra Collective © Lolo Vasco



Tiken Jah Fakoly © Lolo Vasco

Skoda San Telmo Museoa

2023an, berriro erabili zen bakarkako piano-kontzertuen formatua San Telmo Museoko klaustroan. Inolako anplifikaziorik gabe, jende kopuru murriztarekin eta leku magiko horretan, museoko klaustroan, pianoaz gozatzeko aukera eskaini zuten kontzertu horiek.

Japoniako lau piano-jotzailek eskaini zituzten bost kontzertutako sarrera guztiak agortu ziren: hilaren 21ean eta 22an jardun zuen Donostiako Jazzaldia Saria jaso zuen **Yosuke Yamashitak**, zuten kalitateagatik, adierazkortasunagatik eta teknikagatik entzule guztiak txunditu zituzten bi programarekin. Hilaren 23an, **Eri Yamamotok** sinpatia eta fintasun handiz eskaini zuen emanaldia, eta **Bruce Barth** senarrarekin ere aritu zen; hainbat pieza eskaini zuten elkarrekin, lau eskutara. Uztailaren 24an, **Kento Tsubosakak** sormen handiz eta teknika bikainaz eskaini zuen bere kontzertua, eta **Hakuei Kimek** itxi zuen bakarkako piano-kontzertuen zikloa hilaren 25ean, duen estilo pertsonal, dotore eta erritmoz betearekin.



Arima Soul © Lolo Vasco

Frigo Gunea eta Fnac Gunea

Estilo eta jatorri ezberdineko taldeez gozatzeko aukera egon zen jendez gainezka zeuden terraza horietan. Jazzaldirako Tokiko Taldeen Hautaketa-prozesuaren eta Katapulta Tour ekimenaren bitartez aukeratutako euskal taldeez gozatzeko aukera ere egon zen, eta argi gelditu zen une bikaina bizi izaten ari dela euskal jazz: **Xahu, Isla Trio, Motelas, Arnaud Labastie Trio, Les Cuisinieres, Lutfi Jakfar's Sith Trio, Bamms, Amaika Rude, Mikel Legasa's Quintet, Xavi Maldonado & David Cid Cuartet, Kinkfols** eta **Olana Liss** aritu ziren, hain zuzen ere. Izen handiko eta ibilbide bikaineko nazioarteko artistak ere izan genituen, hala nola: **Damir Imamović, The Side Effects, Ill Considered, Jerry Bergonzi, The Mississippians, Sara Dowling, Pacific Jazz Ambassadors, Conversessions** eta **Bengue**.



Ill Considered © Lolo Vasco

Club aretoa

Freedom First taldearen bi kontzertu izan genituen, eta bietan parte hartu zuen, espetxetik, heriotza-zigorra duen **Keith LaMar** musikariak; urrutitik, baina Club aretoan bertan egon zen LaMar. Entzuleak hunkituta utzi zituzten bi kontzertu horiek.

Nauticool, Garbera, Fnac Foruma eta San Martin Merkatua

Nauticool *chill out* espazioak bost kontzertu hartu zituen, non jendeak leku paregabe batean gozatu ahal izan zuen musikaz: **Arima Soul, Elena Setién, Blue Lab Beats, Nakar** eta **Ramada Inn**.

Beste bost kontzertu antolatu ziren Garberan: **Sara Dowling, Ill Considered, Jerry Bergonzi Quartet, Blue Lab Beats** eta **Five Stars**.

Fnac Forumean ere egon zen zer entzuna eta zertaz gozatu, **Ura Dúo, Trío Nordeste** eta **Brian Aching Cuartet** taldeen kontzertuekin. Eta San Martin Azokan, berriz, bi kontzertu izan genituen: **Gonzalo Encinal & Fran Serrano** eta **Rodrigo Lauroba & Aitor Miramon** musikariarenak.

Txikijazza

Benetan zoragarriak izan ziren 2023ko edizioko Txikijazzaren bost egunak. Askotariko kontzertuez gozatu ahal izan zuten orain dela 11 urtetik Txikijazzaren jarraitzaile finak diren familiek eta publikoak. Jazz bikaina entzun ahal izan zen, **Five Stars** taldearen, **Eri Yamamoto**ren pianoaren, **Hamaika Rude** eta **Les Cuisinieres** taldeen dibertsioaren, **Iago** gaztearen magiaren eta **Michelle Hendricks** eta **Sara Dowling** ahotsen eskutik. Hori guztia, indarra hartzen ari diren hiru espaziotan: Chillida Lekun, Garberan eta Tabakalerako Kutxa Fundazioaren espazioan. Azkeneko bi espazio horiek erabat bete ziren, eta 1.500 lagun baino gehiago egon zen Chillida Lekun. Gainezka egon ziren tailerrak, jazz kontzertuez gozatzeko bitartean sortzeko gogo biziz zeuden hurrez beteta.

Streamingak eta sare sozialak

2023ko edizioan, zortzi kontzertu eskaini ziren doan *streaming* bidez, eta zintzilikatuta eta eskuragarri gelditu dira Jazzaldiaren Youtube-ko kanalean.

Sare sozialei dagokienez, 42.000 jarraitzaile izan genituen.

WEBGUNEA (www.jazzaldia.eus)

Azkeneko 12 hilabeteak:

- 189.086 erabiltzaile
- 729.827 bisita
- 2.064.405 ekitaldi
- Batez besteko interakzio-denbora: 1'32".
- 167 herrialdetatik bisitatu zen webgunea



Enrico Rava Fearless Five © Lolo Vasco

59. Jazzaldia (2024)

Donostiako Jazzaldiaren hurrengo edizioa, berrogeita hemeretzigarrena, 2024ko uztailaren 24tik 28ra ospatuko da.

2



2

3

Jaialdia
GLAD IS THE DAY

Jaialdia GLAD IS THE DAY

2022ko edizioan, 12.000 bisitarirekin, jaialdiak izan zuen arrakastaren ondoren, 2023an, jaialdia Cristina-Enea parkean egin behar zen arren, **Dabadaba** eta **Le Bukowski** aretoetan egin behar izan zen azkenean, aurreikuspen meteorologikoen ondorioz.

Jaialdia parkean ospatu ez zen arren, eta merkatua, piknika eta haurrentzako jarduerak bertan behera utzi behar izan ziren arren, Donostia Kulturak zazpigarren edizioa mantendu zuen. Horrela, larunbateko eta igandeko musika-egitarauko emanaldi gehienei eutsi zitzaien.

12 taldek eta artistak hartu zuten parte edizio honetan. Larunbatean hasi ziren musika-ekitaldiak, **Glad is Aperitif** aperitiboarekin, **Muare** eta **Ines DJ** taldeekin, Tabakalera.



Ines DJ © Iñaki Rubio



Muare © Iñaki Rubio

Glad

ABUZTUA
27 DE
AGOSTO



is

IGANDEA
DOMINGO

the

CRISTINA
ENEA
PARKEA,
DONOSTIA

Day


DOAN
GRATIS
11:30-20:30

#7

ALAI
EUSKOPRINCESS
GAZZI
KIEVRA
KULTO KULTIBO
LA OLA MALDITA
LAS LIGAS MENORES

MUTIKO, DENSO & TATTA
NAKAR
SEÑOR NO
SUSO
TITO RAMÍREZ
YUGEN KALA
YXEB 3000

LAGUNTZAILEAK



KOORDINAZIOA





Euskoprincess © Iñaki Rubio

Igande arratsaldean jarraitu zuen programazioak Dabadaban; **Nakar, Las Ligas Menores, Tito Ramírez, Yxeb 3000 DJ, Yugen Kala DJ** eta **Gazzi DJ** aritu ziren han. Le Bukowsky aretoan, berriz, **Euskoprincess, Kievra y Denso, Mutiko & Tatta (DMT)** eta **Tao DJ** artisten emanaldiez gozatu ahal izan genuen.

Europako Kultura Hiriburutzaren testuinguruan sortu zen ekimen hori 2016an, eta urte gutxi hauetan erreferentziazko ekitaldia bihurtu da Donostiako uda-giroan. Kultur etxeek antolatzen dute, eta **Egia Kultur Etxeak** eta **Dabadaba** eta **Le Bukowsky** aretoek koordinatzen dute; VII. edizio honetan, gainera, **Keler** etxeak babestu du, eta **Kutxa Kultur** eta **Tabakaleraren kolaborazioa izan du.**



Nakar © Iñaki Rubio



Tito Ramírez © Iñaki Rubio

2



2

3

Jaialdia FANTASIAZKO ETA
BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA

Jaialdia FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA



Lone Fleming & Marian Salgado

Urriaren 27tik azaroaren 3ra ospatu zen Aste entzutetsuaren 34. edizioa, eta erreferentziazko leihoa izaten jarraitu zuen azkeneko urteetan Euskadin eta Euskaditik moldeak hautsi eta ikusle zein sortzaileentzako harrotasunezko bideak ireki dituen genero honetarako. Euskal mitologian inspiratuta, **Bruixes-Sorginak** izan zen aurtengo *leitmotiva*, lehen aldiz beste jaialdi batek ere izan duen gaia, Molins de Reiko **TerrorMolins** jaialdiak, hain zuzen ere. Kultura-truke hori hainbat emakume irudigileren gai beraren inguruko erakusketa batean eta baterako liburu ofizial batean ere islatu zen.

Baterako inbokazioak berriro lortu zuen audientziaren erantzun ona Donostian; 10.000 ikus-entzule joan zen egin ziren zinema-emanaldietara, eta beste ia 10.000 lagunek bisitatu zituzten erakusketak eta antolatutako jardueretan parte hartu.



Halloween

URRIA
27 OCTUBRE

XXXIV

AZAROA
3 NOVIEMBRE



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN 2023

FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO
ZINEMAREN ASTEA
SEMANA DE CINE FANTÁSTICO
Y DE TERROR

Donostia / Donostia Azaroaren 6. eta 10. egunak - Azaroaren 3. / Promocionak, Marea Festival

WWW.SANSERASTIANHORROFESTIVALEUS

ANTOLATZARAA / ORGANIZA

KUDEZKAR / PATROKINAK





Halloween



Sorginak erakusketa, Sara Bea



Sorgin seinalea erakusketa

Denboraldi honetan, **La Ermita** koprodukzioa (euskal-kataluniarra, hain justu) izan zen fantasiako filmen arteko proposamen nagusia, sail ofizialeko estreinaldien artean. **Carlota Peredak** zuzendutako filma da, oso-osorik Euskadin filmatu dena eta, hein batean, Euskadiko kondairetan ere inspiratuta dagoena. Bestalde, lehen aldiz antolatu zen Euskal Film Laburren maratokia, generoak Euskadin duen osasun onaren ustea indartu zuena. Halaber, euskarazko azpтитulu gehiago egon zen saio guztietan, azpтитulu elebidunaren aldeko apustu batekin (euskarari bisualki lehenatasuna emanez).



Sorgin-Con

Erakusketei dagokienez, **Iconos del Cine Fantástico Japonés** izan zen anbiziotsuena, Euskadiren eta Japoniaren arteko kultura-harremanak gogora ekarri dituen urtearen barruan. **Akelarre ilustrado** erakusketa ere egon zen ikusgai, bai eta **Sorgin seinalea** euskal komiki mitikoari eskainitakoa ere.

Publiko berriak sortzeko lanarekin ere jarraitu da, haurrentzako eta familientzako jarduerekin, eta aurten lehen aldiz, GauBeltza-Gaztea saioarekin eta *anime* estiloari eskainitako beste batekin.



Sorgin-Con

2



2

3

Jaialdia
GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

Jaialdia

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

Apirilaren 21etik 28ra arteko sail ofizialarekin, bi hamarkada bete zituen jaialdiak, pentsamenduarekin, sentsibilizazioarekin eta zinemaren kalitatearekin duen konpromisoa finkatuz. Urte esanguratsua zen, gainera; alde batetik, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 75. urteurrena betetzen zelako eta, bestetik, Txileko estatu-kolpe militarra gertatu zeneko 50. urteurrena. Bigarren gertaerak isla zuzenagoa izan zuen programazioan; horrela, ohorezko saria eman zitzaion **Carmen Castillo** dokumentalista txiletarrari, eta haren erakusketa bat ere egin zen.



Carmen Castillo, 2023 Zinemaldiko Saria

Mundu osokoko 27 film laburrek hartu zuten parte 2023ko jaialdiaren sail ezberdinetan. Askotariko gaiak jorratu dituzte film horietan, hala nola justizia unibertsala, abortatzeko eskubidea, Ukraina eta etxegabetasuna. Euskal ekoizpenek leku nabarmena izan zuten; hala, **20.000 Especies de Abejas** (Inaugurazioa), **Las buenas compañías**, **Cabeza y Corazón** eta **Nadie está lejos** filmak estreinatu ziren, eta **Karpeta Urdinak** filmaren emanaldi berezia egin zen. Film laburrak istorio gehiago ezagutarazteko tresna garrantzitsua izaten jarraitu zuen; 13 lanek hartu zuten parte. Beste edizio batzuetan bezala, epaimahai gazte jendetsu batek hautatu zuen film laburrik onena, eta saio gehienetara joan zen; saio horietako askotan, solasaldia egin zen filma proiektatu ondoren.



Estibaliz Urresola, 20.000 especies de abejas



Victoria Eugenia Antzokiaren fatxada



20

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN / 2023

21 - 28 apirila / abril



© 2023 - Espazioa, 2023 - 2023 / 2023 - 2023 / 2023 - 2023

www.zinemaetagizaeskubideak.eus
www.cineyderechoshumanos.eus

Aholkuzuek / Organizar



Balantzeak / Patroizien



Irisgarritasunaren filosofiak arlo guztiak hartzen ditu jaialdian eta, horregatik, gorrentzako 10 saio programatu ziren (filmak azpituluekin, eta solasaldiak zeinu-hizkuntzan). Jaialdiko ekitaldi gehienetan erabili zen zeinu-hizkuntza. Horrez gain, audio-deskribapenak izan zituzten bi saiotan, eta *Eserleku Urdina* etiketadun familia-saio bat antolatu zen, Gautena elkartearen aldeko irizpenarekin. Martuteneko espetxe barruan ere eskaini zen emanaldi bat.



Malala erakusketa

Hiru filmek osatu zuten hezkuntza munduari zuzendutako eskaintza. Erabat berreskuratu zen ikastolentzako aurrez aurreko formatua Antzoki Zaharrean, baita ikasgeletan lantzeko ezinbesteko gidaliburu pedagogikoak ere.

Jaialdia osatzeko, **bost erakusketa** antolatu ziren hiriko hainbat lekutan.



Tetuán erakusketa



Inaugurazioa Victoria Eugenia Antzokian

2




2

3

Jaialdia
LITERAKTUM

Jaialdia LITERAKTUM

Literaktum Letren Jaialdia azaroaren 13tik 26ra egin zen 2023an, hainbat erakunderekin lankidetzan jardutearen ondorioz sortu diren proposamen berriekin. Jende ugari hartu zuen parte adin guztietako zaleentzako antolatutako 54 jardunaldietan. Guztira, 6.100 lagunek hartu zuen parte **Literaktum** jaialdiko jardueretan.



Maitasunaren geografiak izan zen aurtengo edizioko gai nagusia, eta horrekin lotuta, hainbat idazlek hartu zuen parte jaialdian, hala nola **Antonio Muñoz Molina**, **Ray Loriga** eta **Marta Jiménezek**, **Blanca Llum** eta **Castillo Suárez** poetek, **Jacobo Bergarechek**, **Nerea Baldak**, **Alejandro Gándarak** eta **Ramón Andrések**.

220



Jacobo Bergareche © Iñaki Rubio



Alejandro Gándara Primer amor © Iñaki Rubio



Antje Rávic © Iñaki Rubio



Patri Urkizu lagunartean © Iñaki Rubio



Munduari itzulía 80 egunetan erakusketa © Iñaki Rubio

Literaturako lan berriek ere izan zuten euren espazioa literaturaren jaialdian, kasu honetan **Gioconda Belliren, Patxi Zubizarretaren** eta **Antje Rávic Strubel** idazle alemaniarraren eskutik.

Arrakasta handiarekin abiatu zen edizio honetako egitaraua Ernest Lluch Kultur Etxean, **Gioconda Belliren** parte-hartzearekin, eta **Antonio Muñoz Molinarekin** Antzoki Zaharrean izandako solasaldia izan zen jendetsuena.

Egileekin izandako solasaldiez gain, ipuinak berridaztearen inguruko polemikari buruzko mahai-ingurua ere egin zen **Literaktum** jaialdiaren barruan, **Literatura infantil, ¿cambiamos el cuento?** izenburuarekin, eta **Patri Urkizu lagunartean** omenaldia egin zitzaion **Patri Urkizu** idazleari.

2023an ospatu diren hainbat urteurren ekarri ziren gogora **Literaktum** jaialdian egindako lau erakusketetako hirutan. Horrela, **Mikel Laboa** hil zeneko 15. urteurrenaren harira, **Mikel Laboa... izan liteke konstelazio, izan gabe izar** erakusketa egin zen; bestalde, **Munduari bira 80 egunetan** argitaratu zenetik 150 urte igaro dela eta, izen bereko erakusketa antolatu zen, eta Euskadiko Irudigileen Elkarte Profesionalaren 20. urtebetetzea ospatu zen, **Euskal Irudigileak 20 urte** erakusketarekin. **Surflaria** komikian oinarritutako izen bereko erakusketa izan zen laugarrena.



Gioconda Belli © Iñaki Rubio



Mikel Laboa © Iñaki Rubio

Antzerkiak, dantzak, Irun Hiria Kutxa Sarien banaketa-ekitaldiak, bideoforumak, irrati-nobela batek, film laburren emanaldiak eta literatura-solasaldiak eta ondoren **Julio Verner** lanean inspiratuta egin zen afariak osatu zuten helduentzako egitaraua.

Parte-hartze handia izan zuen hurrei zuzendutako **Literaktum Txikiak** ere. Egitarau zabala antolatuz: ipuin kontalariak, antzezlanak, Haurren Egun Unibertsalaren 7. jaia eta **Maitasuna erakusleihoan** jarduera; azken horretan, Martuteneko Arantzazuko Ama Ikastolako ikasleek maitasunari buruzko idazkiekin apaindu zituzten auzoko erakusleihoak. Aparteko aipamena merezi du Literaktum Txikia Ilustrazio Lehiaketaren hirugarren edizioak; **Oninen abenturak** izan zen gaia, eta 301 ilustraziok hartu zuen parte.

Jaialdiak www.literaktum.eus webgune berria estreinatu zuen, jendeari antolatu zenaren eta gertatutakoaren berri eman ziona. Oso harrera ona izan zuen webgune berriak, 16.700 bisitarekin, modu askoz intuitiboagoan kontsulta baitaitezke edukiak eta parte-hartzaileei buruzko informazioa. Publikoaren esanetan, gainera, diseinu aproposa du.

Sare sozialek ere eragin handia izan dute jendearengan, ondorengo datuekin: X-en (Twitter) 34.200 aldiz ikusi ziren txioak, eta Facebooki dagokionez, 2.100 lagun heldu zen webgunera, egin ziren argitalpenei esker.

Donostia Kulturak antolatzen duen **Literaktum** jaialdiaren indarguneetako bat da duen kolaboratzaile-sare handia; honako hauek hartu zuten parte hirugarren edizioan: Kutxa Fundazioak; Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol departamentuak; Donostiako Udaleko Sustapen eta Hezkuntza departamentuak; Etxepare Euskal Institutuak; Goethe Institut erakundeak; Gipuzkoako Liburudenden Elkarteak; Euskal Herriko Unibertsitateak; Mikel Laboa Katedrak, eta Euskadiko Irudigileen Elkarte Profesionalak, besteak beste.

Jaialdia amaituta ere, **egileek esan zutena entzuteko aukera egon zen, Literaktum** jaialdiaren webgunean, **Donostia Kultura Irratian, DK ON!** eta podcast plataforma nagusietan zintzilikatu ziren **solasaldietako audioei** esker.

Jaialdiaren egunetatik aparte, **Literaktum Topaketen** bi hitzordu antolatu ziren urtean zehar, Okendo Kultur Etxean: apirilaren 26an izan zen lehenengoa, **Jhumpa Lahiri** idazle estatubatuar ezagunarekin, eta irailaren 29an bigarrena, 2018an Literaturako Nobel Saria irabazi zuen **Olga Tokarczuk** idazlearekin.



Antonio Muñoz Molina © Iñaki Rubio

2



2

3

Jaialdia
DFERIA

Jaialdia dFERIA

dFERIA jaialdiaren 2023ko edizioaren berritasun nagusia izan zen nazioartekotze-ildoak indartzea, batez ere Europari begira. Fruituak eman zituen horrek, eta nabarmen handitu zen nazioarteko profesional akreditatuen kopurua. Gainera, nabarmentzekoak izan ziren izandako maila artistiko altua eta proposamenen aniztasuna, dFERIA estatu mailako erreferente bilakatzen dutenak. Azkenik, publikoaren erantzuna eta akreditutako pertsonen maila berreskuratu egin ziren pandemiaren ondoren.

dFERIAk sentsazio bikainekin itxi zuen XXIX. edizioa. **14.000 lagun inguru** joan ziren antolatutako jarduera guztietara: **8.500** ikuskizunetara, batez beste % 81eko okupazio-mailarekin, eta **5.300** dFERIAko jarduera profesional eta ekitaldietara.



How to_just another Boléro, Emanuele Rosa & Maria Focaraccio-Gorka Bravo © Gorka Bravo

Proposamenei dagokienez, ikuskizunen kopuru handi bat (% 64) estreinaldiak izan ziren modu batean edo bestean: bat mundu mailan, beste bat Europa mailan, estreinaldi bat Estatuan eta hamabost Euskal Herrian. Diziplinei dagokienez, % 46,5 dantza izan zen, beste % 39 antzerkia, % 11 diziplina anitzak eta zirku ikuskizun bat ere izan zen. Konpainien jatorriari dagokionez, % 43 euskal konpainiak izan ziren (12), % 36 espainiarrak (10) eta % 21 nazioartekoak (6). Kuba, Italia, Belgika, Alemania eta Costa Ricakoak izan ziren jaialdian parte hartu zuten nazioarteko konpainiak.

Akreditutako lagunen kopurua 2019koaren antzekoa izan zen; urte hartan lortu zen, hain zuzen ere, kopuru handiena. **540 profesional** etorri ziren guztira. Horietatik 209 programatzaileak, 71 banatzaileak, 160 ekoizleak edo konpainia-ordezkariek, 21 kazetariak eta kritikariak, eta 18 beste sektore batzuetako profesionalak. Aipatzekoa da nazioarteko profesionalen kopurua %10ekoa izan zela, gehienbat Europatik eta Amerikatik etorritakoak.



© Gorka Bravo

F A K E

dFERIA

XXIX. ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

MARTXOA 13-16 MARZO
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
2023

WELTON


Antolatzaileak / Organizadores




Baitakoak / Patrocinadores



Laguntzaileak / Colaboradores



Fundazioak / Fundaciones



dferia.eus





Gap of 42, Chris Iris © Gorka Bravo

Programazioa

28 konpainiak hartu zuten parte 2023ko edizioan, eta 28 ikuskizun aurkeztu zituzten, 44 funtziotan.

Lau funtziotan jarri behar izan zen *Sarrerak agortuta* kartela. Eta ez zen estreinaldirik ere falta izan.

Estreinaldi orokorra:

- ***Ihir*, Amaia Elizaran**

Estreinaldia European:

- ***La celda sin noche*, Antz3rkiz**

Estreinaldia Estatuan:

- ***How to just another Boléro*, Emanuele Rosa & Maria Focaraccio**

Estreinaldiak Euskal Herrian:

- ***Diptych: The missing door and The lost room* (Peeping Tom)**
- ***Suirrealismo* (Circle of trust & Logela)**
- ***La caja. Donde la realidad pierdes sus límites* (Teatro de la Catrina)**
- ***Runa* (Laly Aiguadé)**
- ***Los perros* (Led Silhouette)**
- ***Samsara* (Chey Jurado & Javito Mario)**
- ***Sweet dreams* (Alberto Velasco)**
- ***Fresa y chocolate* (La Ventana Mágica)**
- ***Hernani* (Arte y desmayo)**
- ***Burgos New York Dantz* (Continuum, The conversation, Raiz)**
- ***El nadador de aguas abiertas* (K Producciones)**
- ***Strip-tease* (Morfeo Teatro)**
- ***Gap of 42* (Chris Iris)**



Mierda de ciudad, Cia. Olatz Gorrotxategi © Gorka Bravo



Strip-tease, Morfeo Teatro © Gorka Bravo


FAKE



Fresa y chocolate, La Ventana Mágica © Gorka Bravo



Sexpertos, Tanttaka © Gorka Bravo



Diptych, Peeping Tom © Gorka Bravo

Bederatzi agertoki izan zituen jaialdiak: Victoria Eugenia Antzokia, Victoria Eugenia Kluba, Antzoki Zaharra, Gazteszena (Egia), Imanol Larzabal (Lugaritz K.E.), Intxaurrenondo Kultur Etxea, Kutxa Kultur Plaza (Tabakalera), Dantza Aretoa (VEA) eta San Telmo Museoa.

Bestetik, **Led Silhouett** konpainiaren **Los perros** eta **El Mono Habitado** antzerki-taldearen **Lurtarrok** izan ziren 2023ko edizioko euskarazko ikuskizunak.

dFERIA



Lurtarrok / Terricolas, El Mono Habitado © Gorka Bravo



Los perros, Led Silhouette © Gorka Bravo

Nazioartekotzea

Europa da erronka eta bidea. dFERIAri Europa interesatzen zaio. Errealitate kultural, politiko eta ekonomiko horri erantzutea nahikoa motibagarria izan zen ildo horretan ahaleginak egiteko. Joan-atorriko bideak sortzea, elkarrekin bidaiatzea, topatzea eta baterako ekimenak bultzatzea dira dFERIAk, Eusko Jaurlaritzarekin eta Etxepare Institutuarekin lankidetzan, ahalik eta urrutien iristeko erabakiarekin planteatzen zituen erronkak. Ahalegin horrek emaitzak lortu zituen, nazioarteko profesionalen ehunekoa nabarmen handitu baitzen, % 10.

Era berean, nazioarteko proiektio handieneko ikuskizunek ingelesez izan zituzten gain tituluak, eta titulazioa ezinezkoa zutenek aldi bereko itzulpeneko audiogida eskaini zuten.

Eskerrak

Lehenik eta behin, hemengo ikus-entzuleei, egundoko erantzuna eman baitziguten emanaldietara etorritz. Baita Donostian dFERIArekin duten hitzordura inoiz hutsik egiten ez duten profesionalei ere. Eta, azkenik, gure esker ona adierazi nahi diegu azken urteotan dFERIA babestu duten instituzioei beren lankidetzagatik. Haien laguntzarik gabe, dFERIA ez litzateke izango gaur egun dena.

Honako hauei, alegia: Eusko Jurlaritzza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa Fundazioaren lankidetzaz berezia, SGAE Fundazioa, Etxepare Institutua, Nafarroako Gobernua, COFAE (Espainiako Estatuko Arte Eszenikoen Ferien Koordinakundea) eta REDELAE (Arte Eszenikoetarako Sare Eurolatinoamerikarra).

Bereziki nabarmentzekoa da euskal antzerki eta dantza konpainien inplikazioa, oro har, eta Eskenarena (Euskal Antzerki eta Dantza Enpresen Elkarte) eta EABena (Euskal Aktoreen Batasuna) bereziki, bai eta Artez aldizkariarena ere.

Horiek guztiek ekarri zituzten haien ideiak 2023ko edizioa definitzeko, ahal zuten guztian lagundu zuten, eta azokarekin konprometitzen jarraitzen dute, baita ekonomikoki ere.

dFERIA-ren XXX. edizioa

dFERIAren hurrengo edizioa 2024ko martxoaren 11tik 14ra bitartean egingo da.



2



2

3

Jaialdia
DKLUBA

Jaialdia DKLUBA

Dkluba programa musika-emanaldien zirkuitua da, auzoetako eta hiriko musika-eskaintza dinamizatzea, hasten ari diren tokiko taldeak ezagutzera ematea eta, gainera, izen handiko artistak etor daitezen bultzatzea helburu duena. Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren bitartez, horren komertzialak ez diren proposamen alternatiboak programatzen dira eta balioa ematen zaio musikari, kolektibo, elkarte, klub eta sustatzaileen tokiko sareari. Azken batean, tokiko musika-talentuaren berezko erreferentea da **Dkluba**.

Argi-ilunak izan zituen 2023ak. Aurreikuspen meteorologikoek baldintzatu zuten **Glad is the day** jaialdia, aldatu egin behar izan zen parkeko programazioa, eta Dabadaba eta Le Bukowski

aretoetara eraman. Bestalde, aretoen egoerak hobera egin zuen, eta pandemia aurreko edizioetako zifretara hurbildu ziren.

Dkluba zirkuituak –kultur etxeetako gainerako programek bezala (Musikagela, Larratxo Kultur Etxeko metal kontzertuak edo Lugaritz Kultur Etxeko askotariko musika-emanaldiak)–, bete egin zituen kontzertu-aretoak, izen handiekin; aldi berean, baina, tokiko artisten aldeko apustua egiten jarraitu zuen.

2023. urtean zehar, dagoeneko haien izena duten tokiko artisten emanaldiak programatu zituen Lugaritz Kultur Etxeak, hala nola **Don Inorrez, Sara Azurza, Esti Markez, Sonakay** eta **Iker Lauroba** izan ziren Lugaritzen, eta ez zuten hutsik egin.



Intxaurrondo Kultur Etxeari dagokionez -horixe da **Dkluba** zirkuituaren eszenatoki nagusia-, **XIII. Musikagela Weekend** jaialdiarekin hasi zen urtea, rock doinu amerikarrenekin, **La Perra Blanco**, **Ramada Inn** eta **Rumbling Lips** taldeen eskutik.

Udaberrian, berriz, erritmo latino eta tropikalez gozatzeko aukera egon zen, **Goxua`n salsa** eta **Quitapenas colectiva** taldeekin. Apirilean eta amaitzean, ostera, **Su ta Gar**, **Corizonas** + **Los Premodernos** eta **Ibil Bedi** taldeak izan genituen.

Uda-giroa iritsi zenean, ekainean, **IV. Musikagela Fest** jaialdia, tokiko taldeen aire zabaleko jaialdi ibiltaria, Tomas Alba Plazara (Sagues) itzuli zen, eta Musikaren Eguneko jaiarekin bat egin zuen (ekainaren 21ean). Musikagelako zortzi talde aritu ziren (**Convöi3zur**, **Monday Lup**, **Ane Leux**, **Cosmicar**, **Muare**, **Tritones**, **Tony Montana & Pavlyuchenko**), baita talde gonbidatua ere, **Travellin´ Brothers** ezagunak.



Ane Leux © Iñaki Rubio



Muare © Iñaki Rubio



Las ligas menores © Iñaki Rubio

Abuztuan itzuli zen **Glad is the day** jaialdia zazpigarren edizioarekin eta, beti bezala, Cristina-enea parkean egiteko asmoa zegoen arren, euriaren eraginez, programazioa egokitu egin behar izan zen, eta Dabadaba eta Le Bukowski aretoetara eraman behar izan ziren emanaldi gehienak.

Irailean berriro iritsi zen musika Intxaurrendora, **El Columpio Asesino** talde nafarrarekin; agurreko birako kontzertuetako bat izan zen, eta haien pop-rock estiloko abestirik enblematikoenak eskaini zituzten. Erantzun paregabea eman zuen jendeak; bete egin zen aretoa. Martxotik zeuden agortuta sarrera guztiak.

Ginmusica eta **Donostia Kulturaren** eskutik, publiko gazteenarekin ekin zitzaion urriko egitarauari. Doinurik urbanoenez gozatu ahal izan zuten musikazale gazteenek, **Donostiakluba Festivalaren** hemezortzigarren edizioan. Artista gazteak izan genituen, hala nola **Orslok**, **Haizeatxo eta Tximu**, **Khaled** eta **Tinez**. Hilabete amaieran, reggaerik onena ere itzuli zen Intxaurrendora, **Revolutionary Brothersek** antolatutako 2023ko **Revolution JamRock** jaialdiarekin; gaueko jaialdi bikaina ekarri zuten, **The Titanians**, **Revolutionary Brothers**, **Ines Pardo**, **OBF feat, Charlie P & Sr Wilson** taldeekin.



Ines DJ © Iñaki Rubio

Kutixik jaialdiarekin iritsi zitzaigun azaroa; tokiko musika-taldez osatutako **Balio dute** kolektiboak antolatzen duen ekimena da Kutixik. Haien lanari balioa emateko eta euskarazko zirkuitu alternatiboa promozionatzeko osatu zuten kolektibo hori. **Haira**, **Ginger**, **Nakar**, **Pelax** eta **Toc** taldeek osatu zuten kartela.

2023ari amaiera ezin hobea emateko, **Trinchera pop** disko berria aurkeztu zigun **Iván Ferreirok**, eta Intxaurrendoko aretoa jendez gainezka zegoela agurtu zuen urtea.



El Columpio Asesino

2



2

3

Jaialdia
POLTSIKO ANTZERKIA

Jaialdia POLTSIKO ANTZERKIA

Kultur etxeek **Poltsiko Antzerkia** jaialdiaren 32. edizioaren balorazio positiboa egin zuten, antolaketari zein herritarren erantzunari dagokienez. **Maiatzaren 4tik 21era** ospatu zen, eta **2.700 ikusle inguru** izan ziren formatu txikiko antzezlanen gozatzen.

Entretenezko eta harritzeko helburuz, 2023ko edizioako programazioak antzerkia, umorea, magia, bentrilokia, mentalismoa, monologoak eta musika ekarri zizkigun. Edizio guztietan bezala, gainera, bi hizkuntza ofizialen eta gizon eta emakumeen presentzia parekoak izan zitezten saiatu ziren antolatzaileak.



Albina Stardust & Divina Comedia,
Covent Garden Cripta © Iñaki Rubio



Las Couchers, Centro Extremeño © Iñaki Rubio



2023
POLTSIKO
ANTZERKIA
TEATRO
DE BOLSILLO



Kaitin Allende, Ohiane Perea, Iratxe Ibarra, Vía Fora © Iñaki Rubio



Tartean Teatroa, Etxarriene © Iñaki Rubio

Guztira, 15 ikuskizun eskaini zituzten 15 konpainiak; 33 emanaldi egin ziren, 17 euskaraz eta 16 espainieraz. 15 konpainia horietatik sei emakumez osatutakoak ziren, beste sei gizonez osatutakoak, eta hiru konpainia misto ere egon ziren. Hiriko 25 espazio ezberdinetan eskaini zituzten emankizunak.

Konpainiek eskerrak eman zizkieten Donostia Kulturari eta publikoari. Donostia Kulturari, gaur egungo koiunturan sektorearen eta jaialdiaren aldeko apustua egiten jarraitzeagatik; eta publikoari, ikuskizunetara ilusioz joaten jarraitzeagatik. **Poltsiko Antzerkiak** publiko leiala du, edizioz edizio Donostiako kultura-programazioan dagoeneko klasiko bat bihurtu den jaialdi honetan berriro topo egiten duena.



Kris eta Krash, Scanner © Iñaki Rubio



Aroa Berrozpe, Avenue © Iñaki Rubio



2



2

3

Jaialdia
ARGIARTEAN

Jaialdia ARGIARTEAN

Kultur etxeen sareak sortutako **Argiar-tean** argi-jaialdiaren hirugarren edizioak berriro elkartu zuen jende andana, iazko zifrak gaituz eta 6.000 bisitara iritsiz.

2019an sortu zen Donostia Kulturaren **Argiar-tean** plataforma **Olatu Talka** jaialdiaren barruan, hainbat diziplina eta profiletako artistek argiar-tean arloan lan esperimentalak sortzeko eta erakusteko.



© Iñaki Rubio



© Iñaki Rubio

Loiolako Erriberetako Memoriaren Parkeko eta **Iesu Elizako** gaueko erakustaldiak harrিতuta utzi zituen berriro ikusleak, *light-art* instalazioekin, proiektzio monumentalekin eta zuzeneko emanaldiekin. Oso positiboa izan da hirugarren edizio honen balantzea ere, erakutsi diren proposamenen aniztasunari zein herritarren erantzunari dagokionez. Udazkenekoa baino udakoa zirudien eguraldiaren laguntzarekin, herritarrek izaera esperimentaleko instalazio, proiektzio monumental eta zuzeneko emanaldi eskaintza zabalaz gozatu ahal izan zuten urriko bi gauetan.



© Iñaki Rubio



© Iñaki Rubio

Hiriko zein inguruko diziplina anitzeko artistek adin guztietako ikusle ezberdinengana iritea lortu zuten. Hurrek primeran pasa zuten hainbat instalazioren argi-jokoekin, **Gheada** estudioaren *Reflections* emanaldiarekin kasu, bai eta **Carlos Solanoren** *Objeto Especular* lanaren interaktibitatearekin ere. Ikusle helduek, bitartean, proposamen intimo eta exigenteagoez gozatu zuten, *Sala de Salas* lanaz, esaterako, proiektzio-ingurune zenitala aparteko espazio batean, **Sinergys** eta **Zine-laben** eskutik. Guztiek gozatu zuten musika proposamenez eta *foodtruck* ibilgailuz betetako terraza handiaz; bi gau arrakastatsu haiek luzatzeko gonbita egiten zuten eskaintza horiek.

Ostiralean hasi zen jaialdia, 20:00etan, ilunabarrarekin batera, **Alvaro Turrión** musikagilearen kontzertuarekin eta **Jaime De Los Ríos** artistaren lanarekin; irudi abstraktuak islatzen zituzten elizaren fatxadan, pianoaren melodiaren erritmora. Gauarekin jarraitzeko, **Laponite XLG** artistaren drag performancea izan genuen eta, amaitzeko, musika elektroniko esperimental, **Sabiwa + Nathan L.** musikarien eskutik.



Kroma © Iñaki Rubio

Lumi taldearen proposamenarekin hasi zen larunbateko egitaraua; **Nagore Legarretaren** argazkiekin batera egin zuten emanaldia, eta melankolia bereziko soinu elektronikoekin nahastuta. Jarraitzeko, **TMATMB** talde kataluniarraren kontzertua eta **Desilence** konpainiaren proiektzio hipnotikoak izan genituen. **Pablo Casares** artista eta sortzaile polifazetikoak eman zion amaiera jaialdiari, lan bikain bat aurkeztuz.



Begiekin pizteko hitzak © Iñaki Rubio



© Iñaki Rubio

2



2

3

Ekoizpena



Basque Luxury

Ekoizpena

2023. urtean, Donostia Kulturako Ekoizpen Unitateak **781 ekoizpen** egin zituen, Victoria Eugenia Antzokian, Antzoki Zaharrean, San Telmo Museoa, Kursaal Elkargunean eta beste espazio batzuetan egindakoak batuta.

Ekoizpen horien artean daude Donostia Kulturaren jaialdiak, hala nola **Antzerki Azoka, Giza Eskubideen Zinemaldia, Jazzaldia eta Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea**.

Donostia Kulturaren aipatutako ekoizpen horiez gain, beste entitate eta erakunde batzuei ere eskaini zitzaizkien ekoizpen-zerbitzuak 2023an.

- **Kursaal Eszena** programazioaren barruko kontzertuak (musika klasikoa eta herri-musikak).
- 2023ko **Urrezko Danborra** eta **Hiritar Merezimenduaren Dominak** emateko ekitaldiak, Donostiako udaletxean.
- **Musika Hamabostaldia / Quincena Musical** Kursaal Elkargunean, San Telmo Museoa eta Tabakaleran. 2023an, opera nabarmendu zen, jaialdi beraren ekoizpenen artean.
- **El Diario Vascoren** Eguberrietako kontzertua, Kursaal Auditorioan.
- **Saharari Kantari** kontzertua, Kursaal Auditorioan.

Aurten, Victoria Eugenia Antzokiaren eraikinaren argazkiak digitalizatzeko lan bat egin da, lau multzotan; sarrerak edo tiketak, eszenatokiari eta arlo teknikoari dagozkion instalazioak, arlo komertziala eta apaingarriak. Irudi horiek antzokia eta haren zerbitzuak hobeto ulertzen laguntzen dute, gaur egungo euskarri tradizionalak osatuz.

Prebentzioaren eta Hobekuntzen arloan, antzokietako goiko tramoiarekin lotutako jarduteko moduei dagokienez, rigging ikastaro bat egin zen **Pablo Morenoren** eskutik; Espainian ikuskizunen industriako segurtasun eta rigging kontuetan erreferente nagusietako bat da Moreno.

Halaber, LT Argiztapeneko kotsola erabiltzen ikasteko ikastaroa egin zen; fabrikatzaileak berak eman zuen.

Azkenik, motorizatzeko eta maskor akustikoari konponbidea aurkitzeko azterketa abiatu da, berriki esleitu dena.



Basque Luxury



Basque Luxury



Pintxo Gala



Pintxo Gala

2



2

3